

# Amets vez

## SUITE ADULESCENTE

Antzerki testua tutoretzan lantzeko  
**Gida didaktikoa**



# Gida didaktikoa

*Primera vez*

*Suite ADSLescente*

**Javier Izcue** eta **Ignacio Aranguren**  
antzerki testua

tutoretzan lantzeko

**Erredakzio taldea:**

Yolanda Azpíroz  
María Luisa Delgado  
Juan Ramón Goya  
María Luisa Jiménez  
Leonor Pérez  
Gabriel Rubio  
María Emiliana Ruiz

**Koordinatzailea:**

Ignacio Aranguren





# *Aurkezpena*

NAFARROAKO GOBERNUAREN HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN HELBURU LEHENETSIA DA Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetza bultzatu eta sustatzea. Ildo horretatik, urtero kanpaina bat abiatzen du bizikidetza hobetzeko, hezkuntza komunitate guztiei zuzendua.

Aurten, bada, Bigarren Hezkuntzako ikastetxean hartu ditugu aintzat eta honako material didaktiko hau aurkezten dugu, Primera vez. suite ADSLsecente antzerki lanean oinarritua. Materialaren osagai dira lanaren testua, antzetzalde baten bideo grabazioa eta hura lantzeko gida didaktikoa.

Esperantza dugu material hau baliagarri-lagungarri izanen zaiela Bigarren Hezkuntzako irakasleei, denak inplikaturik baitaude bizikidetzarako hezkuntzan, zeinek bere ikastetxe eta ikasgelako errealitatearen arabera moldatzeko.

Antzerki lan hau iaz antzestu zen Iruñeko Navarro Villoslada BHian eta argi gelditu zen zenbateko ahalmena zeukan ikasgeletan lantzeko materialtzat eta 2009-2010 ikasturte honetarako euskarria izateko. Antzerkiak izaten duen josteta eta ikasketa edukiari, azterketa eta gogoeta kritikoa gehitzen zaio pertsonaiek irudikatzen dituzten balio eta kontrabalioren gainean eta horiek bizikidetza hobetzeko duten eraginarenean gainean.

Kanpaina honek arrakasta izanen badu, irakasleak animatzea lortu behar luke material didaktiko hau erabiltzera bizikidetza ikasi eta irakasteko ikasgelan erabili ohi dituzten baliabideen arte beste bat bezala. Denok inplikaturik gaude prozesu horretan eta Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin konta dezakezue lanbide horretan.

**Alberto Catalán Higuera**  
Hezkuntza Kontseilaria



# *Aurkibidea*

Sarrera .....	7
Abertura.....	9
Primera vez que me falló un amigo .....	17
Primera ex regla.....	25
Primer puntico y seguido .....	33
Primer laberinto.....	45
La primera vez .....	59
Primera tarjeta de crédito.....	67
Primeros Sanfermines .....	75
Primer recreo sin bocata.....	85
Primer descontrol .....	95





# Sarrera

Hezkuntza Departamentuak *Primera vez. Suite ADSLescente*, Ignacio Aranguren eta Javier Izcueren antzezlanaren argitaratzea erabaki du. Obra hori iaz taularatu zuen Iruñeko Navarra Villoslada institutuko antzerki tailerrak, eta Hezkuntza Departamentuak hagitik interesgarri iritzi dio 2009-2010 bizikidetzaren kanpainaren oinarritzako materiala izateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

Ikasmaterial honek, bada, lehenik antzerki lanaren testua du osagai, fotokopiatzeko moduko liburu batean argitaratua; bigarrenik institutuko ikasle horiek egindako antzeztaldi oso baten grabazioa DVD batean, eta azkenik esku artean duzun gida didaktiko hau ere bai, Institutu horretako irakasle talde batek modutua. Gida honako helbide elektronikoan dago eskuragai: <http://www.educacion.navarra.es/portal/Informacion+de+Interes/Asesoria+para+la+Convivencia>. Hor, bai PDFan eta bai Word-en, deskarga edo inprima daiteke gidaren bertsio bat, irakasle bakoitzak aukera izan dezan jarduerak bere ikasleen eta egoeraren arabera moldatzeko.

Gida didaktikoak antzerki lanaren egitura bera jarraitzen du: hamar eszena lokabez osatua dago. Horietako bakoitzak bere gaineko zentzua du eta hortaz bakarka erabil daiteke, ez baitago batetik besterako argudio segidarik. Oso pertsonaia desberdinak ageri ditu bakoitzak, egoerak ere arras desberdinak direla, nahiz eta denen arteko lokarri bat bada goen: eszena guztiek nerabe horiek beren libertatea erabiltzeko egoera eta aukera jakin bat, beren bizitzarako garrantzi handikoa, lehenbiziko aldiz bizi izan zuten momentu bat taularatzen dute.

Eszena guztiak, bestalde, antzerki tratamendu banakoak dira. Momentu batzuk komikoak dira, beste batzuk dramatikoa, kostunbristak edo errealistak, eta bai beste batzuk ere fartsa kutsukoak, ikusle nerabeen konplizitatea bilatze-

ko. Eszena batzuk aktore askokoak dira; beste batzuk, berriz, bakarriketa intimistak. Hala ere, denek nerabeen harreman-bilberako garrantzitsu diren egoera eta balioak taularatzen dituzte eta, hortaz, denak aukera ezin hobea dira bizikidetzaren gainean gogoeta egiteko.

*Primera vez. Suite ADSLescente* lanaren grabazioa, bestalde, hamar obra labur balira bezala aurkeztu da, zein bere titulu eta kreditu propioekin. Hasierako menu batek bide ematen du ezena bakoitzera zuzenean sartzeko, irakasleak bere interesekoak hautatu eta haietan zentratzeko, obra osoan zehar bila ibili beharrik izan gabe. Era berean, gida didaktiko hau ere atalkatua aurkezten da, obrako eszena adina ataletan hain zuzen: atal bakoitzak eszena baten analisi zentratzen da eta denek barne egitura berari segitzen diote: laburpena, gaiak, pertsonaiak, sorkuntza jarduerak eta komentatzeko testua. Zati horietako bakoitzak bere jarduerak izaten ditu, ondotik, ahal denean, erantzunak edo ebazpideak dituztela. Horrez gain, bukaeran komentatzeko edo debatitzeko testu gisa, obraren atal horretan agertu diren gaietan espezialista prestigio aitortuko profesional baten testua edo kolaborazioa erantsen da.

Material aberats, egileen jardunbide onaren eta esperientzia profesionalaren fruitu den honen helburua da ikasgelara gaurko nerabeen puzzlea osatzen duten pieza ugariatako batzuk ekartzea da. Segur gara teatroak beti ematen digun dibertsioaren ondotik, analisi kritikoa eta gogoeta ere etorriko direla pertsonaiek haragitzen dituzten balio edo kontrabalioren gainean eta bizikidetzarako horiek izaten duten garrantziaren gainean.

**Hezkuntza Departamentuko  
Bizikidetzarako Aholkularitza**



# *Abertura*







## Laburpena

Alde batetik bestera dabilen animalia saldo bat, nerabe talde bat irudikatzen duena, hainbat sentimendu, egoera edo jarreraren "lehenbiziko aldia" kontatzeko bildu da, gogora ekartzeko eta horietaz mintzatzeko: institutuan hasierako eguna,

lehenengo adiskidea egitea, lehenenbiziko traizioa pairatzea, lehenbiziko amodioa, barregarri gelditutako lehenengo sententzioa, baztertua izandako lehenengo egoera, familian ulertu ez izana, arauak urratzea, protagonismo nahia, etab.

## Jarduerak

Egin ezazu testuaren laburpena, gehienez ere 7 lerrokoa. Nahi baduzu honela has zaitezke: *Nerabe talde bat (erlemandoak eta erleak) asmo honekin bildu dira...*

## Gaiak

Aurreneko eszena honen gaiak era askotakoak eta ugari dira:

**Maitemintzea eta erakarpena:** Pertsonaien hitzartze zenbaitetan islatzen dira: (2 zenbakidun erlemendoa) *ezin dut ahan-tzi Edurne ikusi nuen lehenbiziko aldia*; (3 zenbakidun erlea) *Ni erabat maintemindua nengoen hartaz eta Bea pikutara bidaltzeko zorian egon nintzen*; (5 zenbakidun erlea): *Lehenengo amodioa? SMS bat bezalakoxea da. Bat-batean iristen da, txistua bezala.*

**Giza arauak edo moralak urratzea:** Eszenan lehenbiziko lapurreta oroitarazten da: *Eminem-en disko bat eskuratzeko irrikaz nengoen... Eta Carrefourreko segurtasuneko morroi ba-tek harapatu ninduen.* Piper eginiko lehenengo aldia: *Biurda-na aldera joan ginen; nor enteratuko zen, bada?* Edo etxetik alde eginiko lehenbiziko aldia: *DBHko 3. mailan ari nintzelarik aldendu nintzen etxetik aurreneko aldiz.* Irakasle andreari egi-niko lehenbiziko umiliazioa: *Ticher-Tacherren ordezkotza egiten ari zen... negar eginarazi genion.*

**Eragozpenak gurasoen eta seme-alaben arteko harre-manetan:** Adibide gisa ama baten erreakzioa nerabeak piper egin duela jakitean: *Postre ederra amak eman zidana!* Elkarre-kin komunikatzeko zailtasuna zenbait gaitan, hala nola se-xuaz edo drogez mintzatzean: *Batzuetan gurasoak ikaragariak dira! Hura izan zen elkarrizketara eta kontu pedagogikoetara le-*

*rratu zeneko lehenbiziko aldia. Tira, lehenbizikoa eta azkena. Makillajearen debekua: Lehenengo aldiz makillatzen nintzena! DBHko 2. mailan izan zen...*

### Giza sentimenduak eta harremanak:

- Adiskidetasunaren eta traizioaren garrantzia. (Iker “adiskidearen” eta kondoia-aren pasadizoa edo Silvia eta Bearen arteko harremanak).
- Irrigarri gelditzeko beldurra eta lotsa (Puzkerra zirudie-naren kontakizuna).
- Besteen miresmena erdiestearen premia larria, protago-nista izan nahia zeinahi egoeratan, kalterako bada ere (Motoan iristeko gogoa, markako arropa eramatea, ins-titutuko mutilik ederrenarekin hitz egitea, Blackberry bat edukitzeaz harrotzea, bikain bat ateratzea edo gol bat sartzea; polita zarela norbaitek esatea edo Marearen kontzertuan itxura ederreko mutil batekin ikusia izatea.)

**Bazterketa eta arbuioa:** “Desberdinak” diren pertsona ba-tzueganako portaeran nabari dira (DBHko 3. mailako mutil etorkina; txinatar neska eta beste kultura batzuetakoak; aka-tsen bat dutenak: betaurrekodunak, pikortak dituztenak, po-ttoloak, hitz-totelak...)

**Heldutasunaren gaineko gogoeta.** Eta etorkizuna eta...



## Jarduerak

### Aipa itzazu testuan ageri diren gaietako batzuk.

*Maitemintzea eta erakarpena, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, giza sentimenduak eta harremanak, emigrazioa eta desberdintasuna, arauak urratzeko eta gauza berriak probatzeko gogoia.*

### Maitemintzearen eta erakarpeneren gaiak eszena honetan daude. Aipa eza zuen unetan ageri diren eta nola islatzen diren.

*Erakargarri egin zaion neska bat lehenbiziko aldiz ikusten duen mutila (2 zenbakidun erlemendoak gogoratzen du Edurne ikusi zueneko aurreneko aldia). Ingelesko irakaslearen ordezkotza egin zuen Rose Maryrenganako lilura aitortzen duen ikaslea. 5 zenbakidun erleak dio berari horixe gertatu zitzaioela Interneten. Amodio horietan guztietan errepikatzen dira beren platonismoa eta uzten duten oroitzapena (Ez dago urtarrileko ilargitxo bezain argirik, ez eta lehenbizikoa bezain amodio gozorik).*

### Zein da zure ustez maizena gertatzen dena? Egoera horietakoren bat bizi al duzu? Nola sentitu zara?

*Nahierara erantzun.*

### Pertsonaien baitan ikusten al duzu eza-eritako arauen kontra doan jokabiderik?

*Bai. Carrefourren disko bat ebasten saiatu den ikaslea, irakasle andreari jasanarazten dioten umiliazioa, piper egitea, DBHko hirugarren mailan etxetik alde egitea.*

### Maiz gertatzen dira jokabide horiek? Hauta ezazu kasu horietako bat eta esan horrelako zerbait bizi izan duzun, nori kalte egiten dion eta nori mesede edo zer ondorio ekar lezakeen.

*Nahierara erantzun. Era horretako jokabideen gainean egin daitekeen debata: zergatiak, ondorioak...*

### Eszena honetan nola azaltzen dira gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak? Eta zein unetan?

*Modu aski negatiboan. Gai batzuk joratzeko orduan naturaltasun falta sumatzen da. Horrek berekin dakar elka-*

*rizketa jarraiturik ez izatea. Seme-alabek lagunengandik gurasoen portatera barrengari jartzen dute.*

### Zure iritzi jokabide horiek errealitatearen isla al dira? Positiboak iruditzen zaizkizu?

*Nahierara erantzun. Debate baterako bidea ireki dezake alderdi anitzen gainean, baina hartuz gurasoen lagunengandik aitzinean nola mintzatzen diren eta zergatik horrela.*

### Pertsonaien baitan zenbait egoeratan sumatzen diren sentimendu desberdinen adibideak bila itzazu: adiskidetasuna, traizioa, maitasuna, irrigarri gelditzeko beldurra, protagonismoaren grina.

*3 zenbakidun erlearen eta 4 zenbakidunaren artean omen zegoen adiskidetasuna traizio bilakatu zen bigarren erlea lehenbizikoaren mutilarekin elkartu zenean, mutilaren kontrako abisua eman ondoren. Pertsonaien artean guztiz agerian daude lotsaren eta irrigarri gelditzearen beldurra: adibiderik argiena jendaurrean hitz egin behar duen mutilaren zoritxarra, oholtzara igotzean zer gertatuko eta zapatak puzker itxurako hotsa ateratzea. Miresmen eta protagonismo premia etengabe ageri da; pertsonaiek besteen errekonozimena*

*duaren beharra dute, besteen arreta kostatu ahala kostatu erakarri beharra: mota edukitzea, edo azkeneko ipod modelua, edo markako arropa, besteek mutil eder batekin ikustea, are eta gelatik kanporatua izatea ere. Bakoitzak bere jarreraren edo dohainen arabera.*

### Aurreko galderan azaldu ahal izan diren egoeren parekorik bizi al izan duzu inoiz? Pertsonaia horiek bezala sentitu al izan zara? Egoera horien aitzinean nola jokatu beharko litzateke?

*Nahierara erantzun.*

### Eszena honetan zein egoeratan sumatzen da bazterketa edo arbuioa?

*DBHko hirugarren maila egiteko asmoa etorri den mutil etorkinaren kasuan, txinatar neskaren kasuan eta, oro har, akatsen bat duten pertsonen kasuan, horiei aihertzen baitzaie taldea, gainetarakoak isilik gelditzen diren bitartean.*

### Nola gainditu dute arbuioa pertsonaia horietako batzuek?

*Alderdi desberdin eta positibo bat erakutsiz: ikas-nahia, ahalegin pertsonala.*

### Inoiz sumatu al duzu arbuioa edo norbait arbuia lagundu al duzu? Nolako izan da zure bizipena bi kasu horietako edozeinetan?

*Nahierara erantzun.*





## Pertsonaiak

Obra honetan pertsonaia multzo bat ageri da (20tik goiti), erlemendoak eta erleak, guztiak erlauntz berekoak. Hau da, adin bereko nerabeak, ikastetxe berean zenbait urtez elkarrekin bizi izan diren ikaskideen taldekoak, eta horrexegatik bizipen berberak izan dituztenak. Pertsonaia bat bera ere ez da bakoiztua ageri. Horien jokabidea, jarrera edo senti-

mentu jakin batzuk bizi izateko modua orokortzea da helburu.

Seguru aski, erlemendoak eta erleak bereiztean egileek erlauntz baten mundua eta bakoitzaren rol sozialak gogora ekarri nahi izan dizkigute. Bereizketa horrek funtzio komikoa edo parodikoa besterik ez du.

## Jarduerak

### **Pertsonaiek zergatik ez dute izen propiorik?**

*Jarrera eta sentimendu orokorrak irudikatzen dituztelako, nerabeek izan ohi dituztenak*

### **Egileek pertsonaiak erlemendo eta erle zergatik bihurtu dituztela iruditzen zaizu?**

*Agian, erlauntz berean bizi direla adierazteko, hau da, bizikidetzatoki bera dutela (institutua), eta eginkizun sozial bera. Alegia moderno baten gisan, alegiaren erakutsia irakurleek edo ikusleek atera behar dute.*





## Sortze jarduerak

**Asma ezazu bizpahiru pertsonaiaren arteko elkarrizketa xume bat, testuan ageri ez den “lehenbiziko aldia” bezalako bat kontatuz eta zu zerori zuzenean nahiz zeharka islaturik agertaraziz.**

*Nahierara erantzun.*

## Testuaren gaineko iruzkina

Familiarteko harremanek antzerki lan baten antza dute, ate bat irekitzen da eta beste bat ixten. Beren artean mintzatzen dira, isiltzen, ezkututzen, galdetzen, elkarri laguntzen. Eztabaidatzen dute, gerorako proiektuak egiten, oroiminez gogoratzen.

Gurasoak, seme-alabak, aitona-amonak, elkarrekin bizitzea, zeinean gatazkak, fantasiak, ilusioak izaten baitira. Halaxe da bizitza. Gidoirik gabeko aktoreak, hura egunero idazten baita, etxeko eta kanpokoekiko elkarrekintzan.

Horrelakoxea da bizitza, etxe arrunt desberdinak, inguruabar erabat bestelakoak. Belaunaldi belaunaldi. Itzulituruka, bilakatuz, bizitza nola pasatzen den ikusiz, bizitza eraikiz.

Ikusle izan daiteke edo aktore, parte hartzearen alde egin dezagun, esan dezagun: “maite zaitut”, gure burua maitasunean, dibertsitatean, eraiki dezagun.

Gurasoak eta seme-alabak, izatearen arrazoia, jadanik izan denaren arrazoia.

Ez dezagun eska guri eskatzen zaiguna baino gehiago. Galde diezaiogun geure buruari nor gara gu? eta erantzunen dugu: “ni eta nire ingurunea”, eta lehen ingurunea, segurki, familia da.

**Javier Urra**

Madrileko Adingabeen Fiskaltza



*Primera vez  
que me falló un amigo*







## Izenburua

Hiztegian huts egite-ren esanahietako bat da espero den gauza bati ez erantzutea. Alde horretatik, lagun batek huts egin digula esaten dugu guk espero bezala erantzuten ez badu. Adiskideek asteburuan denak batera ongi pasatzea espero dute, baina haietako batek, beste guztiak izorratuz, huts egin du beilatokira joan behar baitu hil berri den urruneko ahaiden bat “despeditzera”. 1. UNEA.

Izenburuak, hala ere, batzuetan esanahi metaforikoa eta ironiatsua dauka, 2. UNEAN adiskidearen huts egitea haren heriotza baita. Gauza bera gertatzen da 3. UNEAN, adiskide duen aitona hiltzen denean.

Kasu horietan izenburuak badi-rudi heriotza islatzen duela, protagonista edo protagonistak nahita edo nahigabe “izorratzeko” balio duen egitate bat bezala. Agian, komeni da hiltzea eta huts egitea aditzek latinez etimologia bera dutela gogoraraztea: fallere, ez betetzearen, engainatzearen esanahiarekin.

## Jarduerak

**Zer esan nahi du izenburuak? Zure iriziz taula honetan ba du hitzez hitzeko esanahirik?**

*Hiztegian huts egin aditzaren esanahietako bat da gauza batez espero zen ondorea ez ematea. Alde horretatik, adiskide batek huts egiten badu espero genuen eran jardun ez duelako da. Izenburuak, hala ere, batzuetan esanahi metaforikoa eta ironiatsua dauka, 2. UNEAN adiskidearen huts egitea haren heriotza baita. Gauza bera gertatzen da 3. UNEAN, adiskide duen aitona hiltzen denean. 1. UNEAN,*

*huts egiten duena Mikel da, adiskideekin parranda egitera joaterik ez duena, beilatokira joan behar duelako...*

**Hiru uneetarako balioko lukeen izenbururen bat asmatuko zenuke?**

*Nahierara erantzun.*

**Huts egin aditzaren esparru lexikoko beste hitz batzuk bila itzazu.**

*Hutsegite; huts egina, hutsal, hutsarte, hutsune;*

**Huts egitearen antonimoren bat aipa dezakezu?**

*Asmatu, ongi erabaki. Izenburuaren testuinguruan egokiro bete, erantzun.*



## Laburpena

Eszena hiru une diferentetan dago zatitua:

**1. UNEA:** Lau gaztetxo esperoan daude, bosgarrena, Mikel, beilatokitik noiz aterako zain, hil berri den urruneko ahaide bat despeditzera sartu baita. Mikel agertzean, denak hasten dira heriotzaz mintzatzen, inolako funtsik gabe, helduen portaera teatralari bakarrik erreparatuz eta horrelako gertaera batek ekar dakizkiekeen "onurak" aintzat hartuz. Nerabeen buruan ongi pasatzeko planak baizik ez.

**2. UNEA:** Bost gaztetxo, Batxilergoko azken ikasturtean, istripu batean hil berri den Raulek, 17 urteko ikaskideak, egiten zituen txantxak eta txisteak komentatzen ari dira. Uneko tristurarekin nahasten dituzte haren ateraldi barrengarriak, haren bizitza zer izan zitekeen gogoratzea eta haren oroimena betiko gordetzeko asmoa.

**3. UNEA:** Neska gazte bat, bakarrikzeta maitekor eta txeratsu batean, aitoren irudiaz oroitzen da, lehenbiziko adiskide eta jolaslagun izan zuena, haren heriotzaz, bake osoan bere etxean gertatuaz, oroitzen den bitartean.

## Jarduerak

Hiru UNE horietako bakoitzaren edukia laburbil ezazu, gehienez ere 6 lerrotan, 4 lerrotan eta 3 lerrotan, hurrenez hurren.

*Ikus azalpen teorikoa.*

## Gaia

Hiru une horietako gai nagusia heriotza da eta, horrekin batera, bizitzaren hiru unetan, egoeratan edo etapatan sortaraz ditzakeen giza sentimenduak:

Heriotzari buruzko axolagabekeria eta mespretxua, ongi ulertzen ez den gertaera baten aitzinean sentimen ezaren ondorio izan daitekeena eta, horregatik, afektibotasunean inolako eraginik ez duena. Sentimendu hori indartzen dute pertsona nagusienganako enpatiarik ezak eta haien jokabide eta sentimenduak ez ulertzeak (1. unea).

Atsekabea adiskide bat galtzean, mindura, txundimen eta amorruearekin batera. Pertsonaiak, bat-batean, pertsona heldu bilakatu dira, ondorio guztietarako. Atsekabea eta txundimena erremediorik ez duen gertaera ustekabeko baten, heriotzaren, ondorioztat hartzen da, itxaropenez beteriko bizitza ezustean zapuztu duena. Galerak sortarazitako atsekabearekin eta urruneko heriotza hurbiltzean egiten diren galdeekin batera, betiko desagertu den norbaiten oroitzapena bizirik gordetzeko borondatea ere bada (2. unea).

Aitona zenaren oroitzapen maitekorra, txeraz, oroimenez eta penaz gogoratzean (3. unea).



## Jarduerak

**Adieraz ezazu hiru testuetan zein den oinarrizko gaia.**

*Heriotza.*

**Hiru une horietako pertsonaiek modu berean erreakzionatzen dute pertsona baten heriotzaren aitzinean? Zertan datza haien arteko aldea?**

*1. UNEKO pertsonaiei ez zaie axola Mikelen ahaidearen heriotza; ez du inolako eraginik haiengan eta gertaera horregatik ez daude batere minduak. Alderantziz, ahal den azkarren ihes egiten dute. Ez zaie, inondik ere, heriotzaren zentzua edo garrantzia bururatu ere egin.*

*2. UNEKO pertsonaiek, aldiz, benetako tristura eta atsekabea sentitzen dute, bai eta amorru eta mindura ere. Ongi dakite Raul adiskidea ez dutela gehiago beren artean izanen; faltan sumatzen dute eta betiko be-*

*ren oroimenean eduki nahiko lukete. Saiatzen dira printzipioz ulertezina eta zentzurik gabekoa den gertakari horri zentzua bilatzen.*

*3. UNEKO protagonista bere aitona asko maite zuen neska bat da, aitona eta haren heriotza penaz eta samurtasunez gogoratzen duena. Heriotza ulertzen du, zentzurik baduela uste du osotasunez bizi izandako bizitza, neskak behin ere ahanztiko ez duena, iragan ondoren.*

**Inoiz bizi izan duzu antzeko egoerarik? Hiru egoera hauetatik zeinekin identifikatzen zara gehien? Zer iruditzen zaizu pertsonaia desberdinen jokabidea?**

*Nahierara erantzun.*

**Ba al dakizu zer den eresi bat?**

*Doluminezko abesti bat maite den norbait hil delako.*

# Pertsonaiak

Desberdinak dira une bakoitzean.

**1. UNEKO pertsonaiak.** Nerabe talde bat da, bi neska eta hiru mutil, horietatik bakarra ageri da bere izen eta guzti, Mikel. Nesketako bat, ustez eta Mikelen neskalaguna-edo omen da.

Bost gaztetxoek, oharpenen arabera, “hiri-tribu” bati dagokion udako jantziak daramatzate: atorra zabalak, beisboleko kapelak, skater edo hiphop motako parafernalia, eta izaerari edo nortasunari dagokionez ez daude bakoiztuak, aitzitik, lehen nerabezaroko (14-15 urte?) pentsamoldea, sentitzeko era, izaera islatzen duen taldea eratzen dute. Zerbait berezirik badute zera da, interes bakarra asteburuan dutela jarria eta horrek dakartzan dibertsio planetan. Taldekide bat ahaide baten heriotza dela-eta beilatokira joan beharra izatea zerbait gogaikarria da guztientzat, juerga egiteko plana eteten duena. Gertaera honetan atera dezaketen abantaila bakarra litzateke, agian, nagusietako batek poltsa arindu eta eurakoren batzuk soltatzea.

Heriotzak sortzen duen galera edo atsekabe sentimendua ez da inola ere barneratu; gertaera hori beraiekin zerikusirik ez duen zerbait dela sentitzen dute, kanpokoia besterik ez dute sumatzen: nagusien portaera “teatrala”, negarrez, otoitz egiten edo denbora pasa txisteak kontatzen edo tabernan zurrutean. Azken finean heriotza ez zaie axola eta ez du inolako eraginik haiengan.

**2. UNEKO pertsonaiak.** Pertsonaia hauek, halaber, ez daude bakoiztuak eta ez dute izen propiorik ere. Bosteko taldea osatzen dute, hiru mutil eta bi neska, eta oharpenek adierazten

dutenez, Batxilergoko azken ikasturtean ari dira eta hori dela-eta halako seriotasun batez jantzi dira (kolore ilunak, jaka bakeroen gainetik...)

Horiengan nabaria da Raul adiskidearen heriotzak sortarazi dien tristura bai eta haren txantxak, ateraldiak edo izateko modua gogoratzeko ahalegin ikaragarria ere. Ezagun dute adiskidea ez dutela erabat galdu nahi, oroimenean berderen bizirik eduki nahi dutela.

Bitxia bada ere, pertsonaiarik indibidualizatuena, izena eta nortasun propioa duena, Raul bera da, istripuaren biktima. Adiskideek esaten dutenaren bitartez, hots, zeharbidez, ezagutzen ari gara adar-jotzailea zela, ateraldi zorrotzekoa, ikasketetan edo lanean jarrera positiboa zuena, hala eskatzen zitzaionean, eta bizitza “normala” izateko joera, alde guztietatik.

**3. UNEKO pertsonaia.** 3. unean pertsonaia bakarra dago. Bakarrizketan diharduen neska da, bere aitona zena gogoratuz. Ez dugu identifikatzeko daturik: adina, itxura, izena..., baina sumatzen ahal dugu hura ere nerabe bat dela, beharbada aurreko uneko pertsonaien adin berekoa.

Protagonista-narratzailea helduagoa da, gehiago bizi izan da eta aitona oroitzean sentiberatasun handiz adierazten ditu bere haurtzaroko xehetasun txikiak ere. Nabaria da gogokide eta lehenbiziko adiskide izan zuen pertsona haren ganako maitasuna eta nola sentimendu hura zela-eta heriotzeko orduan izan zuen portaera maitekorra eta samurra. Neskak ulertzen du eta beretzat nahiko luke laurogeita hamar urteko aitona izan zuen heriotza bezalakoa, lasai, bere gauzez eta seme-alaben eta biloben maitasunaz inguratua.

## Jarduerak

### Nolakoak dira 1. UNEKO pertsonaiak?

*Gaur egungo nerabeak dira, modara jantziak, eta duten interes nagusia asteburuan ongi pasatzea da. Proiektuak egiten dituzte botiloi batera joateko eta Mikelen ahaide baten heriotzak ez dizkie planak aldatuko. Ez datoz bat nagusien sentimenduekin eta ulertu ere ez dituzte ulertzen. Heriotzarekin zerikusi duen guztia erabat arrotz egiten zaie. Bereizgarri gisa kolore biziko arropak jantzen dituzte, udaberrikoak edo udakoak diruditenak.*

### Nolakoak dira 2. UNEKO pertsonaiak?

*Batxilergoko bost neska-mutil dira, istripu batean Raul, beren adiskidea, hil dela-eta triste daudenak. Etengabe gogoratzen dute nolakoa zen hura, haren txantxak eta txisteak. Nahiko luke hartaz beti oroitzea eta deitoratzen dute haren bizitza izan zitekeena ez dela jadanik posible izanen. Jantzen duten arropa ikusiz, ilunak eta udazkenean erabiltzekoak, ongi agerian adierazten dute beren tristura.*

### Nolakoa da 3. UNEKO pertsonaia?

*Neska gaztea baina, aldi berean, heldua, bere aitona zena gogoratzen duena. Neskak ezagun du asko maite zuela eta haren haurtzaroan hagitz inportantea izan zela. Azaldu digu bere jolaslaguna izan zela eta lehenbiziko adiskidea. Aitonaren heriotza kontatzean, nabari zaio galera hartaz eskulako pena izan zuela.*



## Sortze jarduerak

**Idazlantxo batean egin ezazu hil den pertsona baten azalpena, eta saia zaitetz harekin izan duzun harremana eta haren oroitzapenak sortarazten dizkizun sentimenduak islatzen.**

*Nahierara.*

**Arretaz irakurri Iosu Cabodevillaren testua eta erantzun ondorengo galderrei, testuan berean dauden ihardespennak baliatuz. Zer da heriotza?**

*Heriotza ez da porrota, bizitzaren parte bat da. Bizia eta heriotza elkarren artean loturik eta bat eginik daude. Heriotza gizakiaren ezin saihestuzko ezaugarria da, bere-berea. Heriotza pertsonaren bukaera naturala da, bere izatearen amaiera.*

**Aurreko baieztapenetik bat hauta ezazu eta adierazi zeure hitzez horren esanahia.**

*Nahierara.*

**Zer da giza existentzia?**

*Sortzetik heriotzera doan tarte naturala da, pertsona gisa nork bere burua gauzatzeko dituen aukeren eremua.*

**Adierazi esaldi honen esanahia.**

*Nahierara.*

**Egungo kulturak zer jokabide du heriotzari dagokionez?**

*Egungo kulturak heriotza ez du kontuan hartzen, ezkutatu edo saihesten du, lizunkeriazko, aipatu ezinezko, ezkutuan eduki beharreko zerbait bailitzan, eta hortaz mintzatzea, gogoeta egitea, debatitzea gustu txarreko zat jotzen da. Tabutzat hartzen da eta horrela aipatzen.*

**Heriotza ez da jadanik gizakiaren alderdi natural bezala hartzen eta borrokatu behar den zerbait bilakatu da, zientziak huts egiten duenean bakarrik gertatzen dena. Zergatik uste duzu horrela gertatu dela egungo gizartean?**

*Nahierara erantzun.*

**Heriotzaren aitzinean zergatik sortzen da atsekabea? Eta zergatik da horren bortitza?**

*Pertsona batek baliozko zerbait galtzen duenean, atsekabetuko da eta*

*doluminaren (atsekabearen) bizitasuna ez da galdutakoaren neurrikoa izanen, baizik eta ematen zaion balioaren, hau da, galeraren inplikazio afektiboaren arabera.*

**Baieztapen hori kontuan izanik, zure ustez 1. UNEKO gaztetxoek zergatik ez dute ahaide baten heriotzagatik inolako atsekaberik izan eta 2. eta 3. UNE-ETAKO pertsonaiek bai ordea?**

*Hil den pertsonarekiko lotura afektiboa zeharo desberdina izan da hiru uneetan. Lehenengo kasuan ez zegoen inolako lotura afektiborik; horregatik pertsona horren galera ez zaie axola pertsonaiei.*

**Beste bi uneetan gertatzen dena gutiz desberdina da. Adiskideek Raulekin zuten lotura afektiboa oso sakona eta bizia zen eta gauza bera gertatzen da 3. uneko pertsonaiek bere aitona sentitzen zuenarekin.**

*Laguntzako testuaren egileak dioskuzenez "galera sentitzeko alde aurretik harremanez gozatu behar izan da".*

## Testuaren gaineko iruzkina

*"Hondarrean heriotzarik gabe, hezurretan denborarik ezean, maitasuna hutsala da..."*

José Luis Sanpedro. *Itsaslamina zaharra.*

Heriotza ez da porrota, bizitzaren parte bat osatzen baitu. Egungo kulturak heriotza ez du kontuan hartzen, ezkutatu edo saihesten du, lizunkeriazko zerbait bailitzan, aipatu ezinezkoa, ezkutuan eduki beharrekoa, eta hortaz mintzatzea, gogoeta egitea, debatitzea gustu txarreko zat jotzen da. Tabutzat hartzen da eta horrela aipatzen.

Heriotza ez da jadanik gizakiaren alderdi naturaltzat hartzen eta borrokatu behar den zerbait bilakatu da, zientziak huts egiten duenean bakarrik gertatzen dena.

Bizia eta heriotza elkarren artean loturik eta bat eginik daude; horren ondorioz, batera doazela pentsatu behar da. Heriotza gizakiaren ezin saihestuzko ezaugarria da, bere-berea. Heriotza pertsonaren bukaera naturala da, bere izatearen amaiera. Jaiotzetik heriotzara doan tarte gune naturala da,

pertsona gisa nork bere burua gauzatzeko dituen aukeren eremua. Nolabait ere, amaiera ezartzean eta denborazko egitura mugatu bat sortzean, ondorioz biziaren zentzua bilatzeko eginkizunak ez atzeratzea dakar.

Pertsona batek baliozko zerbait galtzen duenean, atsekabetuko da eta doluminaren (atsekabearen) bizitasuna ez da galdutakoaren neurrikoa izanen, baizik eta ematen zaion balioaren, hau da, galeraren inplikazio afektiboaren arabera.

Galera sentitzeko aurrez harremanez gozatu behar izan da, horixe da bizitzaren dialektika.

**Iosu Cabodevilla**

Zainketa Aringarrietako Unitateko psikologoa  
San Juan de Dios ospitalea

**Primera vez. Suite ADSLescenteko pertsonaia batzuei zuzentzen zaizkien gutun hauek Navarro Villoslada BHI-ko Batxilergoko lehen mailako Juan Ramón Goya irakaslearen ikasleek, neska zein mutilek, eginak dira.**

**Hemen sartu badira duten interesagatik izan da, antzezlaneko pertsonaiek planteatzen dituzten gaiet buruzko erantzun anitzengatik, bai eta nerabeen freskotasun eta bat-batekotasunarengatik ere. Gure ustez gutun horiek baliagarri izan daitezke, halaber, ikasgelan gogoeta egiteko edo debaterako abiapuntu gisa.**

**Gutun bakoitzaren edukia bere horretan transkribatu da, adierazpen akatsen bat edo beste zuzendu badira ere. Lan horiek egin zireneko esparru akademikoa ere errespetatu da, hasiera batean ez baitziren argitaratzeko eginak, baina aldatu dira pertsonen eta tokien izenak.**

## **Pertsonaia bati zuzenduriko gutuna**

Adiskide maitea:

Ez naiz galdezka hasiko nola zauden eta abar, dagoeneko horrelako galderei behin eta berriz erantzuten ederki aspertua egonen zarelakoan nago. Nik neure esperientziatz dakit une batzuetan ez duzula inorekin hitz egin nahi edo besterik gabe ez duzula asmatzen esate baterako “nola zaude?” bezalako galdera erraz bati nola erantzun. Baina mundu osoak, ados jarririk, erantzun bat ematera behartzen zaitu. Segur naiz honezkero ez duzula gogoan zenbat pertsona ia ezezagunek egin dizuten behin eta berriro galdera bera. Adierazten dizute Raulen galerak zenbaterainoko nahigabea eta sentipena sortu dizkien. Haien ustez, zure adiskidearen heriotzak pena eman dielako edo desatsegin egin zaielako, eskubidea dute zure erantzuna entzuteko batera gogorik ez baduzu ere... “nola zaude?”. Seguru aski ez duzu ulertu ere eginen zer dela-eta interesatzen zaien edo zergatik kezkatzen diren zutaz. Azken batean berekoi hutsak dira, ez zaituzte ezertan ezagutzen baina zutaz urrialtzen dira eta horrek gaizki sentiarazten ditueneguz, ongiez hori gainetik kendu nahi dute nola eta galderak eta galderak eginez eta gaizki sentitzen direla errepikatuz.

Nik ez dizut idazten gauza bera galdetzeko. Idazten dizut (eta ongi dakizu zenbat kostatzen zaidan nire alferkeria gaindiezin eta erremediorik gabekoagatik) hau pasatuko dela esateko, denborarekin haren izena entzuteak ez dizula minik eginen, haren txisteren bat, dagoeneko graziaz gabekoa eta amaierako barrerik gabekoa, entzutean ez zaizula malkorik eroriko.

Denbora pasa ahala jendeak ez dizu egunero oroitaraziko adiskidea jadanik ez daukagula gure artean eta bati baino gehiagori ahantzi ere eginen zaio. Bihozmina baretuko da eta haren oroitzapenak ez du erreko, aitzitik poztuko zaitu, konturatuko baitzara oroitzapen hori ez duzula galdu eta inork ere ez dizula kenduko. Gustatuko zaizu. Itxi berri duzun kutxa irekiko duzu eta bertan irribarreak eta barre algarak berriro ageriko dira. Ez dizut adorarik emanen ezin ekidin duzun zerbaitegatik negar gehiago egin ez dezazun. Lagundu besterik ez dizut egin nahi, ikus dezazun bizitza honetan beti gertatu ohi direla gauza mingarriak, bidegabekoak eta aurrez ikusi ezinekoak, eta horiek ezin izanen dituzu ez aldatu ez eta lehengoratu ere. Horietako bat adiskide baten heriotza da. Maite duzun pertsona baten bizia desegiten denean badirudi zure biziaren parte bat harekin desagertzen dela. Denborak bakarrik bete dezake hutsune hori, nahiz eta zure bizi osoa aski ez den orbaina erabat estaltzeko. Ez ezazu zure tristuraren errudun egin, zure irribarreen eragile baizik. Zuk zeure buruari adina zor diozu hari. “Eguzkia galdu izanagatik negar egiten baduzu, malkoek ez dizute izarrak ikusten utziko.”

Izan zoriontsu. Zure adiskidea.

**M.B.**

Batxilergoko Lehen Maila

*Primera ex regla*







## Laburpena

Maika izeneko neskatila bat, pasota itxurakoa, ginekologoarengana doa amarekin. Han daudelarik, Maikak gogoeta egiten du ozenki hitz eginez, tonu mingots, kritikoa eta ironikoan berari gertatzen zaionaz, etxetik kanpo egiten eta bizi duenaz ama ezjakinean dagoelako. Amak Maikari gertatzen zaiona ongi baino hobeki dakiela uste izan arren (emakume egin da), egiaz neskari zera gertatzen zaio, hilekoa ez zaiola lehenbizikoz jaitsi haurdun gelditu delako. Eszenaren hondarrean, Maika lur jota gelditzen da eta den bezalakoa ageri da: nerabe izutu bat, nahi ez duen haurdunaldiaz jakitun egin denean.

## Jarduerak

**Maikaren amari noiz etorri zitzaien lehenbiziko hilekoa?**

*Eskolan zegoela.*

**Maikaren amak zer erabaki hartu du alaba tripako minez dagoela jakitean?**

*Andraize izeneko emakumeentzako osasun zentrorra eramatea.*

**Bere adiskideekin alderatuta, Maikari noiz jaitsi zitzaien hilekoa, besteei baino lehenago edo geroago?**

*Askoz geroago.*

**Aipa ezazu amak Maikari ematen dion aholkuren bat.**

*«Etzazu txokolaterik jan, berriz ere pinportatxoak aterako zaizkizu-eta».  
«Koon-tuzz mutilekin».*

**Zure ustez zergatik onartu du Maikak ginekologoarengana joatea?**

*Amak jakin dezan haurdun dagoela.*

**Laburbil ezazu eszena 10 bat lerrotan.**

*Nahierara erantzun.*

**Bete itzazu hutsuneak:**

*Eszena hau ginekologiako \_\_\_\_\_ batean gertatzen da. \_\_\_\_\_ Maika deitzen da eta \_\_\_\_\_-arengana doa bere \_\_\_\_\_-rekin \_\_\_\_\_ dagoela uste duelako. Hala ere, amak \_\_\_\_\_ alabari \_\_\_\_\_ jaitsi zaiola \_\_\_\_\_ aldiz, horixe dela gertatzen zaiona.*

*Eszena hau ginekologiako kontsulta batean gertatzen da. Protagonista Maika deitzen da eta ginekologoarengana doa bere amarekin haurdun dagoela uste duelako. Hala ere, amak uste du alabari hilekoa jaitsi zaiola lehenbiziko aldiz, horixe dela gertatzen zaiona.*

## Gaiak

Eszena honetan zenbait gai aurkitu dugu:

**Nerabezaroa eta bere arazoak.** Jakina, obra osoko gai orokorra da eta ez eszena honetakoa soilik, baizik eta antzerki lan osoaren hari nagusia.

Nerabeen eta gurasoen arteko **ulertu ezina eta komunikaziorik eza.**

**Gazteen aisialdia eta nagusiak engainatzea** beren aisialdian egiten dutenaz.

**Segurtasunik eza eta damu berantiarra** egindakoaren ondorioei buruz.

**Diferentea izan nahia.**

**Feminismoa eta emetasuna.**

Nerabeen **nahi gabeko hardunaldiak.**

## Jarduerak

**Zein dira eszena honetan aurki ditzakegun gaiak?**

*Nerabetasuna, ulertu ezina, komunikaziorik eza, segurtasunik eza, feminismoa.*

**Honako hitz hauen antonimoak idatzi: feminismoa, emetasuna, segurtasunik eza, ulertu ezina, komunikaziorik eza.**

*Matxismoa, maskulinitatea edo gizon-tasuna, segurtasuna, ulerberatasuna, komunikazioa.*

**Zure ikaskidearekin batean, egin itzazu bi zutabe eta horietan bereizi positiboak eta negatiboak iruditzen zaizkizun gaiak.**

*Erantzun nahierara, baina bereziki azpimarratuz balio positiboetan oinarritutako hezkuntzaren garrantzia.*

**Gai negatiboen sailean, zure ustez zein dira ohikoenak egungo gizartean? Jarri adibideak.**

*Nahierara erantzun.*

**Eztabaida ezazu eszenan ageri diren gaietatik zein diren gatazkatsuenak edo arazo gehien sor ditzaketenak:**

**-gazte batzuek helduekin duten komunikaziorik eza.**

**-gazte batzuek gurasoenganako duten mespretxua.**

**-desberdina izatearen konplexua.**

**-nerabeak haurdun gelditzea.**

*Nahierara erantzun.*



## Pertsonaiak

**MAIKA.** Donibane auzoko neskatila, itxuraz bere buruaz seguru dagoena, independentea eta pasota, beste ikaskideak ez bezala jazten dena. Amarekiko harremanak txarrak dira, amonarekikoak onak, bikainak adiskide dituen beste neskatilekin eta ezin makurragoak mutil-lagun ohiarekin. Funtsean, izuturik dago datorkiona ikusiz, segurtasunik gabe eta ez da gai nahi gabeko haurdunaldi bati berak bakarrik aurre egiteko.

**MAIKAREN AMA.** Berrogei urte inguruko emakumea, Donibane auzokoa, dirudienez bizitza zoriontsua eta arazo handiegirik gabekoa izan duena, alabak egiten, pentsatzen edo sentitzen duenaz deusik ez dakiena, zeina ikusten baitu babestu eta adore eman beharreko neskatiko bat bailitzan. Azken batean, alaba oraindik ere ume txiki eta bere babesaren beharrekoa dela uste du.



## Jarduerak

**Maika nola irudikatzen duzu fisikoki? Luzea ala txikia, ilehoria ala beltzarana, etab.?**

*Nahierara erantzun.*

**Kontuan hartu gabe haren gorpuzkera, Maika barnetik nolakoa dela uste duzu? Nola deskribatuko zenuke haren izaera?**

*Nahierara erantzun. Funtsezko ezau-gariak azalpen teorikoan.*

**Nola irudikatzen duzu Maikaren ama? Fisikoki nolakoa dela deritzozu? Nola doa jantzia? Zenbat urte izanen ditu?**

*Nahierara erantzun.*

**Zein dira eszenan aipatzen diren beste pertsonaiak? Beste pertsonaia horiek zernolako harremanak dituzte Maikarekin?**

*Amona aipatzen du, Linux mutil-lagun ohia, adiskide dituen beste neskatilak. Amonarekin ongi moldatzen dela dirudi, harekin konfiantza handia duela*

*eta berdin adiskideekin ere. Linuxekin, ordea, ez da batere ongi konpontzen, neskaren haurdunaldiaz deus jakin nahi izan ez duelako.*

**Pentsa ezazu Maikarekin familiako beste norbait doala kontsultara: aita, ahizpa edo anaia nagusia, osaba nahiz izeba, etab. Nola irudikatzen duzu senitarteko beste hori? Maikarekin zernolako harremana izanen duela iruditzen zaizu?**

*Nahierara erantzun.*

## Sortze jarduerak

**Eszenak jarraitzen du, Maikaren amak nola erreakzionatuko duela iruditzen zaizu alaba haurdun dagoela jakitean? Idatz ezazu hark izan dezakeen erreakzioa.**

*Nahierara erantzun.*

**Pentsa ezazu Maika adiskide duen beste neska batekin doala ginekologoa-arengana. Idatz ezazu horrela izan babiliz eszena nolakoa izan zitekeen.**

*Nahierara erantzun.*

**Linux funtsezko pertsonaia da Maika dagoen egoeran. Zure iritziz nolakoa izan daiteke Linuxen eta Maikaren arteko elkarrizketa haurdun dagoela esaten dihonean?**

*Nahierara erantzun.*

**Hemendik hamar urtera zer bizimodu izan lezake Maikak? Idatzi hamabi bat lerro gai horretaz.**

*Nahierara erantzun.*

## Zeharkako analisia

**Idatz ezazu testuko protagonistek emakume hitzaz egiten duten definizioa. Zure ustez zer da emakume izatea?**

*Maikarentzat, ipurdira behatzen dituzela sumatzea eta amarentzat, al-diz, hilekoa izatea.*

**Testuan bada aipamenik drogen munduaz eta horien ondorioez?**

*Norberaren egintzen gaineko kontrolaren galera, kasu honetan nerabe bat haurdun gelditzea du ondorio.*

**Maikarentzat nor da pertsonarik jakintsuena? Zure iritziz Maikak zergatik pentsatzen du horrela?**

*Bere amona. Nahierara erantzun.*

**Eszenan ageri den egoera neurritz gainekoa iruditzen zaizu? Zein alderditan?**

*Nahierara erantzun. Benetako datu bat: Centro Madrid Salud Joven (CMSJ) erakundearen galde-sortari erantzun zioten ikasleen % 15ek azken harreman sexuala drogen eraginpean izan zutela esan zuten. Beste datu bat: 2006an 18 urtetik beheitiko 5.740 neskek eten zuten haurdunaldia. Horieta-ko anitzentzat bigarren aldia izan zen. (Iturria: EL PAÍS SEMANAL, Sexo en la ESO, igandekoa, 56. orrialdea).*

**Bila ezazu Espainian azken urte hauetan haurdun gelditutako nerabeen haurdunaldien gaineko informazioa**

*Nahierara erantzun.*

## Testuaren gaineko iruzkina

### Gazteak ongiaren eta gaizkiaren aitzinean

Ikasle anitzen mintzamolde lazgarri eta zenbaitetan lohiaren atzean segurtasun falta ikaragarria nabari da. Nerabeen helburua taldean, kidekoen artean, onartuak izatea izan ohi da. Horren kariaz, ahalegin guztia eginen dute, edozein modutan mintzatuko dira.

Sexuaz solasten dira, ikasketez, gurasoek, munduaz, ororen gainetik baleude bezala, guztiaz trufatuz. Ongia eta gaizkia... berdin zaie.

Pertsona heldu batzuek, nerabe horiei entzutean, esanen dute: "ez dituzte balioak kontuan hartzen" eta batez ere "ez dute balio moralik". Baina izan badituzte. Ongi dakite irakasle andreak barre egitea eta sufriaraztea gaizki dagoela. Badakite gurasoak, nerabeengan konfiantza guztia jartzen dutenak, engainatzea gaizki dagoela. Badakite ikaskide despistatu batez edo ikaskide inozo samar batez iseka egitea gaizki dagoela.

Nerabe horiek, Kohlbergen garapen moralaren eskalan (sei maila ditu) bigarrenaren, hots, talioiaren legea edo begia begi truk (nola hartzen nauzun horrela hartuko zaitut; beraz, kalterik egiten ez badidazu, nik ez dut zuri kalte egiteko eskubide-

rik) eta hirugarrenaren artean daude (besteen itzaropenei erantzutea), erantzukizun pertsonaleko aurreneko zantzuekin.

Balio moralak ez eta estetikoak ere, ez dira besteen bortsax erdiesten. Balioak aurkitu egiten dira, altxor bat bezala. Pertsona nagusiek ez dizkiete balio horiek buruan txertatu behar gazteei; helduek berek egiaz bizi behar dituzte eta horrela lagunduko diete gazteei balio horiek aurkitzen.

Balio handiak mendez mendez aurkituz joan da Gizadia: justizia, adiskidetasuna, elkartasuna eta urrikimendua, erantzukizuna, zintzotasuna. Eta gutariko bakoitzak bere bizi laburra besterik ez du altxor horiek berraurkitzeko.

Honelako antzerki lanak, gogorak badirudite ere, lagun-garri izan daitezke helduen eta gazteen artean zinezko eta adiskidegiroko elkarrizketa sor dadin eta guztion artean balio moral handi horiek berriro aurki ditzagun. Kontura gaitezen guztiok ongia eta gaizkia izan badirela.

**Manuel Segura Morales**

Haurren eta gazteen arteko bizikidetzan aditua



## Pertsonaia bati zuzenduriko gutuna

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Maika maitea:

Beharbada gutun hau zerbait aurpegiatzea bezala hartuko duzu, agian alferrik da, agian gutun hau paperontzira joanen da... Baina hitz bakoitza azter dezazula eskatzen dizut, mantso-mantso, eta gutxi ala asko, lagungarri izan da-kikezunaz gera zaitzela.

Ezjakinak izan arren, bizkorrago eta hobeki ikusten ditugu besteren akatsak, eta nire ezjakintasunean akats batez ohartu naiz, zera, ene ustez afera errotik garbitzen ez baduzu, arazo benetan larriak izan ditzakezula.

Ama bat ez da jaten ematen dizun eta "ideiarik ez duenaz" mintzatzen zaizun emakume bat soilik. Ama bat emakume bat da, pertsona bat, izena ez ezik beste guztia ere eman dizuna. Eta dena letra larriz eta azpimarraturik, eta horren ordainetan, maitasuna, errespetua eta zoriona besterik ez du eskatzen. Esan dudanez, emakume bat da eta, hortaz, ez da makurrik gabekoa, noski, akats ugari eginen ditu, baina zertxobait bizi izan da eta pare bat gauza ikasiko zituen. Agian, dirudiena baino gehiago jakinen du.

Pentsa ezazu zure bizitzatik pertsona ugari pasatuko direla, eta horietako bakoitzetik, onerako nahiz txarrerako, zerbait ikasiko duzula. Baina, zerk segurtatzen dizu beti hor izanen dituzula? Konturatuko zinen honez gero ezetz..., gauzak zertxobait okertzen direnean, batzuek ez dutela behar den maila ematen. Ama bat, ordea, kosta ahala kosta, izan dituzun akats, arreta falta edo erokeriak gorabehera, beti daukazu eskura. Beti. Eta hoberena dena, beste inork baino gehiago maite zaitu.

Munduan bi motatako pertsonak aurkituko dituzu, zeure gurasoak eta gainerako beste guztiak.

Badakit neska sendoa eta segurua zarela, hortaz, ez izan beldurrik; tira, ikaratu zaitetz nahi baduzu, baina ez bakarrik, ez baitzaude bakarrik, Aldamenean dituzu horrenbesteko argitasun ematen duten aingeru horiek. Aldamenean daukazu familia-plangintzarako zentrorra bere onean lagundu zaituen emakumea. Begira iezaiozu, hortxe daukazu, eta beti edukiko duzu; nola edo hala, beti edukiko duzu.

Bihotz-bihotzez espero dut hitz hauek ez ditzazula etxeko "atsoaz" ideiarik ez duen "jamba" batenak balira bezala hartu. Aldatzen lagun zaitzatela eta beti zurekin izan daitezela. Bizitza honetan hoberena opa dizut eta zure afera horretan zortea izan dezazula. Nork daki, gerta dakikezu norbaitentzat, adibidez amarentzat, inportantea zarelako sententzioa laster batean izatea. Har ezazu maradikazio be-deinkatu bat bezala, horrek berekin dakarren guztiarekin.

**S.A.R.**

Batxilergoko 1. maila

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Maika maitea,

Atzo institutuko atletik pasatzean ikusi zintudan, begiak aitzinera finko baina begirada galduta. Ez zinen ohartu ere egin kontrako espaloitik deika ari nintzaizula. Seguru aski ez naiz ni egokiena hau esateko, baina, Maika, utz ezazu hori bertan behera. Ez ibili gogorrarena egiten. Betidanik ezagutzen zaitut eta badakit zu ez zarela horrelakoa.

Inork ere ez dezake uler zer ari zaren pairatzen, edo bali-teke baietz, baina zeure izuan murgiltzeak ez dizu deusetarako balioko. Bizitza gogorra da, baina denetik irten daiteke, bakarka zailagoa bada ere. Alboan inor ez daukazula iruditzen bazaizu ere, oker zabiltza. Jende asko dago hor kanpoan bizi duzun tunela igarotzen lagunduko zaituena. Mintza zaitetz amarekin, segur naiz ulertuko zaituela eta horixe behar duzu, uler zaitzala. Dei nazazu eta, negar egin behar bada, negar eginen dugu, baina zu bakarka ez, bakarrik ez!

Ahalegindu zara, baina ikusten duzu ezkutu horrek ez duzula deus lortzen. Beldurra izatea ez da txarra, Maika, baina zama osoa zeure gainean hartzea jasanezina izanen da.

Laguntza beharrean zara... eta hemen duzu neurea. Besarkada bat.

**C.A.**

Batxilergoko 1. maila



# *Primer puntico y seguido*







## Izenburua eta argudioa

Mozkortzera iritsi gabeko alkohol kontsumoaz mintzatzean “puntu-puntu jartzea”, txispatzea esan nahi du. Eta hain zuzen ere “puntu” horretan oinarritzen gara egoera kontrolpean dugula uste izateko, orduantxe iruditzen zaigu sinpatikoagoak garela eta adiskideak errazago egiten ditugula. “Puntu” hitzaren esanahietako bat da, hiztegiak dioenez, elikagai bat prestatzen denean hartzen duen egoera hobeezina, eta horregatik diogu, adibidez, zerbait puntuan dagoela ez gutxiegi ez sobera egina baldin badago. Puntu jartzea, lagunarteko mintzamoldean, txispatzea litzateke.

Urrats bat haratago, “puntu” hitzak, “puntu” txikigarria erantsirik, lagunarteko esanahi afektiboak ditu, azpimarragarriak. Txikigarri horrek zerbait hurbila adierazten digu, kalterik gabekoa, are onuragarria ere gure gaueko irtenaldirako. Alabaina, antzerki testuak gogoraziko digu esamolde horren azpian ezkutuko arriskua dagoela. Zenbait azterketatan

argi azaldu denez, alkoholaren arriskurik handienetako bat da hain justu, edaten denean ez dela arriskutsutzat hartzen, eta edalea zenbat eta gazteagoa izan hainbat eta arriskutsuagoa da. Maiz aski “puntu” hori itzulerarik gabeko puntua da ezetz esaten ez dakienarentzat, irudimenezko puntu bat da irudimenezko lurmutur batekoa, haratago zer aurki daitekeen jakin gabe biratzen duena.

Eszenaren izenburuak kontzeptu horrekin jokutzen du, zuzenean ez du “puntu jarri” esamoldea aipatzen eta nahiago du hitz erdika esatea. Izenburua irakurtzen denean ez dago oso agerian gaia zertaz den, baina eszenaren edukian barneratzen garenean ulertzen dugu azpian dagoena alkoholaren kontsumoa dela. Puntua... eta segi, esan nahi du bizitzan zehar alkoholarekiko lotura ez dela behin ere ahituko, jarraipen handiagoan nahiz txikiagoan, kontsumoaren eredu arabera.

## Jarduerak

**Nola adieraziko zenuke zer den “puntu hartzea”?**

*Ikus azalpen zatia.*

**Antzeko zenbat esamolde aipa ditzakezu? Idatzi nori entzun dizkiozuen edo non erabiltzen dituzten.**

*Nahierara erantzun.*

**Izenburua irakurri ondoren, eszenan zer gai ukituko direla uste duzu?**

*Nahierara erantzun.*

**Asma itzazu eszena honetarako beste bi izenburu. Horietako batek zerikusia izanen du edukiarekin. Bestea idatz ezazu eszenaren azterlana bukatzean, egileek ikusleoi jakinarazi nahi izan diguten azken helburuarekin lotzen saiatuz.**

**Erantzun irekia taldearentzat aukeren azalpena eginez, zeinean ikasgelak baliotsiko baitu zuzen ala oker egin den. Bi aukera edo proposamen izan daitezke, edukiarekin lotuz gero, adibidez: “Mozkorren erronda” edo “Nafarroa alkoholikoa”. Asmoarekin lotzen badugu, berriz, izenburua beste ildo batetik joa-**

*Erantzun irekia taldearentzat aukeren azalpena eginez, zeinean ikasgelak baliotsiko baitu zuzen ala oker egin den. Bi aukera edo proposamen izan daitezke, edukiarekin lotuz gero, adibidez: “Mozkorren erronda” edo “Nafarroa alkoholikoa”. Asmoarekin lotzen badugu, berriz, izenburua beste ildo batetik joa-*

*nen litzateke: “Alkohola, ene lagun gezurtia, ene makulua, ene mozorroa, ene kidea, ene osasuna, ene libertatea...”.*

**Gazteak zein adinetan hasten dira edaten zure ustez?**

*Nahierara erantzun. Gazteriaren Institutuaren 2008ko txostena, Espainiako Gazteei buruzkoa, kontsulta daiteke (<http://www.injuve.mtas.es/injuve/contenidos.downloadatt.action?id=548828853>) honako honen antzeko jarduerak prestatze aldera.*



## Laburpena

Talde bat, demagun ikasgela bateko ikasle talde bat, entrenamendutik itzuli da, taldekideak ler eginik daude eta sasoi fisiko kaskarrean. Entrenatzaileak txantxetan... “batek daki zertan aritu ginen bart gauean... hara! alkohola zer den...” Orduan galde-erantzunen erronda azkar bati ekiten diote aldageletan sartu aitzin: entrenatzaileak jakin nahi du kirolari bakoitzak zein hitz erabiltzen duen “mozkortu” esateko. Txandaka, jokalarari bakoitzak esaten du zein hitz darabilen

eta nolakoa izan zen bere lehenbiziko mozkorraldia. Entrenatzaileak, hitza hartzen dutenei arau bana ematen die, bat-batean asmatua dirudien alkoholari buruzko dekalogo batetik aukeratua. Hitzartzeen eta entrenatzailearen erantzunen erronda amaitzean, eta taldea aldageletara joaten denean, entrenatzailea oroitzen da dekalogoko arau bat falta zitzaiola, sakela-botilatik tragoxka bat jo eta ikusleei eskaintzen die...

## Jarduerak

**Egin ezazu testuaren laburpen bat, gehienez ere bederatzita lerrokoa.**

*Ikus azalpen zatia*

**Zure ustez benetan gerta daiteke horrelako egoera bat?**

*Eszena hagitz kontzentratua gertatzen da eta, horregatik hain zuzen, puztuegia. Orain suertatzen da pertsonaia guztiak, bat izan ezik, alkoholaren eraginpean lur jota daudela. Hori maiz gertatu ohi da antzokian, izan ere pertsonaien gatazkak kontzentratu behar izaten dituzte espazio mugatu batean eta denbora tarte laburrean azaldu ahal izateko. Hala ere, eszenan kirolaren (osasuna) eta alkoholaren (osasunerako arriskua) artean egiten den lotura oso argia da eta ikusle guztiak irizkide egiteko erraza, eguneroko esperientzia baita, Nafarroan nomahiren eskura dagoena.*

**Neska jokalarari batek, “alkohola, niri bost ajola” esaten duenak, bere mutil-lagunarekin topo egin du eta entrenatzailearekin aldagelen parean izandako elkarrizketaren berri eman dio. Idatz ezazu jokalarariak bere mutilari horretaz egiten liokeen laburpena.**

*Nahierara erantzun, baina pertsonaia duen irizpide askatasuna azpimarratuz arbuizaten dituen bere lagunak alkoholarekin lotzen dituzten “balioak”: ongi pasatzea, taldean onartua izatea, herabetasuna galtzea, ohitura, festa...*

**Bete itzazu hutsune hauek:**

*Eszenan kontatzen da \_\_\_\_\_ bat entrenatze saio batetik itzuli dela, nekearen itxura nabariak erakutsiz. \_\_\_\_\_-k errua botatzen dio aurreko gauean egin dutenari, zehazki esateko \_\_\_\_\_-ari. Orduan hasiera*

*ematen zaio galde-erantzunen erronda bizkor bati \_\_\_\_\_-etan sartu aitzin: entrenatzaileak jakin nahi du jokalarari bakoitzak zein hitz darabilen \_\_\_\_\_ esateko.*

*Txandaka, kirolari bakoitzak berak erabiltzen dituen izenak esaneri eta lehenbiziko mozkorra nola harrapatu zuen. Entrenatzaileak, \_\_\_\_\_ bakoitzaren ondoren, alkoholaren \_\_\_\_\_ bateko arau bat eman die, dirudienez \_\_\_\_\_. Hitzartzeen eta entrenatzailearen \_\_\_\_\_ erronda bukatu denean, entrenatzailea oharitzen da dekalogoaren \_\_\_\_\_ bat falta zitzaiola, sakela-botilatik tragoxka bat jo eta ikusleei eskaintzen die... Hutsuneen hurrenkera: talde bat, entrenatzaileak, alkoholari, aldageletan, mozkortzea, hitzartze, dekalogo, bat-batean asmatua, erantzunen, arau.*



## Gaiak

Gai nagusia da alkoholak duen tokia gure harreman soziale-tan eta gure bizitza pertsonalean. Alkohola ihesbide gisa har-tzen da, harreman sozialen pizgarri bailitzan, inimizio-erritu bat gisa. Dekalogoak zentzuzko kontsumoaren zenbait alderdi hartzen ditu aintzat.

Eszena honek, hasiera atsegina eta zuzen-zuzena duenak, bukaera aldera errealitate deseroso eta kezagarri batera era-manen gaitu entrenatzaileak masai tribukoek ehizatzen du-ten lehoia aipatzen duenean eta historia hori alkoholismoa-ren arriskuaren irudi bezala erabiltzen duenean. Beharrezkoa izanen da irakasleek irudi hori ulertzeko ikasgelan taldeare-kin alde aurretik presta dezaten. Ikasle nagusiagoen talde-etan, gainera, igarotze-errituen eta bidaia inizatikoan esa-nahian sakontzen ahal da.

Masai afrikar leinua ezaguna da adin-taldeakako egitura her-tsi batean eta adin-talde batetik hurrengo taldera igarotzeko erritu batzuetan antolaturik dagoelako. Errituetan ezagunena adingabe gerrariena da, gerrari gartzetat hartuak izan baino le-

hen eta zirkunzisia egin aitzin. Historian zehar, zirkunzisia egin aitzin, hots, zakil puntako azala moztu baino lehen, 13-18 urte bitartean, masai gazteek lehoia ehizatzen zuten: huraxe zen gerrari izateko prest izatearen froga. Gerrari gazteek tribuaren defendatzaile izatearen kontzientzia hartzen zuten erritua bete ondoren. Toki berezi batera ere joaten ziren bizitzera, babeseko hesirik gabe, beren eginbehar berriaz hobeki jabetu zitezten.

Komeniko litzateke ikasgelan gogoeta egitea gizarte des-berdinek nola sortu zituzten igarotze-errituak, zeinen bidez markatzen baitziren pertsona baten eta bere gizartearen arteko harremanetan lehengo eta ondorengo egoerak. Erritua-ren aitzin, komunitatean, tribuan, gizartean, aurkezten zena haur bat bazen, ondoren pertsona heldu bilakatuko zen. Erritu horiek muga ziren. Mendebaldeko gizarteetan haurtzarotik gaztarora arteko igarotze-erritu horiek desagertuz joan dira, eta ondoren ez da argi gelditzen noiz bukatzen diren erantzuz-kizun batzuk eta noiz hasten besteak, eta horrek nerabearoa luzatu besterik ez du egiten.

Gizarte primitiboetako ohiko beste elementu bat, iniazio-bidaia, bakarka nahiz taldeko abentura bat egitea izaten zen, eta haren ondoren gazteak prest egonen ziren adin-talde berrian sartzeko. Masaiek lehoiaren ehizara joateko bidaiarekin lotzen zuten.

Aztertzen ari garen eszenak bere kontzeptu-oinarriaren baitan hartzen ditu bi osagai hauek, entrenatzailearen azken hitzartzean ikus daitekeenez:

*“Masaiek lehoia ehizatu dute. Botila hondoetan horrelako bana dago. Lehenago edo geroago guztiok pasatu behar dugu botila baten itxurako mendi-zintzur mehar batean barna. Gehienok zauriren bat edo beste izanen dugu itzultzean. Baina, kasu! Bada botila zulotik inoiz ere irtetzen ez dena. Eta horixe da 9. araua. Lehoia beti erne.”*

Beraz, egileek diotenez, alkohola lehoi bat bezalakoa da, aitziz egin behar dioguna bai eta gure gaztetxo nerabeek eta nerabearora iritsi ez direnek ere, hain justu haurtzaroaren eta gaztaroaren mugan. Ideia horri pertsonaien eta espazioaren gaineko sailean helduko diogu berriro.

## Jarduerak

### Zein da eszenako gai nagusia?

*Ikus azalpen zatia.*

### Beste gairik ageri al da?

*Ikus azalpen zatia.*

**Bil ezazu nerabeen eta helduen alkohol-kontsumoari buruzko informazioa eta prestatu zure ikasgelarako ahozko azalpen bat.**

*Nahierara erantzun. Ikus lehen aipatu den Gazteriari buruzko 2008ko txostena.*

**Ahozko jarduera. Txandaz txanda, eszena antzetzten ahal da. Antzerki irakurria. Bistan da pertsonaien erantzunetik irriak eta konplizitateak sortuko dituztela ikasgelan. Zeri egiten diogu barre? Une egokia litzateke alkohola eta trafiko istripuak erlazionatzeko, alkohola eta tratu txarrak, alkohola eta beldur pertsonalak eta segurtasunik ezak, alkohola eta nerabeen prestigioa...**

*Nahierara. Nahi bezala?*

**Idatzizko jarduera. Bikoteka, erronda alternatibo bat idatz daiteke, zeinean hiru lagunek beren lehenengo esperientziak kontatzen dituzten. Oharpenak erantsi behar harko dira eta elkarriketetan zaindu behar harko da pertsonaiak mintza daitezten nor bere izaerari dagokion eran.**

*Nahierara.*





# Pertsonaiak

Pertsonaiak elkarrizketetan hezurmamitzen dira. Hitz egiteko moduagatik berehala ezagutzen da norbait mendi aldekoa den, erriberakoa, hirikoa... Nongoak diren mintzamoldearen bitartez igartzen diegu pittin bat, bai eta kontatzen dituzten esperientziengatik ere.

Ondorioz, badakigu entrenatzailea pertsona heldua dela eta jokalariek, neskak nahiz mutilak, berriz, gazteak, entrenatzaileak galde-tzen baitie “gaur egun” zer hitz erabiltzen den mozkortu esateko. Bi mundu daude, beraz: helduena eta gazteena. Galde-erantzunen jokoak gazteen esperientziak helduen aldetik iristen diren irakaskuntza praktikoa eta moralistekin erlazioatuko ditu. Beren argi-itzalekin.

**Entrenatzailea.** Entrenatzailea nabarmen ageri da gainerako pertsonaien gainetik. Zirkuko pistako nagusiaren jantziarekin, harritzen eta kezkatzen du jaskera horretan eszenarioan agertzen delarik. Haren interpretazioaren gakoa kirolaren eta ahalegin fisikoaren balioak irudikatzen duen pertsonaren itxuran datza. Haatik, bukaera aldera moral bikoitza erakusten du alkoholari dagokionez. Zauriturik itzuli da alkoholaren lehoiarekin izandako borrokatik. Gerta daiteke, horregatik, entrenatzaile fisikoa bizitzarako entrenatzaile bihurtu nahi izatea: bat-batean asmatu-edo izan duen dekalogoko arauak bere esperientzien ikasbideak adierazten dituzte.

Taldekideak hein batean edo bestean alkoholaren inimiziaz abenturan murgilduz joan dira, “botila itxurako mendi-zintzur meharretik” iragan dira. Entrenatzaileak badaki, ez du harrituarena egiten, ez du beste alde batera behatzen, helduek egiten balute bezala, eta galde-erantzunen erronda eginarazten du. Ez legokiokeen eginkizun bat aurreranzko eran hartzen du bere gain. Hortan sartzen da entrenatzailearen metafora, bizitzarako prestatzaile ere dena, eta alkoholarekin berak izandako borroka, bizitzako beste fase bat bezala, ez nahitaezkoa ezta beharrezkoa ere, baina erreala azken finean.

Entrenatzailearen solasaldiko azken keinuak haren egiazko nor-tasuna azaltzen digu. Dekalogo bat azaltzen ari zen, baina bere taldea aldageletara igortzen du bederatzigarren arauaren ondoren. Horrek ez al du alkoholismoaren eraginpeko oroimen-hutsune edo blackout bat erakusten? Ikuslea arau garrantzitsu baten arrastoan jartzen ote du, zeinak alkoholaren kontsumoa ezkututzen duen isiltasuna salatuko baitzuen, horren kontra predikatzen dugun bitartean? Alkohola erremedio orokorra ote da, adibidez entrenatzailea pattal samar dagoela esan eta konponbidea zurrut eginez bilatu nahi duenean? Zirkuko ikuskizuna bukatzerako doa: azken keinua, ikusle-ari sakela-botilatik edatera eskaintzen diona, irribarre mikatza eta deserosoa aterarazi digu.

**Kirolariak.** Ez daude bakoiztuak. Bizitza batzuen eta historia batzuen eskemak dira, zirriborroak, iradokizunak, zeinetan ikusleek beren burua islatu ikus baitzezakete. Gazteak dira, lehenbiziko esperientziak kontatuko dituztenak, eta seguru aski horien oihartzu-na beren baitan sumatuko dute ikusle anitzek.

**1. jokalaria (mutila):** Iruñen bizi den andaluziarra, familia Nafarroatik kanpo duena. Lehen Jaunartze baten giroan jarriko da “puntuatua” aurreneko aldiz.

**2. jokalaria (mutila):** nafarra, Erriberakoa. Udan izandako senitarteko bazkari batean hasi zen, bost urte besterik ez zuela. Tradizio hori hagitz errotua zegoen (Luzaroan, herri kulturaren, sinetsi izan da ardoa eta alkohola “odola sendotzeko” onak zirela. Alkohola “elikagai bat zen”, “pena-aringarri bat”, “edari energetiko bat”. Gogoangarriak dira Zelestina zaharrak ardoari eginiko laudorioak. Ez dago horren urrun joan beharrik, hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko zuri-beltzeko telebistak ospetsu egin zuen haurrentzako ardo onduen buruzko iragarkia, “Quina Santa Catalina, jateko gogoia nola pizten duen...”).

**3. jokalaria (mutila):** menditarra, mintzatzeko doinuagatik ezagun. Osaba-izeben belaunaldian familia ugaria izandakoa (zalantzak ditu beilatzen ari ziren osabaren izenaz), mendi aldeko ohiko eszena, non familia eta adiskideak hildakoaren etxean bildu eta bapote jaten eta edaten baitzen.

**4. jokalaria (mutila):** bizi osoko iruindarra, izenak ere horixe salatzen du: Fermin (Iruñeko patroietako bat) eta Xabier (Nafarroako patroia). Alkohola, Sanferminak eta festa, behin ere eztabaidatu ez den tradizio osoa. Behin ere ez?

**5. jokalaria (mutila):** beste iruinese gazte bat. Aktoreak bere antzezlanean badirudi iradoki nahi digula artean ere alkoholaren eta beste zerbaiten eraginpean dagoela. Pertsonaia ez da ohar-tzen alkoholak ez dituela gizarte harreman iraunkorrak errazten. Neuronak gaizki dituela ematen du eta ez du ulertzen neska-lagunak zergatik “bidali zuen pikutara, kalakari jasangaitz bat dela esanez”.

**1. jokalaria (neska):** karibetarra, mintzamoldeagatik eta kontatzen duenagatik. Alkoholaren arloan ez dago gorabehera kulturalik ez sozialik.

**2. jokalaria (neska):** gutxi dakigu horretaz, botiloian ibiltzen dela besterik ez, eta helburu bakarra lehenbailehen konortea galtzea duela. Zer gerta dakiok? Nola iritsi da egoera horretara?

**3. jokalaria (neska):** ez da behin ere mozkortu. Zorionez, badirudi iritzi propioak dituela, eszenan taldetik aparte samar gelditzen den arren.

**4. jokalaria (neska):** beste iruindar bat, ezkondu aurreko agur festa batean eman zion hasiera. Orduan adingabea zen, baina hemezortzi urtetik goitikoentzat baizik ez den esperientzia batean parte hartu zuen. Horrek alkoholaren inguruko beste alderdi bat erakusten digu: autonomia erkidego gehienetan 18 urtetik beheitikoei alkohola zerbitzatzea erabat debekatua badago ere (eta gutxi batzuetan 16 urtetik beheitikoei), gertatzen dena da 12-18 urte arteko nerabeen % 90entzat alkohola erdieste erraza edo oso erraza dela, INJUVEren Espainiako Gazteriaren 2008ko txostenak dienez.



## Jarduerak

Hauta ezazu pertsonaia bat eta idatzi gutun bat, zeinean beste lagun bati kontatzen dion nola sentitu zen alkoholaren eraginpean lehen aldiz egon zenean eta biharamunean.

*Ikus azalpen zatia.*

Zure iritziz entrenatzaileak zergatik eginarazi du galde-erantzunen erronda?

*Ikus azalpen zatia.*

Zer dela-eta gelditzen da pentsakor entrenatzailea eszena bukatzean? Zer dabilkio buruan?

*Ikus azalpen zatia.*

Eszenak bi bukaera ditu. Lehenbizikoan entrenatzaileak kirolari guztiak dutxetara igortzen ditu. Bigarrenean, bakarrik gelditzen delarik, beste zerbait gertatzen da. Azaldu zer ikusi duzun eta hura nola ulerzen duzun.

*Ikus azalpen zatia.*

## Sortze jarduerak

Egin ezazue dekalogoaren zerrenda.

*Nahierara erantzun.*

Hauek dira, hitzez-hitz, entrenatzaileak ematen dituen dekalogoko esaldiak, zure hitzetan idatziko zenituzke?

1. Edatea ez da nahitaezkoa. Ez dugu horren beharrik nor izateko.
2. Kontuz ohiturekin, droga oro kaltegarria da, batez ere tradizioa.
3. Alkoholean hondoraturiko gorputz batek edandako likidoaren adinako gorputz-jariakinen bolumena desplazatzen du.
4. Ogiarekin atsekabea arintzen da. Eta ardoarekin zer esanik ere ez bideari ekitean.
5. Alkoholik gabeko festarik ez dago, ala bai? Baina badago festarik gabeko alkohola, ezta?
6. Mozkortuz gero ez dago zurrutean segitzerik. Mozkortzen segituz gero ez dago bizitzen segitzerik.
7. Alkohol kontuan, beste guztietan bezala, badira salbuespenak. Beti hauta daiteke burmuinaren edo gibelaren aldera.
8. Alkoholaren eta sexuaren gaineko zerbait da.

9. Lehoia ez dago inoiz lo.

Idatz ezazu Dekalogoko 10. araua.

Hauta ezazu zirriborratzen diren historia horietako bat, harik eta kontakizun bat osatu arte. Idatzi hasiera eta bukaera, erdialdera hautaturiko pertsonaiak kontatzen duen esperientzia erabiliz.

*Nahierara erantzun.*

Ahozko jarduera. Txandaka, eszena antzetzten ahal da. Antzerki irakurria. Bistan da pertsonaien ihardespenean gelan irriak eta konplizitateak sortuko dituztela. Zeri egiten diogu irri? Abagune egokia litzateke alkohola eta trafikoko istripuak erlazionatzeko, alkohola eta tratu txarrak, alkohola eta beldur pertsonalak eta segurtasunik ezak, alkohola eta nerabeen prestigioa...

*Nahierara erantzun. Nahi bezala?*

Idatzizko jarduera. Bikoteka, erronda alternatibo bat idatz daiteke, zeinean hiru lagunek beren lehenengo esperientziak kontatzen dituzten. Oharpenak erantsi beharko dira eta elkarrizketetan zaindu beharko da pertsonaiak nor bere izaerari dagokion eran mintza daitezten.

*Nahierara.*

## Testuaren gaineko iruzkina

Gure gizarte honetan drogen kontsumoa hertsiki lotua dago aisialdiarekin, eta legezko drogak dira gehien kontsumitzen direnak. Gainera, hastapeneko drogak izaten dira. Gizonen eta emakumeen artean drogekin loturiko jokamoldeetan gero eta alde gutxiago dago. Gazte jendean, kontsumitzen hasteko adina ez da aldatu hondarreko hamar urteotan.

Gazte jende gehiena aisialdiko tokietan erretzea debekatzaren alde dago, eta hori bat dator erretzen ez duten edo erretzeari utzi dioten gazteen kopurua handitzearekin.

Susmoa dugu gazteriak sobera edaten duela. Egia da horietako anitz (edaten dutenen %82) noiz edo noiz mozortu dela, baina badakigu, halaber, 14-17 urte arteko gazteen %24k ez duela alkohola behin ere probatu eta beste %21ek ez zuela alkoholik edan inkesta egin aurreko hila-betean.

Adin horietan, kannabisa da legez kanpoko drogetan gehien probatu dena (%26) eta legez kanpoko gainerako drogak %3k probatu ditu. Esaten digutenez, aski informatuak bide daude drogen gainean eta aitortzen dute drogak hartzeak onura baino arrisku gehiago dakartzala.

14-17 urte arteko nafar gazteek, hedatu den dagoen aisi-ereduaren partaide izan arren, jakin badakite ongi pasatzen ahal dela drogarik hartu gabe. Izan ere, horietako anitzek horrela egiten dute.

Kontsumo zenbakietan aldaketarik izatea nahi badugu, herritar guztien parte hartzea beharko da, ez gazteriarena soilik.

**Fermín Castiella Lafuente**

Drogamendekotasunaren Foru Planeko zuzendari teknikoa

## Jarduerak

Esazu ea ondorengo baieztapenak testuan azaltzen diren:

	Bai	Ez
<i>Drogen kontsumoa, alkohola ere barne, legezkoekin hasten da</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Kannabisa da legez kanpoko drogetan gehien probatu dena (%26)</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago hartzen dute</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<i>Kontsumoa murriztuko bada, beharrezkoa da gazteria osoa inplikatzea</i>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Bila ezazu droga desberdinei buruzko informazioa eta egin drogen eta horiek eragiten dituzten ondorioen zerrenda bat.**

**Egin ezazu asteburuetan, horrelako deus hartu gabe, egin ditzakezun 15 jardueren zerrenda bat. Bateratu zure zerrenda ikaskideekin batera.**

**Zer nolako neurriak proposatuko zenituzke alkoholaren eta drogen kontsumoa murrizteko? Gizarteak zer egin lezake?**

## Material osagarria: lotura baliagarriak

**Drogei buruzko Plan Nazionala**

<http://www.pnsd.msc.es/>

**Drogei buruzko Behatoki Nazionalaren 2007ko txostena**

<http://www.pnsd.msc.es/Categoria2/publica/pdf/oed-2007.pdf>

**Alkoholaren gaineko berariazko txostena**

<http://www.pnsd.msc.es/Categoria2/publica/pdf/InformeAlcohol.pdf>

**“Alkohola larrutik ordaintzen da” kanpaina**

[http://www.pnsd.msc.es/Categoria3/prevenci/areaPrevencion/campanas/Alcohol\\_pasafactura.htm](http://www.pnsd.msc.es/Categoria3/prevenci/areaPrevencion/campanas/Alcohol_pasafactura.htm)

**Bada zerbait egiterik: alkoholari buruzko hezkuntza**

<http://www.pnsd.msc.es/Categoria2/publica/pdf/acalc.pdf>

**La Caixaeko Egintza Soziala**

[http://obrasocial.lacaixa.es/prevenciondrogas/prevenciondrogas\\_es.htm](http://obrasocial.lacaixa.es/prevenciondrogas/prevenciondrogas_es.htm)

**Alkohola eta Gizartea Fundazioaren hezkuntza materialak (ekoizpen sektorea)**

<http://www.alcoholysociedad.org/esp/pedagogico.htm>

**Gurutze Gorriko hezkuntza materialak**


<http://www.cruzroja.es/crj/docs/salud/manual/002.pdf>

ALKOHOLARI BURUZKO TOPIKOAK...	EGIATAN, ALKOHOLA...
Pizgarria da	Nerbio Sistema Zentralaren depresorea da
Bihotzerako ona da	Bihotzaren giharrera kaltetu dezake
Indarra ematen digu	Ez du ondorio energetikorik ematen
Sexu funtzionamendua hobetzen du	Sexurako gogo gutxitzen du
Jateko gogo ematen du	Hutsik dagoen urdaila minberatzen du
Kaloriak ematen ditu	Gorputzaren tenperatura jaisten du

## Alkoholari buruzko oinarriko informazioa

Alkohola Nerbio Sistema Zentralaren DEPRESOREA da. Alkohola hartzen denean:

- % 70-80 hestean barna odolera pasatzen da.
- Odolak, bihotzak ponpaturik, alkohola organoetara eta ehunetara pasarazten du.



### Odolean den alkohol-maila, Alkoholemia, hauek baldintzatzen dute:

- Pertsonaren pisuak eta pisu hori gorputzean nola antolatua dagoen hezur, gantz eta giharretan. Gantz-ehun gehiago duten pertsonak odolean alkohol-maila handiagoa dute.
- Sexuak: alkohol kopuru bera edanik ere emakumeei alkohol-maila gizonezkoei baino gehiago igotzen zaie.
- Alkoholaren xurgapen prozesuak, gutxi gorabehera 45 minutu irauten du urdaila beterik izanez gero, eta 30 minutu hutsik badago.

### SOBERA edatea da:

- Bi baso ardo edo garagardo baino gehiago hartzea egunean (gorputzak arazorik gabe jasan dezakeen kopuru handiena).
- Asteburuetan karga-karga jartzea, astean zehar deus edaten ez badugu ere.
- Horditzea.
- Alkohola beste zerbaitekin nahastea, txispatzeko asmatan.

BALIOKIDETZAK ALKOHOL-EDUKIAN			
Edariak	Neurria	c.c..	c.c. alkohol
Ardoa Xanpaina (12°)	Baxoerdia	50	6
	Basoa	100	12
	Botila erdia	500	60
	Botila osoa	750	90
Garagardoa Sagardoa (6°)	Kaña	166	10
	Kaña doble	285	17
	Botilatxoa (1/5)	200	12
	Botila (1/3)	333	30
Brandia Likoreak (36°)	Kopa	45	17
	Konbinatua	70	27
Whiskia	Medio	35	17
	Entero	70	30

Edari alkoholikoen eragina likido kopuruan baino gehiago alkohol-mailan datza. Koñak kopa batean, garagardo heren batean edo koktel batean alkohol kopuru berdintua dago.

### ALKOHOLAREN KONTSUMO-MAILAK

Abstemioak .....0 c.c. alkohol huts egunean  
 Txikia.....1-25 c.c. a.h./e.  
 Neurritsua.....25-75 c.c. a.h./e.  
 Handia .....76-100 c.c. a.h./e.  
 Gehiegia.....101-150 c.c. a.h./e.  
 Alkoholismorako  
 arrisku handia .....150 c.c. a.h. baino gehiago/e.

### Alkoholaren ondorioak izan daitezke:

- Mendekotasun psikologikoa: pertsonak alkoholaren premia du bere eguneroko eginbeharretarako.
- Mendekotasun fisiologikoa: organismoak alkohola behar du ohiko funtzionamendurako

• Tolerantzia: gero eta alkohol gehiago edan beharra, eragin berak nabaritzeko.

• Abstinentzia sindromea: organismoa jada alkoholaren mende badago, aldaketak izanen ditu alkoholaren kontsumoa etenez gero.

## Alkoholaren kontsumotik datozkeen ondorio batzuk

Alkoholaren eragin depresoreek funtzionamendu psikologikoaren oinarriko hiru eremu ukitzen dituzte, nahiz eta hiru eremu horiek ukipen gradu berbera jasan behar ez duten.

### PROZESU INTELEKTUALAK

Alkoholak zailtzen ditu errendimendu intelektuala, informazioa prozesatzea, abstrakzio prozesuak, kontzentratzeko ahalmena, etab.

### JOKAERA

Alkoholaren hasierako eraginak aldatzen dira ondorengo hauek nolakoak diren:

- Nortasuna eta kontsumoaren egoera: bakarka edanez gero, alkoholak lo egiteko gogoia ematen du; lagunartean lotsa kentzea, berritsukeriara, emozioen kontrola galtzera eramaten du.

- Gizartean onartuak dauden alkoholaren funtzioak: alkoholak eragiten dituen jokaera aldaketak, gehienetan ados daude alkoholari egozten zaizkion balioekin.

### EMOZIOAK

Alkoholaren eraginak baldintza hauek ditu:

- Kontsumoaren maiztasuna.
- Zenbat edaten den.
- Faktore indibidualak eta sozialak.

Dosi txikietan edo neurritsuetan, alkoholak adeitasun, poztasun, eta abarren sentipena areagotzen du; dosi handietan emozioen beheakada sortzen du.

## Alkoholak zer eragin duen gure baitan edan ondoko ordubetera

### Litro bat odoleko 0,8 g alkohol (3/4 litro ardo)

Erreakzio denbora luza-tzea. Zentzua eta pentsamendua eraldatzea. Egintzen kontrolak ere huts egiten du. Neurri-gabeko poztasuna. Abiada faltsutua.

**Gidatzeko orduan:**  
**KONTUZ**

### Litro bat odoleko 0,8-1,5 g alkohol (litro bete ardo)

Jokaera erasokor bilakatzea. Ausarkeriazko jokabidea. Logalea. Mugimenduen koordinazioa baldartzea. Arreta murriztea. Oreakaren galera. Giharren koordinazioa okerragotzea.

**Gidatzeko orduan:**  
**ARRISKUTSUA**

### Litro bat odoleko 1,5-3 g alkohol (2 litro ardo)

Balantzaka ibiltzea. Gauzak bikoiztuta ikustea eta akatsak egitea mintzatzean. Logale itzela. Emozioen kontrola galtzea. Horditzea.

**Gidatzeko orduan:**  
**HAGITZ**  
**ARRISKUTSUA**

### Litro bat odoleko 3 g alkohol (3 litro ardo)

Logale sakona. Anestesia. Lozorroa. Koma.

**Gidatzeko orduan:**  
**EZINEZKOA**

### Litro bat odoleko 8 g alkohol

Heriotza

- Nerabe eta gazteentzat jokaera osasuntsuena alkoholik ez edatea da.
- Luzaroan alkohol dosi handiak hartzeak eritasun franko erakartzen du: gastritisa, ultzera, kardiopatiak, zirrosia, hepatitisa, hilekoaren alterazioak, sexu ezintasuna, muskulu-atrofia eta abar eta abar.



# *Primer laberinto*









## Izenburua eta argudioa

Labirinto hitza latinetik hartua da, *labyrinthus* hitz grekoaren bidez. Hiztegiko definizioak dioenez, bide nahaspilatuez beteriko tokia esan nahi du, handik dabilenarentzat nahasgarria eta irtenbidea zailtzen diona.

Oro har, definizio hori irudizko adieran bizitzari aplikatuz gero, egoera nahasietatik abiatuz bere patua kontrolatzeko gizakiak dituen trebetasunei dagokiela uler daiteke.

Kasu honetan, lau pertsonaia dira. Haurtzaroan ez dute arazorik izan, eta nerabezaroan lehenbiziko aldiz egoera korapilatsuan ikusten dute beren burua eta irtenbidea bilatu beharra. Pertsonaia bakoitzak bere irtenbidea aurkitzen du, labirintoa berbera bada ere: kale eta bidegurutze nahaspilatuak, zeinetan murgiltzen baitira pertsona horiek, aurkitu berri duten nortasunaren eta besteengan islatzen denaren arteko borroka gertatzen den unean.



## Laburpena

Lau pertsonaia atera dira eszenatokira eta nahasmendu batean murgildu zireneko historia pertsonalaz hasten dira hitz egiten. Delako nahasmendua norberaren nortasuna eraikitzeko orduan besteen eraginetik heldu da, nerabezaroa bezalako une kritiko batean.

**Mariak**, bere burua deuseztatzen du, bere garapen fisiko berantiarra baina neurritz gainekoa dela-eta besteek egiten

dioten isekengatik.

**Hugo**, buruargia, aurkako girora egokitzen da, nahita, bera ere erasotzaile bihurtuz.

**Alberto**, zeinaren homosexualitateaz besteak ohartu baitira bera baino lehen.

**Mikhaela**, atzerritarra, umore onekoa denez ikaskideen isekak gaingitzen ditu eta heziketaren bidez salbatzen da.

# Gaiak

## Taldearen eragina nork bere burua onartzeko orduan.

Messengerrak salbatu du Maria, horren bidez berak dituenak bezalako arazoak dituzten beste neska batzuk ediren dituelako. Ezezagun batzuek begiak irekiarazi dizkiote.

Albertok irmo dio *ez dut berriro inoiz ukatuko zer naizen*, baina baieztapen hori baino lehen eszena irekitzen duen zailantza dago: inoiz ere ez? Adiskide bati galdetu dionean zergatik guztiak alde egiten duten bera iristen denean, adiskidearen erantzuna: *jendeak zer pentsatuko duela uste duzu?* Azkenean iragartzen du: *heldu den urtean Bartzelonara joanen naiz. Inork ezagutzen ez nauen lekura.*

Hitz gutxitan esateko, samaldak beharrezkoa du bere baitatik inor ez ateratzea; baten bat ateratzen bada gogotik ordainduko du. Gizabanakoa azpiratzen duen masaren nagusikeria da, zeinak nortasuna eraikitzen ari den etapetan eragin larria izan baitezake.

Taldeko pertsonaia bakoitza bereizten duena bere irudia da:

- Ezaugarri fisiko bat: bular handiak.
- Zaletasunak: irakurtzen eta biolina jotzen duen frikia.
- Sexu-joera: homosexualitatea.
- Atzerritarra izatea: errumaniarra.

**Matxismoaren iraupena egungo gazterian.** Mariaren hitzek erakusten digute nola zenbait aldiz, gazteak berdintasunez mintzo badira ere, batzuek jarduten dutela eta mintzatzen direla belaunez belaun dirauen (indar desberdinez) matxismoaren oinordeko gisa. Mariak, hala dio oharpen batek, barka eske dabilela dirudi emakume izateagatik. Bere hitzetan halaxe baieztatzen du: *batez ere gizonezkoek, irudi biribiletarako duten betiko obsesioa dela-eta, mutikoek behatzen zidaten... Bueno, niri ez. Bularretara behatzen zidaten. Ni, ezta ikusi ere, edo nahiago al duzue titiak esatea, agure gordinek bezala?, neskak, aldiz, barre egiten, ikasgelako gizonttoei gustu emateko, horretarako baizik ez.*

Hugok argitzen duenean nola, kameleoi gisara, delitugile izateko bidean daudenekin bat egin zuen: *aski zen nesken miresmen behakoak sumatzea.*

Jendeak Hugori egin dizkioten mehatxuak eta isekak aurreko belaunaldietan erabilitako hitzetan adierazten dira: *marikoia askara, maritxua, atzelaria, marikoia.*

**Hezkuntzaren garrantzia garapen pertsonalean.** Hugo markatua gelditu zen gurasoak saiatu zirelako bakarra eta berezia zela sinistarazten. Mariak liburua eta liburutegia babeslekutzat hartzen du. Mikhaela esplizitu bihurtzen du eragin hau: *Nire labirintoko irtenbidea hezkuntza izan zen. Ikasketak hemen egiteak salbatu ninduen*, institutua aipatuz, non aurkitu baititu bere espazioa eta integratzeko aukera.

**Indarkeria, mundu aberetu batean bizirauteko baliabidea.** Argi ikusten da, batik bat Hugoren kasuan. Indarkeria mota hori instrumentala da, aurrez pentsatua, premia pertsonal bat betetzeko erabilia: biziraupena.

*Han bai, han baziren otso hozkariak, otsakume ezjakin pila bat, liderraren beharrean, otso saldoa ezin daiteke alferkerian eduki. Ehizakiak eskaini behar zaizkie josta daitezzen; nire kidekoek eta nik ostiralean ateratzerakoan benetako kontrapuntuko lekzioa eman genion: behatzkoak nola utzi genizkion...*

**Bakardadea eta isolamendua.** Lau pertsonaieztatik hiruri egokituriko sentimendua eta egoera. Mikhaelaren kasuan ez, ez baita isolatzera etsitzen, agerian egoten ikasi du. Besteak isiltzen dira, irentsi egiten dute, jasan, ezkututzen dira, gainerakoen tratuak nola eragiten dieten adierazi beharrean. Albertok behin batean eraso eginez ihardetsi nahi izan zuen, baina bere kalterako: *hasi nintzen berehala probokatzen baina isekak krudelago bihurtu ziren.*

Mariaren hitzek bakardadea eta isolamendua adierazten dute: *gero ez nuen klasean egon nahi, zer bakea liburuen erotxe hartakoa, nire bizitza da daukadan gauza bakarra.*

Edo Hugoren hitzek: *baina superheroiak haurtzaroarekin batera desagertu ziren. Lagunak bezala.*

Orobat Albertoren hitzek: *zer dela-eta ez zarete egoten ni agertzen naizenean?, azkenean ohitu nintzen nire adiskiderik hoberena ni neroni izaten.*

Bakardadeak badu zerikusirik sentimenduak eta beharrak adierazteko zailtasunarekin, bereziki helduekin. Zailtasun hori argien Albertok adierazten du: *Nire irakasleak? Hobe isiltzea, azkenean psikologoarengana igortzen bainaute, eta hori gutxi balitz, batzuek sendatu nahi zaituzte. Nire gurasoek? Aita ez da enteratzen ere. Amak, berriz, ez du nahi besteak entera daitezzen. Pertsona helduez eta horien kateez, hobe ez mintzatzea.*



## Pertsonaiak

Pertsonaiak bakoizturik daude, beren izen eta guzti, antzerki lan honetako beste eszenetan ez bezala. Pertsonaia bakoitza bere historiaz eta bilakaeraz mintzatzen da, nola iritsi diren egungo egoerara eta etorkizunaren inguruko erabaki desberdinek hartzera. Erabaki horiek beren egintzara bultzatzen dituzten emozioekin ez ezik beren balioekin ere badute zerikusia.

- **Maria** ez da gai izan emakume-nortasuna izateko esku-bideaz baliatzeko, besteek egiten dioten isekaren ondorioz bere burua deuseztatzen du, sumatzen du ez dutela den bezala ikusten, bularrak besterik ez dizkiotela ikusten. Ez luke besterik nahi bularrok desagerraraztea baino. Besteen iritziak sobera hartzen ditu aintzat. Ez zuen klasera joan nahi, liburutegian ezkututzen zen. Baina Mariak ez zuen behin ere esan ea iseka egiten ziotenei jakinarazi ote zien bera nola mintzen zen (zer esaten ahal zien?), ez zen inoiz ere ausartu esatera bularrak baino zerbait gehiago zela. Orduan ihesa hautatzen du, inibizioa, pasibitatea. Baina ez du aitortzen zer gertatzen zaion, gainerakoak etsai bihurtuz joanen da eta haietaz minberatua eta mespretxuz mintzo da: egin dezake esaldi lotsagarrien zerrenda bat, neskatilak koldar batzuk dira eta barre egiten badute klaseko gizonttoei gustu emateko baino ez da, agure lizunak aipatzen ditu, mundua herriko plaza hau baino zertxobait gehiago dela uste du.

- **Hugori** gainerakoek diferentea izateko esku-bidea ukatzen diote, biolina jotzea, irakurtzea eta estudiatzea bezalako desberdintasun kalterik gabekoa. Erasotzaileak animaliatzat jotzen ditu eta animalien mundu horretako partaide eginez defendatzen da, are makurrago, buru argikoa denez samaldaburu bilakatu da. Erasotua erasotzaile bihurtua, indarkeriaren gurgil-zorua. Hugori ongi etorri zaio jokabide hori erasotzaileengandik libratzeko, baina, aldi berean, zitaldu da, bere helburuak erdietsi baititu besteek duintasuna eta osotasuna,

hala fisikoa nola morala, izateko dituzten eskubideen gainetik. Pertsoneri gizatasuna kentzen dienez gero, indartsuenaren legea ezartzen ahal du eta normaltzat jotzen du bere labirintotik irtetzeko hautatu duen defentsa basatia.

- **Alberto** saiatzen da bere sexu-nortasuna finkatzen, ez dut berriro inoiz ukatuko zer naizen, baina aurretik zalantza dago: inoiz ere ez? Nolakoa den ez du ukatuko, baina hori Bartzelonan, heldu den urtean. Ikusezin bihurtzen ahalegin du zen, besteak probokatzen ahalegin du zen ordura arte umiliatzen zutenak berak umiliatuz. Bi bide horietatik batek ere ez zuen balio izan. Azkenean, ihes egiten du, behin betikoz, inork ere ezagutzen ez duen toki batera.

- **Mikhaelak** irtenbide duinagoa erdiesten du hezkuntzaren eta jakitatearen bidez, berak dioten bezala. Alabaina, benetan salbatzen duena da bere jaioterriko bizimodu latzagatik pairatu duen sufrikarioa: nire jaioterrian txiste bat fereka bat da. Horrek bide ematen dio emozioak menderatzeko, eta autonomia izateko besteek isekekin ez mintzeko, are gehiago txantxa horietan parte hartu eta ikaskideak bere alde jartzeko. Bizitzaren esperientziak eta heziketak, biak batera salbatzen dute. Txisteak egitea eta errumanieraz mintzatzea sendotasun pertsonalaren adierazgarri dira. Eta hori guztia, herrimina eta senideen oroimina pairatzen duen arren.

Helduek ez dituzte nerabeak ulertzen, horietaz hobe ez mintzatzea, Albertok dioten bezala. Ikaskide guztiak modu berean jokatzen dute: ez dira pertsona talde bat bezala aritzen, abere-saldo bat bezala baizik, diferentez ankerki iseka egiten duena, diferentzia horiek egiazko arriskurik ez badakarkie ere. Era subjektiboan, desberdintasuna zerbait arriskutsua bailitzan sumatzen da eta erantzuna izaten da samaldaka duintasun individualari eraso egitea. Hugok dioten bezala: haiek bai, haiek hozka egiten zuten otsoak ziren.

## Jarduerak

### 1. Idatz itzazu “labirinto” hitzaren sinonimoak, bere irudizko adieran.

*Galera, galtzea, nahastea, anabasa, nahasmendua, katramila, nahaspila, saltsa, ardaila, mordoiloa.*

### 2. Bila itzazu testuan eszenan ageri diren gai hauekin loturiko adierazpenak:

- Taldearen eragina nork bere burua onartzeko orduan.
- Matxismoaren iraupena egungo gazterian
- Hezkuntzaren garrantzia garapen pertsonalean.
- Indarkeria, mundu aberetu batean bizirauteko baliabidea.
- Bakardadea eta isolamendua. (*Ikus azalpen zatia*).

### 3. HIZKERA ETA ESTILOA

#### a. Hugok indarkeria, fisikoa nahiz psikologikoa, aipatzeko darabilen hizkera hitz eta esamolde batzuez osatzen da.

##### Aurki itzazu horiek testu honetan.

*Hitz eta esamolde gehienak Hugo eta bere samalda gizagabetzen dituzten mundu basati horren metaforak dira (Han bazituan beren biolin nazkagarriari hozka egiten zioten otsoak, delitugile izangai haiek, zein ergela zuan, astopito erabilterraz hori, otsakume ezjakinak, petral-samalda, ehizakiak jarri behar zaizkiek eskura entreteni daitezzen, nagusi nardagarria, atzeratuak, inguru hauetako fauna, tutorea... ez dik fitsik balio, mirrin horri... eskarmentu ederra eman genioan, ikusirik nola utzi genizkioan behatzkoak).*

#### b. Hugok duen adinerako gerraren gaineko kultura handia erakusten du: Sun-Tzu, warketing edo gerrarako estrategia, Noriega, eta honelako esarak erabiltzen ditu: etsaiari zilarrezko zubia edo etsaiari makila eta plomua (balak). Bila ezazu esaldi hauen adiera ulertzen lagunduko dizun informazioa.

*Sun-Tzu Gerraren Antzea liburuaren egilea da, estrategia militarari buruzko txinatar liburu garrantzitsua, k.a. 500 bat urte lehenago idatzia. Taktikak planteatzen*

*ditu noiz borrokatu behar den eta noiz ez jakiteko. Antze gorena da etsaia menderatzen jakitea borrokarik gabe, hura ahultzea norberaren aldetik ahalik eta galera txikienarekin. Taktika horietako bat da etsaiari erraztasunak ematea ihes egin dezan edo erretira dadin eta horrekin lotzen da arestian aipatu esaera “etsaiari, zilarrezko zubia”.*

*Noriega aipatzean Manuel Antonio Noriega izeneko panamar diktadorea du gogoan, zeinen leloa baitzen “lagunari, zilarra; zalantziari egurra, eta etsaiari balak”, erregimen totalitarioen ildotik: \*aliatuei mesede egitea, zalantziak esparrura eramatea eta disidenteak akabatzea.*

*Mota horretako kultura ezagutzeari esker Hugok aukera izan du estrategia militarak erabiltzeko eta horrela lehen bera erasotzen zutenen burutza lortzeko. Horixe islatzen da bakarrizketan erabiltzen duen gerra lexikoa: “estrategia militarra”, “etsaia”, “borrokarik gabe menderatzea”, “arma”, “kamuflatzeko teknika”.*

#### c. Idatz itzazu Albertok, berak komentatu bezala, haur zenean zituen jarre- rak sintetizatzen dituzten adjetiboak.

*“Gelarik ilunenean sartzen nintzen”:* adorea, kementsua, ausarta.../kilkildua, koldarra, beldurtia, ikaratia, oilo bustia, izutua, izutia...

*“Gorengo adarrera igotzen nintzen”:* ausarta, izukaitza; beldurgabea, irtena, zuhurtziagabea, ausartegia, zentzugabea.../arretatsua, zuhura, zentzuduna...

*“Ogibitartekoa besteekin partekatzen nuen”:* eskuzabala, emankorra, desinteresatua.../interesatua, berekoia, zikoitza, zekena, xuhurra, zimurra...

*“Lagun bat iraintzen bazuten, haren alde borrokatzen nintzen”:* babeslea, defendatzailea, ongilea, laguntzailea, zain-tzailea.../erasotzailea, zapaltzailea...

#### d. Albertoren bakarrizketan “entenditu” hitzak esanahi bikoitza du. Azal ezazu zer esan nahi duen ageri den esaldi bakoitzean:

*“Hainbeste kostatu zait entenditzea...”:* gertatzen zitzaiona ulertzea (esaten du gainerakoak zu baino lehenago enteratzen direla) eta homosexuala izatea.

*“Bai, entenditzen dut”:* homosexuala izatea.

*“Oihuka plazan, mundu guztiak entzun eta uler zezan”:* ulertu, jakin, enteratu.

#### e. Mikhaelaren bakarrizketan umoreak salbatzen du, egiaz, baztertua izate-tik. Zein txistetan eta egoeratan erakusten du umore hori?

*Mikhaelak aitortzen du bere jaioterrian txistea fereka bat dela, komedia eta tragedia bat eginak daudela txanponaren bi aldeak bezala. Hala eta guztiz ere, ikaskideen iseka ergelak umorez onartzea erabaki du:*

*Izenari buruzko txistek, errima inozekin (Deitzen da Mikhaela, hala nola nire amona, eta ni naiz erumaniarra, hala nola nire arrebak!)*

*Egoera barregarria hizkuntz akatsetatik eratorria (Baina zer arraio ari da esaten neska txikia? Ez, txeka ez, erumaniarra).*

*Erumaniarraren estereotipoaz (Erumaniarra, eskura duena ebasten duena)*

*Berak kontaturiko txistea, zergatik den Barça bere gogoko ekipoa? katalanei “polako” deitzen dietelako, eta horrek bere labirintoko atea ireki ziola dio. Mikhaelak ez zituen beste txistek ulertu, baina hura bai (Atzeman nuen. Eta beste guztiakin batera irri egin nuen. Eta hori).*

*Gaztelaniaz hitz egiteko moduaz, irri egiten dio bere buruari eta ongi ikasi badu ere jakinen ez balu bezala mintzo da barrea eragiteko eta brometan parte hartzeko. Esaldi honekin, adibidez “tirarme cacahuetes, mesedez”, efektu irigarria gertatzen da, berriro ere bere burua eskaintzen duelako isekagai bezala (Kaxu, kartera) euskarazko hitz bat txertatuz gaztelaniazko esaldi batean.*

## Sortze jarduerak: Gatazken analisisa

### 1. BURUA ERABILTZEA GATAZKAK AZTERTZERA KOAN

Gatazka baten aitzinean ihes egitera jo dezakegu, edo erasora, animaliak antzo. Gure parte bat animaliena bezalakoa denez gero, gizakiak, senez, era berean erreakzionatzeko joera du. Baina, gainera, pentsatzeko gai da, hitz egiteko eta adostasuna bilatzeko, eta hori gizakien esku dago soilik. Helburua da burua erabiltzea gatazkak konpontzeko.

Baina, nola eta zer pentsatu behar da gatazkak adimena erabiliz kudeatzeko? Ikus dezagun Mariaren kasuan.

Messengerrean antzeko jendea aurkitu du eta horrela ez da horren bakarti sentitzen bere zoritxarrean. Horrek salbatu zuela dio. Benetan salbatu dela uste duzu? Testuko zein adierazpenekin frogatu dezakezu?

*Beste neska batzuek begiak irekiarazi dizkiote, baina zertarako? Sufrikario berdina izan duten pertsonak badirela, hau da, alde orotan pertsona batzuek beste batzuk nolabaiteko ezaugarri fisiko batera murrizten dutela esateko.*

Egin duen baieztapen biribila, "buka-tu da", errealitatea baino gehiago asmoen adierazpena da, bakarrizketa osoa minduraz eta erresuminez bete-ta baitago, eta hori azken aldera ere sumatzen da mespretxuzko honelako adierazpenetan: "mundua herriko plaza hau baino handiagoa da, nire bizitza zuena bezalakoa izan dadila eskatzen dut". "Ez naiz bakarra", baina... Taldeka azter ezazue Mariaren arazoa, taulan ageri diren gogoeten laguntzarekin. Analisisak Mariak bere gatazkatik indartua ateratzeko dauzkan aukeren berri ematen ahal digu.

	MARIA	BESTEAK
Diagnostikoa: zer, zergatik, zer gertatu zen lehenago, beste zerk eragiten du		
Nola sentitzen den		
Zenbat irtenbide zituen		
Zein da hobereana (zer gertatuko litza-teke, baldin eta...?)		
Zer egin hori lortzeko (helburua lortzeko baliabideak)		

	MARIA	BESTEAK
<b>Diagnostikoa: zer, zergatik, zer gertatu zen lehenago, beste zerk eragiten du</b>	<i>Bularak asko hazi zaizkio garapenaren adinean eta besteen txantxak mintzen dute.</i>	<i>Iseka egiten diote bular handiak dituelako.</i>
<b>Nola sentitzen diren</b>	<i>Lotsa, mindura, ezintasuna.</i>	<i>Josteta</i>
<b>Zenbat irtenbide zituzten, irtenbide guztiak kontuan hartuz</b>	<i>Ihes egitea: ikasketetan eta liburute-gian bilatzea babesa, irenstea, isiltasunean sufritzea. Erasotzea: antzeko irainekin erantzutea, mendeku hartzea. Pentsatzea eta hitz egitea:</i>	<i>Erasoan segitzea, eragiten duten kalte-ari behatu gabe. Hartan pentsatzea eta haren sufrimendua norberaren dibertsioaren gainetik jartzea.</i>
<b>Zein da hobereana, bakoitzaren ondorioen arabera (zer gertatuko litzateke, baldin eta...?)</b>	<i>Sufrikarioa, mina, lotsa, isolamendua, bakardadea, autoestimu baxua. Etsaigoa, mendekua, gera, konfrontazioa. Ez dago irtenbide garantiarik, baina aukera gehiago bai. Gutxienez, deus ez egitearen sentimendu ezkorra saihestuko luke. Pilota besteen teilatuan geldituko litzateke</i>	<i>Gizatasunaren galera, doilorkeria. Eraginkortasuna soluzioan eta justizian, inori kalterik egiten ez dion pertsona bat errespetatzen dutelako.</i>
<b>Zer egin hori lortzeko (helburua lortzeko baliabideak)</b>	<i>Besteei jakinaraztea harengan zer eragin duen egiten dutena eta errespetatzea eskatzea. Laguntza bilatzea ikaskide sentiberago edo pertsona heldu baten gain. Besteengana hurbiltzea, guztien aitzinean agertzean isekak jasan behar izan arren, Mikhaelak bezala.</i>	

**2. ZURE EMOZIOAK.** Hauta ezazu emozio gehien sortarazi dizkizun pertsonaia eta bilatu adjektiboen taulan horiek adierazteko egokienak.

**3. PERTSONAIEN EMOZIOAK.** Bikote bakoitzak pentsatu behar du pertsonaia nola sentitzen diren, zerk eragiten dien jardutera eta labirintotik ateratzeko erabakia hartzera. Zerrendako hitzak bana itzazue eta behar den zutabea idatzi.

*Azkenean ikusiko dugu Mikhaela islatzen duten adjektiboak eta beste inor islatzen ez dutenak lotzen direla, hain zuzen ere, labirintotik irtetzeko bidea emanen zuketuen sentimenduekin, izateko moduekin eta balioekin.*

**ADJEKTIBOEN TAULA. Adjektibo hauek aldarte gorabeherak islatzen dituzte, sentimenduak eta emozioak adierazten, edo alderdi etikoak nahiz moralak aipatzen.**

*Abaildua, abantailatsua, adiskidetua, adoregabea, adoregabeta, adostailea, agerian jarria, ahalguztiduna, ahalmenik gabekoa, ahaltua, ahula, ahuldua, akitua, aldakorra, ameslaria, amorratua, apala, arazotsua, arduratsua, arindua, arrakastagabekoa, arrakastatsua, arranguratsua, arretagabea, arriskatua, arriskutsua, asaldagaitza, asaldatua, asebeta, aspergarria, ateraldi zorrotzekoa, atseginez betea, atsekabetua, aurkakoa, ausarta, ausartegia, auzilaria, axolagabea.*

*Babesgabea, baikorra, bakartua, baketsua, baldarra, baztertua, begiratua, begirunegabea, bekaiztia, beldurtia, beldurtua, bere gisakoa, bere onetik aterea, berekoikeriarik gabea, bikaina, biktima, birgaitua, bizkarroia, borrokalaria, buru ilundua, buruargia, buruberoa, buruiritzia, burutik egina.*

*Damutua, deliberatua, deprimitua, desegina, desengainatua, desilusionatua, desliluratua, distiratsua, dohakabea, doilorra, doilortua, duintasungabea.*

*Egiatia, engainatua, entzute handikoa, epaitua, eragin handikoa, eraginerraza, eraman onekoa, eramangaitza, ergela, eroa, errea, errebotatua, errekonozitua,*

*errenditua, erreprimitua, errespetu gutxikoa, errespetuz betea, erresumindua, erronka jotzailea, erruduna, errukitua, eskandalizatua, esklabo bilakatua, estimatua, estu, etiketatua, etsi onekoa, etsipenean eroria, ezdeusa, ezgaia, ezjakina, ezkorra.*

*Fidakorra, funsgabea.*

*Gainditua, gaitzitua, gaizki iritzia, gaizki tratatua, gaizkidea, gaiztoa, galdua, galtzailea, garailea, garaitua, garaitzailea, gauzaeza, geldoa, gerrazalea, gogaikarria, gogotsua, gogotxartua, goibel, gutxietsia.*

*Handinahikoa, handiustea, handiustekoa, handiustetsua, hanpatua, hanpurutsua, harrapatua, harritua, harroa, harroputza, harrotasunez betea, harroxkoa, haserretua, heldua, herabea, herratsua, higuingarria, hondoratua, hotza, hunkitua, hurbilgaitza, hustua, hutsa.*

*Idealista, iheskorra, ilusiorik gabea, indarberritua, inguratua, inportantea, iraindua, irekia, ironiatsua, irri-maltzurra, irrigarria, isekaria, isila, itoa, itsustua, itsutua, itxaropentsua, itxura gabekoa, itxuratia, izutua.*

*Jarraikia, jasanbera, jasanenezina.*

*Kaltgabea, kaltetua, kalumniatua, kaskarina, kaskarra, kezkatua, kikildua, koldarra, koldartua,*

*konformista, kontentagaitza, kopetaduna, krudela, kupidagabea.*

*Laidoztatua, larderiatsua, larderiata, larri, lasaia, lasaitua, lehiakorra, leiala, librea, lokabea, losintxatua, lotsagabea, lotsatia, lur jota.*

*Makala, makurra, malenkoniatsua, maltzurra, maniaduna, manipulatua, manipulatzaila, mendekabera, menderatua, menderatzaila, menpekoea, mesfidatia, minberatua, mindua, moralgabea, morbosoa, mukerra.*

*Nahasia, nardagarria, nazkagarria, nazkatua, nekatua, neurritsua.*

*Obsesionatua, ohartuna, oinazetua, oinperatua, oldarkorra, oldartsua, orduz kanpokoa, oso itsusia, otzana.*

*Patxadagabea, petrala, pozez betea, prestua, prestueza.*

*Saiatua, sakrifikatua, samindua, saritua, segurua, sentibera, setatia, sinesgogorra, sorgorra, sufritzaila, suharra, sumindua, suntsitua.*

*Tiranikoa, tolesgabea, traidorea, traizionatua, trebea, tristeia, txunditua.*

*Ukitua, umiliarazia, umiliatua, urduria, urduria.*

*Zakarra, zalantzatia, zapaldua, zaputza, zauritua, zaurtezina, zentzarazia, zentzugabea, zikoitza, zinikoa, zintzoa, zirikatzailea, zirtolaria, ziztatzailea, zokoratua, zorigaiztokoa, zorrotza, zuhurra, zuhurtziagabekoa, zurruna, zuzena.*

MARIA	HUGO	ALBERTO	MIKHAELA	IKASKIDEAK	INOR ERE EZ

#### 4. IRIZPIDE MORALA.

a. Balioets ezazu ea pertsonaiek beren erabakiak hartzerakoan besteak kontuan izaten dituzten; hau da, ea eraginkortasuna bilatzen duten beren onerako edo justizia ere kontuan hartzen duten (sentimenduak errespetatzea eta norberaren eta besteen eskubideak aitortzea).

*Azalpen zatian.*

b. Zein dira ikaskideek kontuan hartzen dituzten ezaugarriak lau pertsoniak arbuizatzeko?

*Bular handiak izatea; biolina jotzea, irakurtzea eta estudiatzea; homosexuala izatea eta atzerritarra izatea.*

c. Diren bezalakoak izateagatik lau pertsonaia horiek kalterik egiten al diete besteei? Azaldu zure erantzuna eta mintzatu horretaz ondoan duzun ikaskidearekin.

d. Buka ezazu elkarrizketa bat eginez zeure artean, eta ondoko galderei erantzunez:

*Zernahi arrazoirengatik besteak ez bezalakoa den pertsona bat ikusten dudanean, lehenbizi... pentsatzen dut, lehenbizi... sentitzen dut..., zera egiten dut:*

*Egindakoa eginik, nola sentitzen naiz?*

*Zer ondorio dakarzik? Eta beste pertsonari?*

*Zer egiten dut desberdinak diren pertsonen beste batzuek iseka egiten dietela ikusirik?*

*Zerbait aldatu nahi nuke?*

#### 5. TREBETASUN SOZIOKOMUNIKATIBOAK: GATAZKAK KONPONTZEKO ESTILOAK.

**Irakurri ondorengo informazioa:**

**Estiloen deskripzioa.** Gatazka egoerei erantzuteko norke geure estiloa dugu, baina badugu aldatzerik baldin eta ezagutu eta hausnartu ondoren irtenbide egokiena hautatzen badugu harreman onak izate aldera, geure inertiari jarraitu ordez.

**Lehiaketa-aurkapena (aurre egitea irabazteko).** Nik irabazi, zuk galdu. Erantzun horrekin, batek uste du zuzen jokatzeko ari dela eta bestea, ordea, oker dabilela; aurrez aurre daudenei besteak axola gutxi, irabazi besterik ez dute nahi. Axolazkoa alderdi baten emaitza da, ez harremana.

**Inibizioa (arazoari itzurtzea aurre egin ordez).** Zuk irabazi duzu, nik galdu. Batek gogorik ezari, koldarkeriari edo axolagabekeriari amore ematen dio. Gatazka hor dago, baina konpondu ezin daitekeen edo konpontzea merezi ez duen zerbait dela ulertzen da. Gatazka ezkutuan segitzen du, agian ez da kontuan hartuko baina berriz ere ager daiteke, beste itxura batean, beste egoera batean, tokiz kanpo edo bidegabeko eran. Ez du axolik zein diren emaitzak ez eta harremanak ere.

**Egokitzea (amore ematea, geure ikuspuntuari uko egitea).** Ni galtzaile, irabazten utziko dizut. Besteari irabazten uzten diogu kalterik ez egitearren, ez baititugu geure harremanak arriskutan jarri nahi, utzikeriaz edo koldarkeriaz... Batzuetan mespretxu mota bat bezala erabiltzen da ("tira, bada, egin ezak nahi duana"). Harremana indartze aldera, emaitza sakrifikatzeko prest gaude.

**Konpromisoa (bi alderdien hein bateko lagapena, bientzako onura helburu izanik).** Biok irabazle zerbait galtzen badugu ere. Konpromisoaren estiloa dela-eta alderdietako batek ez du bere interesen alde egitea zertan utzi behar baina bere jarrera leundu lezake beste alderdiaren interesak kontuan hartzen duenean. Afera da bi jarreraren arteko erdibide bat bilatzen ahalegintzea, hots, nola "banatu" erabakitzea. Irtenbidea aurkituko bada, bakoitzak bere aldetik pittin bat laga behar du, bientzat adostasun pozgarria lortu arte. Emaitzan zerbait galtzen da, baina harremanetan irabazten.

**Lankidetzaren (bientzat onuragarri izan den xedea bilatzea).** Biok irabazten dugu. Estrategia honetan emaitza bezain garrantzitsuak dira harremanak. Alderdi bakoitzak ahalik eta emaitzik hoberena erdietsi nahi du baina, bidenabar, harremanei eutsiz edo indartuz. Alderdien iritziz gatazka gaindi daiteke elkar ulertuz eta borondatea izanez gero, eta ez da harremanak hondatuko dituen edo bati zein besteari irabazarazi edo galaraziko dion zerbait. Arazoa konpontzen duenari ez zaio axola "arrazoia norke duen" eta "oker nor dagoen", alderantziz, bi alderdientzat egokia den irtenbidea bilatzen saiatuko da.

a. Ondorengo hitzak lot itzazu gatazka konpontzeko oinarriko hiru estiloetako batekin: lankidetzaren, pasibotasuna, eraso, bitartekotza, konfrontazioa, ihesa, lagapena, negoziazioa, konpromisoa, probokazioa, inibizioa, atakea, egokitzea, ituna, aurkapena, elkarrizketa.

**NI IRABAZLE:** Konfrontazioa, eraso, probokazioa, oldartzea, aurkapena.

**ZU IRABAZLE:** Inibizioa, pasibotasuna, egokitzea, lagapena, ihesa.

**BIOK IRABAZLE:** Konpromisoa, lankidetzaren, ituna, elkarrizketa, negoziazioa, bitartekotza.

b. Zein pertsonari esleituko zenioke estilo bakoitza? Azaldu arrazoiak.

**Maria:** zuek irabazle (inibizioa). Alde egin du. Emaitzarik ez, ezta harremanik ere.

**Hugo:** zuek irabazle (hasierako egokitzea) baina gero neronek irabaziko dizuet. Emaitzarik bai, harremanik ez.

**Alberto:** irabazteko asmoan saiatu da baina galdu du. Zuek irabazle (inibizioa): arazoari aurre egitea saihesten du Bartzelonara ihes eginez. Emaitzarik ez, harremanik ere ez.

**Mikhaela:** guztiok irabazle (elkarlana). Txantxak onartzen ditu bai eta horietan parte hartzen ere. Emaitza eta harremanak, biak.



## Testuaren gaineko iruzkina

Nerabearoan, gure neska-mutilek beren bizitzako etapa batean daude, zeinean harreman sozialak finkatzen baitira eta, ondorioz, baita bizikidetzaren ere. Berriki beste “familia” bat ediren dute, kidekoena (nahiz eta, zorionez, batzuetan pertsona helduren bati sartzeko baimena ematen dioten). Xede nagusietako bat taldearekin atsegin izatea da, bertan bere tokia egitea. Beharrezko urratsa da, beste pertsonak aurkitzera zuzendutako bidean eta pertsona horien artean leku bat bilatzeko munduan: horrela egiten dute hurbilenekoen eta aukeratzen dituztenen bitartez.

Hala ere, urrats horrek helduak izutzen gaitu, ikusten baitugu beren kidekoekin alderatuta gero eta eragin gutxiago dugula horiengan. Batzuk derrigorrezko familiara lerratzen dira; beste batzuk, hautaturiko familiara eta badira bidegurutzean, bi muturretatik gogor tiratzen dutenen tentsiopean zenbait urte ematen dutenak.

Hortik heldu da, besteak beste, diferente diren pertsonak arbuizatzea, edozein arrazoiengatik. Hortik heldu dira anitzen jokatze arriskutsuak, hainbeste izutzen gaituztenak, noski. Hortik, komunikatzeko modu bikoitza eta hizkuntzaren erabilera bikoitza: taldearena eta familiarena. Xarmagarriak ingurune ba-

tean, bihurriak edo harreman gutxikoak bestean... Orokorrean, gure seme-alabak ez dira mintzatzen, ez erlazionatzen, era berean etxean eta etxetik kanpo, eta gurasoek ez ditugu komunikatzeko modu horiek ezagutzen; edo, ikusi behintzat ez ditugu ikusten.

Nekez onartzen da, baina merezi du ahalegina egitea nerabeekiko harremanetan honelako jarrera garatzeko “nik ere hautatua izan nahi dut, utz nazazu zuri laguntzen, hor egoten” eta zubi moduko bat jartzeko, pentsa dezaten “ni ez naitzela zuretzat arriskutsua, ez nazazu zure etsai bihurtu”. Eta horiekin batera gogoeta egitean edo berea ez bezalako iritzia adieraztean (horretarako eskubide osoa baitugu), ez gaitzela bildurrez ari edo etengabeko ahakarrean, baizik eta elkar ulertuz eta errespetatuz. Jakina, horrek guztiak badu bere muga: nerabeek beren burua ulertu behar dute eta besteak errespetatu. Horrela joanena dira emeki-emeki harreman positiboak edukitzera, ingurune zabalagoetan, nolanhiko pertsonekin, desberdinak badira ere.

**Leonor Pérez Casajús**

Bigarren hezkuntzako irakaslea eta bizikidetzako aholkularia

## Jarduerak

### A. IRAKURRITAKOIA ULERTZEA

**Testuaren laburpen bat eska daiteke, kurtsoa nolako den ikusirik, edo galdera hauen bitartez ulertzea bideratu:**

**1. Testua hezkuntza-komunitateko zein kideri zuzentzen zaio batik bat?**

*Testua eskuko egitarauan sartu bada ere, eta ikasleentzat, orobat, interesgarria izan arren, egilea (irakaslea) bereziki familiei eta irakasleei zuzentzen zaie. Horrela besterik ez dira ulertzen esamolde hauek: “gure neska-mutilak, gure seme-alabak”.*

**2. Zein da testu-egilearen asmoa?**

*Familiei eta irakasleei nerabearoko etapen garapen etikoaren ezaugarri batzuk azaltzea, helduek gazte jendea hobeki uler dezagun. Aldi berean, halako jarrera jakin batzuk iradokitzen dira harreman positiboak eta komunikazio eraginkorra izateko.*

**3. Bereiz itzazu “familia hautatua” eta “familia derrigortua”.**

*Kasu honetan “familia” hitzak ez du inolako zerikusirik odol-loturekin, harremanak izateko askatasunarekin baino. Familia derrigortua da pertsona multzo bat, zeinean gizakia murgildua baitago berak hala erabaki ez arren: odol bereko senitartekoak, institutuko ikaskideak, irakasleak...*

*Familia hautatua aipatu eremuetako kide batzuk bakarrik osatzen dute, pertsona batek bere bizitzako partaide gisa hartzen dituenak, hain zuzen ere: senitartekoren, irakasleren, ikaskidderen bat edo beste; baina batez ere adiskideak.*

**4. Zer eginkizun betetzen du familia hautatuak nerabearen garapen etikoan?**

*Sozializazio autonomoagoa bideratzeaz gainera, familia hautatuak berarekin dakar onartua izatearen premia aurkitzea eta, beraz, taldean toki bat bilatzea. Horrela, atsegina izaten ikasten da, adeitsua, elkartasuna agertzen due-*

*na...; azken batean, positibo izatea taldean. Nahitazko urratsa da gero besteekin berdín izaten ikasteko.*

**5. Gurasoak nola sentitzen dira seme-alabengan zuten eragina gutxituz doala begietsirik? Zergatik?**

*Segurtasunik gabe, urrutze eta komunikazio zaileko une batean zer egin ez dakitela, eta izaturik seme-alabek egiten dutenaren berri ez dutelako.*

**6. Helduek (senitartekoez eta irakasleek) zernolako jarrera izan beharko lukete neska-mutilekin positiboki erlazionatzeko?**

*- Eginahalak egitea “hautatua” izateko eta etsaiak ez direla frogatzeko.*

*- Beren iritzia adieraztea, neska-mutileen iritzien kontrakoak badira ere, baina, beti ere elkar ulertuz eta errespetatuz.*

*- Imotasuna erakustea, beste pertsonen eskubideen kontrako eraso egiten duten jokabideei mugak jarritz.*

## B. DEBATEA

Arreta osoa debatean jarri nahi badugu, lehenbiziko hiru ariketak bazter utz daitezke; alabaina, ariketak egitearen abantaila bikoitza da: debateko puntuen interesa ikasle taldeari egokitzea eta kontsentsua bilatzen saiatzea. Baina, kontrara, gure interesa kontsentsua lantzea baldin bada, azken debatea baz-

tertu eta adostutako xehetasunen gaineko iritzi-idazki bat eska dakieke.

1. Testua arakatzuz idatzi bi ideia, betetzen ez zaituztenak, eta beste bi, egokiak iruditzen zaizkizunak.
2. Lau, bost edo sei laguneko taldeak eratu eta hauta itzazue debategai izanen zenituzketen adostasun bat eta desadostasun bat. Gomendaga-

ria litzateke kontsentsuz lortuko bazenukete; ezinezkoa gertatuz gero, bototara jarriko duzue eztabaidaren ondoren.

3. Taldeetako bozeramaileek kontsentsu bidez hautatuko dituzte debaterako puntuak (eta, ezinezkoa baldin bada, botazioz).
4. Egin ezazue ongi antolaturiko debatea.



## Pertsonaia bati zuzenduriko gutuna

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Maria maitea

Ez zait beharrezkoa iruditu nola zauden galdetzea, zure bakarrizketa entzun ondoren argi baitaukat lehengo zure bizitzako arazoak nasaiki gainditu dituzula. Eta lehengo bizitza diot, berriro jaio zarela uste baitut; orain hasi zara benetan bizitzen, kontent zaude egiten duzunaz eta zaren bezalakoa izateaz, eta ez zaitu deusek ez eta inork ere lotsaraziko. Eta esan dizudan bezala, gainditu duzu eta miresten zaitut, baina hala ere animoak eman nahi nizkizuke behingoan atzean utz dezazun lehengo bizitza hura.

Munduan betidanik izan dira eta izanen dira era horretako pertsonak, desberdintasun psikikoaren nahiz fisikoaren aitzinean iseka edo trufa egiten saiatzen direnak. Eta nik, neure aldetik, ezetz diot. Inork ere ez lizuke gaizki sentiarazi behar zuk zerorrek ere kontrola ezin duzun zerbaitegatik. Ez zenuke zure izateko modua, jatzeko edo pentsatzeko era zertan aldatu, norbaiti apetak eman diolako. Inork ere ez lizuke zoritzarreko edo gutxiago sentiarazi behar ezerगतिक. Esan dizudan bezala, hori ez dago ekiditerik, izan ere, bekaizkeria dela edo konplexua dela-eta, beti egonen da bat

edo bat ahulena dirudiena begitan hartuko duena. Eta hain justu hortxe okertzen dira berriz ere, zu ez baitzara ahula.

Zure izateko modua, ibiltzeko modua, jatzeko, irribarre egiteko, besarkatzeko moduak, bereziak dira. Ez diezaiozu inori hori aldatzen utzi, zeure izaera ukatuko zenukeelako.

Eta, azken batean, zer geldituko litzaiguke gu geu izateari uko eginen bagenio? Oskol hutsa, zeinaren helburua ezagutzen eta estimatzen ez zaituztenak kontent jartzea besterik ez baita.

Pertsona horiekin zenuen arazoa gainditzeak zure adore handia erakusten du. Eta nire apaltasunean biziki miresten zaitut. Eta erruki naiz horrela egiteko gai ez direnez, eta isekak eta tratu txarrak ez izatearren egunez egun ezkututzen, aldatzen edo besterik gabe desagertzen saiatzen direnez.

Hemen bukatuko dut eta espero dut neurri batean behintzat lagunduko nizula, nahiz eta badakidan hau guztia gainditua baino gaindituago daukazula.

Musuak eta besarkadak.

**M.N.**

Batzilergoko Lehen Maila  
I.O. Eta nire amak dioen bezala, *hitz zentzugabeari, entzungor.*

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Alberto maitea:

Azken aldiz ikusi zintudanetik denbora gehiegi pasatu da. Nola dihoazkizu kontuak? Honez gero hiria bertakoe bestea ezagutuko duzu ezta? Jarritako helburu guztiak lortu dituzu? Bizitzea! Behingoz. Eta hori bururatzen zaidan aldirori nire galdera da zergatik ote den horren zaila batzuentzat hain erraza den hori?

Ikasturte bukaera ez zen imaginatzen genuen bezalakoa izan, gogoratzen? Izar-distiradun trajeak, denak irribarre berarekin; biontzat bukaera bikaina. Pena izan zen egun handia baino lehenago alde egin izana, ez zen izarren soinekorik izan. Zure falta sumatu nuen, txikitxo.

Zer moduz unibertsitatea? Hemengo hau, niretzat handiegia oraindik! Guztira ohitzea ezin gaituzko erronka da niretzat, hurrengo astra begira. Hasiberri baten aurpegi honen orde zure behialako irribarre izan nahi nuke! Nitaz irri egiten zenuke ikusiko baninduzu, segur naiz horretaz.

Zutaz pentsatzen dut etengabe ziurtasunik gabeko egun hauetan. Dena ez da horren erraza, hainbeste gauza utzi zenituen atzean, ezin dudala onartu horien artean nagoela. Begira idazu! Noiztik idazten ditut nik gutunak?

Ikusi ditut. Horiak ikusi ditut, eta ez da bat ere atsegina izan. Irri maltzurak, kolperen bat edo beste, taldea pauso berean aurrera eginez. Berdin zaie bat atzean gelditzen bada, norbait bereizten bada. Abere-samaldari asteburuan egiten dutena besterik ez zaio inporta. Eta horrek sutan jartzen nau, Eguberrietan etorriko ez zarela jakiteak baino askoz gehiago. Txantxetan ari naiz, zu ez itzultzeak askoz gehiago sumintzen nau.

Atzean gauza ugari utzi zenuen, eta batzuk ni baino garrantzitsuagoak. Besteak beste, idealak utzi zenituen, lortu nahi izandako ametsak, iritsi gabeko helmugak, norbaitek zure orde gauzatuko dituenak. Bizitza osoa utzi zenuen, eta hori asko da. Hitzak, emozioak, sekretuak. Zu eta mutil hura, ezagutu zintudanean zur eta lur gelditu nintzen. Eta orduz geroztik zenbat "zu" eta "hura" izan dira? Gauza da,

bat-batean konturatu nintzela nik neure burua baino hobekiago ezagutzen zintudala.

Hainbeste erakutsi didazu ezen lotsa eta guzti ematen didala hori aitortzea. Miresten zaitut, baina hori aireportuan esan nizun. Bizitza berria! Horren erraza balitz! Hasierak herioentzat, eta zu zara beste edozein baino gehiago. Zu zara nire superheroi txikia.

Zure gurasoekin topo egin nuen eta zoragarria izan zen. Zutaz harro zeuden, eta horixe da edozein seme-alabak nahiko lukeena. Zoriontsu ziren zuri eskerrak. Esan zidateenez, zu ez zinen sobera adoretua izan inoiz eta, hala eta guztiz ere, betidanik nahi izan zenuen bezain ausarta bilakatu zara. Damaturik zeuden, baina haien behakoan ez zegoen damurik. Poza baizik, poza eta ilusioa. Poz hartan zure bizitza berriaren esperantza zegoen. Lortu duzu! Badakit ongi, ez duzula besterik behar zeure bizitzarekin jarraitzeko. Azken finean, huts-hutsetik ezin daiteke hasi.

Maite zaituzte, maite zaitut. Petral-samalda horretakoei opa diet garaiz kontura daitezela oraindik ere ez direla denak berdin-berdin jazten. "Mutil hura" ongi dago, faltan somatu zintuen, baina kasu egin zizun, hura ere bere bizitzarekin segitzen du zuk bezala, eta sekulan ez zaitu ahantziko. Nik ere ez. Gauza gehiegi erakutsi zenizkion gero ahantzi ahal izateko. Eta zuk, gaualdi bat zor didazu, izarrezko soinekoekin. Eta izar iheskorak izan daitezela! Edo bestela ez dizut behin ere barkatuko hemendik joan izana. (Badakizu txantxetan ari naizela. Zu hemendik joan izanak zorionez bete nau. Honekin ikus dezakezu zenbateraino maite zaitudan).

Hiru muxu gabon esateko. Ongi banatu!, ez baitakit noiz arte ez dugun elkar ikusiko berriz. Eta irribarre bat egun baikoitzeko.

**B.U.J.**

Batxilergoko Lehen Maila

I.O. Astebeteko epean zure gutuna, dena kontatuz, jasotzen ez badut, Eguberriko oparirik gabe geldituko zara. J

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Mikhaela maitea:

Zure egoera ezagutu eta hausnartu ondoren, gutun hau idazteko premia izan dut, bizi izan duzun esperientziaren gainean nik dudan iritzia zurekin partekatzeko. Kontatu zenigun hartaz, nola iritsi zinen herrialde berri batera eta nola lortu zenuen egokitzea, gauzatxo batzuk esan behar dizkizut.

Aurrena, berebiziko miresmen eta errespetua sentitzen dut errealitateari aurre egin zenion moduagatik, izan ere, edozeinek ez luke jakinen zer egin besteek baztertzan dutela ikusirik. Horrela konturatu ahal izan nintzen gaur egun ere arrazismoaren arazoak dirauen arren, badela aurre egiten diotnik eta beste edozein bezala balioetsiak izatea lortzen duenik. Niretzat, zu zara horietako bat.

Zurea ez den herrialde batera iritsi zinen unea eta institutu berri batean hasi zinenekoa zinez gogorra izanen zen, inor ez ezagutzeaz gainera hizkuntzaren oztupoa baitzenuen. Hala ere, ikasten hastea erabaki zenuen besteen artean ahalik eta hobekien egokitzeko asmoz eta horrela haien aldetik arbuia eta ahantzia senti ez zintezan.

Nire ustez, zuk egindakoak balio handia du. Taldean sartzeari lortu zenuen eta guztiek zuregana jotzen zuten argi bila irakasgaien inguruko zalantzak zituztenean.

Beste alde batetik, gustura esanen nizuke zure kasuaren bidez ikusten ahal dugula nola pertsona gehienek etorkinen inguruan dituzten aurreiritziak desmuntatu daitezkeen eta pertsonak balioesten hasi daitezkeen nazionalitateari edo jatorriari erreparatu ordez nolakoak diren aintzat hartuz.

Azkenik, azpimarratu nahiko nuke niretzat eredu bat zarelara, guztiontzako ikasbidea. Zure hobetzeko nahiak eta pertsona gisa balioetsia izateko gogoak erakusten digute munduan oraindik ere badela estereotipoak, zoritxarrez gizartean gaur egun ere gertatzen direnak, hausteko gai den jendea.

Nire gutuna gustuko izan dakizula nahiko nuke eta zure iritzia ezagutzeko lehenbailehen erantzun diezadazula espero dut.

Besarkada bat,

**M.A.**

Batxilergoko Lehen Maila

# *La primera vez*





## Emakumezko pertsonaiak

Eszenan emakumezko lau pertsonaia azaltzen dira: Leire, Rakhi, Adri eta Nines. Lauak adiskideak dira, nortasun desberdinekoak eta gauza batzuetan berdinak.

Badirudi familiako inguruabarrak Ninesen eta Leireren jokabidean erabakigarriak direla. Adri eta Rakhiri dagokienez, erabakigarria besteek haietaz duten iritzia dirudi. Iritzi hori edertasunean eta ikasketetako arrakastan oinarritzen da Adriren kasuan, eta "look" gogorrean eta "jurruan", esaten duen eta egin gabe uzten duen guztian, Rakhiren kasuan. Ikusten ari diren nerabeetako edozein erraz identifika daiteke horietako batekin.

Guzti-guztiak argi dute etapa bat amaitu eta beste bat hasten dela. Behin baino gehiagotan "esan" aditzaren hirugarren pertsona darabilte, diote, ezagutzen ez duten eta heldutasun etaparantz inimiziaz ariketa mota bat dirudien zerbait erreproduzitzeko: lehenbiziko sexu harremana eta, ondorioz, birjintasuna galtzea.

Guztiak duten ezaugarrietako bat da ez dela horietako bat ere mutil batekin ateratzen eta, beraz, inimiziazko zailagoa da, *ikus dezagun, berrikeria dezagun generoa*. Badirudi, jendearen aitzinean, proba gainditzen ez duena ez dela deus. Mutilek ez bezala, harremanak izateari ez diote lehentasunik ematen, oraindik maitemindu ez direnez harremanetarako beharrik nabaritu ez dutelako. Baina, Unibertsitatera joateko garaia iritsi denean, ematen du betebeharrak bat dela, neskatikotzat har ez dezaten, *neskak!*, *gaur gertatzen ez dena, ez du gehiago sekulan gertatuko*. Eginen *dinagu orientatzailearekin egiten genuena ikasketak aukeratu behar zirenean, aurrena, gustuko ez duguna baztertu*. Hortik ateratzen den ondorioa da, ikasketetan bezala, epemuga bat badagoe, batek entzun nahi ez badu ergela dela, inork nahi ez duena, *mindulina, etab*.

Xedeak bete edo ez bete, betebeharrekoa da, halaber, ongi jantzia joatea distiratsu agertzeko prestatu den festa batera eta puntu horretan familiaren parte hartzeak badu garrantzirik, *ezetz ama, orain ez dut zapatak aldatzeko gogorik*... Frustraziobidea da egokiro jantzi ahal ez izatea horren inportantea den festa batera joateko, eta horrela ulertzen dute beste neska guztiak Ninesi dagokionez, *hoberena merezi duzu*.

Pertsonaia bakoitzak bere-bereak diren ezaugarriak ditu, jatzeko moduan, mintzaeran nabari dena, kasu batzuetan, eta batez ere bakarriketan, zeinean bakoitzak bere kezkek agertzen baititu.

**Leire** ongi konpontzen da amarekin, ez dirudi diru arazorik duenik, heldua da, bere adineko mutilak baino askozaz ere helduagoa, eta horrelako egun batean berataz zer espero den badakiela dirudien arren, erabakia bere buruz hartzeko gai da, *prest al nago?* Onartu nahi ez badu ere, mutilei, alkoholarri, eta abarri buruz amak maiz errepikatu diona barneratu du: *horiek beti nahi dute, eta nik?* Badu konfiantza bere baitan, *zorionez geuk erabakitzen dugu*.

**Adri** akatsik ez duena da. Guztiak beldur diote perfekzio horregatik, *ederki aspertua nagon neska bikaina izatez*. Harremanen bat edo beste izan du eta ez dira ongi bukatu, ez baitira berataz maitemindu, bere arrakastaz baizik, *garaikur bat naun*. Funtsean badaki zer espero duten bere aldetik eta ahalegin guztia eginen du hura lortzeko, *hainbeste beldurtzen nain ilusioa kentzeak*. Baina bakarrik sentitzen da. Ez dirudi noizbehinkako sexuak lehentasuna duenik, maitasuna nahiago du, eta konpainia: *ni han izan nadila*.

**Rakhik** moderno plantak egiten ditu baina besteak bezain tradizionala da. Izan ere, haren modernotasuna ez doa estilo bat eta esaldi gatzpipertu batzuk baino haratago, *zakur emeoi gustatzen zaigun hozka egin diezaguten*. Beste neska guztiak baino irtenagoa badirudi ere, itxura horren azpian segurtasun eza eta autoestimua falta ikaragarria dago, *agian, nik neure burua maitatzen ikasten dudanean*. Frustratu samar dago inork ez diolako berarekin ateratzea eskatzen, mutilak ez zaizkio hurbiltzen, seguru aski neskak aukeran segurtasun handiegia erakusten duelako, *zergatik ez nau inork ere besarkatzen?*, *horrekin aski izanen nuke*. Beti da bera mutilengana hurbiltzen dena, azaleko hurbilketa bada ere. Neskak argi dauka noraino iritsi nahi duen. Erromantikoa da eta maitasunaren esperoan dago: *maitemindua ez banago, ez*.



**Ninesek**, originaltasunaren eta esnobismoaren aitzakiaz, kezka sortzen dion egoera ekonomikoa ezkututzen die bere adiskide diren neskei, ahantzi horrenbesteko bakardadea, izan ere egoera horren ondorioz unibertsitatera joaterik ez du izanen, gogoko dituen ikasketak ezin izanen ditu egin, *jantzi barregari horren eta etorkizunik gabeko proiektu horren azpian dagoena ulertzeko kapaz den norbait*. Sexuak ez dio kezkarik sortzen, ez inimiziazkoak ez deusek, arazoak eta alaitasun pittin bat norekin partekatu edukiz gero, *izan zaitez eramanerraza eta ahantzi dena*. Neskak bizitza errealean benetako arazoak ditu.

## Gizonezko pertsonaiak

Eszenan gizonetzko lau pertsonaia daude: bata erreal, Xabier, eta hiru irudizkoak. Horiek hiru deabru dira, gustuko dugun neska batengana aurreneko hurbiltze saioa ulertzeko hiru modu desberdin irudikatzen dituztenak. Ahots desberdinak dira hasiberriari aholku ematen diotenak bere zeregin zail horretan eta, nolabait, izateko eta pentsatzeko modu desberdinak sinbolizatzen dituzte. Deabruen izenak ere, Punk, Romeo eta Tenorio, alegia, jarrera hauen adierazgarri dira: *“bata, ezarritako guztiaren kontrakoa, bestea amodio kontuan trebea eta hirugarrena sentimental hutsa”*.

**Xabier.** Antzinako kontua badirudi ere, Xabierrek, sekuentziako gizonetzko pertsonaiak, harreman bati hasiera emateko hurbilketan lehenengo urratsa ematera behartua dagoela ematen du, *gaurkoan ez badiot deus esaten... jo eta moztuko diat... gaur asko zeukeat jokoan*. Eginbeharrak abaildua dauka, ez baitaki nola aurre egin, ez baitaki beretzat berria den eta jokoan asko duen egoerari zer burubide eman, *Xabi, Superxabi*. Guztia perfektua izan dadin nahi du, mutil eredu-garria izan nahi du, alde guztietatik, gorpuzkeratik hasita, *zer arraio jantziko diat?* Erantzun behar horren aitzinean erabakitazunik ezaren irudia da, barregarri gelditzeko eta batez ere arbuatua izateko beldurraren irudia, *eta ezetz esaten badit*, eta bere jardueraren ondorioz porrot egiteko beldurra, zeren gogoko duen neskari buruz duen irudia erabat idealizatua baita, *Ai!, Leire, Leire... lotsa besterik ez da...* Bururatu ere ez zaio egin lehenbiziko sexu harremana izatea, izenburutik ondoriozta daitekeen bezala, nahiz eta gala eguneko egun batean ezin itzurizkoa dirudien, izan ere hala Xabik nola neskek behin baino gehiagotan adierazi baitute, *gaur behinik behin etekina aterako duk*. Baina “etekina ateratzea” ez dago gure protagonistaren esku, beldur eta segurtasun falta ikaragarria erakusten baitu. Hasiera batean zera nahi du benetan, Leireren arreta erakartzea eta gero gerokoak, hala egokitzen bada. Eszenaren amaiera, Xabiri dagokion aldetik, erabat ezaguna egiten zaigu. Azkenean ez da bera hurbiltzen hasten dena. Haren saioak traketsak dira oso eta justu esan nahi ez zuena esaten du, *Leire, ze ona zauden!*, eta azkenean neskak berak eman behar aurreneko urratsa.

Xabiri aholku emateko eszenan gorpuzten diren hiru deabruak pertsona helduen eta nerabeen inkonziantean oraindik ere ongi errotuak dauden hiru estereotipo edo mamu dira. Hirurak bizi ditu Xabik bere barnean eta azaltzen dira, hitza elkarri kenduz, nerabea pentsatzen ari denean gustuko duen neskarekiko harremanei nola ekin. Bat-bateko gozamina, berehalakoa, lortu besterik ez du nahi? Hobe izanen da agerian sentitzea, besteek desiratua, besteen gogokoa izatea? Zergatik ez bilatu guztia partekatze moduko norbait?

**Punk deabrua,** zuzenean harira doana. Horren hitzartze guztien xedea harreman fisikoa erdiestea da, zenbat eta oso-

agoa hainbat eta hobe. *Erasora. Egin eraso eta ase hadi, motel*. Pertsonaia horrentzat, neska berehala ase beharreko desio eta gozamen helburua besterik ez da. Hitzak alferrik daude. Punk motako estetikak pertsonaia gogorra iradokitzen du, batere erromantikoa ez dena, hauslea, konbentzionalismoetatik kanpo, nahi duen hura egin eta esaten duena. Haatik, eszenaren bukaeran ikusten denez, punk delako hori estetika hutsa da, izan ere hautatzen duen neska, harremanetan guztien pentsatzen duena da eta arazo gehien dituen.



**Tenorio deabrua,** ligatzaile profesionala, helburua lortzeko edozein trikimailu erabiltzeko eragozpenik ez duena, *aldatu taktika. Heldu egiok estuago, traketsa halakoa*. Azkenean frogatzen da berak ez duela agintzen, bestek hautatzen dutela, eta ez preseski amodioa bilatzen ez duen neskak. Tenorio, duen itxura ederragatik, neska guztiak maitemintzen dituela amesten duen egolatra da.

**Romeo deabrua,** hiruretan erromantikoa. Uste du nesken maitasuna era tradizionalan lortzen dela, filmetan eta nobeletan ageri den bezala. Bereak bide dira taktika egiazkoak, *baina, batik bat, herorrek... entzun iezaio; tira, belarri ertzera hitz egiok*, azken finean taktikak besterik ez dira, bere egiazko xedek pertsona bat eta une bat baino haratako baitoaz: munduaz eta kausa desberdinez, zeinen alde lan egin baitezakegu, bera da gehien kezkatzen dena, talaka ematen dio Egiptoko krokodiluen masakreen istorio horrekin, gai interresgarria, inondik ere, gradudunen dantza saio baterako.

Guztiok badute zerbait batean: helburua argi dute, baina, azkenean, ez dute beraiek hautatzen, aitzitik, hautatuak gertatzen dira. Protagonistaren kasuan, ez da iniziatiba hartzera ailegatzen, neskak hartzen baitu, eta den bezalakoa ageri denean, hots, segurtasunik gabea, traketsa, zintzoa, orduantxe betetzen du helburua.



## Jarduerak

Ezagun egiten dira eszenako pertsonaiak? Horien antzeko norbait ezagutzen duzu?

*Nahierara erantzun.*

Zuretzat zein pertsonaia da atsegina? Eta zakarra?

*Nahierara erantzun.*

Adjektibo hauek zein pertsonaiari ezarriko zenizkioke?

Lotsagabea	Zoritxarrekoa
Lotsatia	Segurua
Erromantikoa	Praktikoa
Urduria	Deliberatua
Traketsa	Zoragarria

Deabruen jarrera egiazkoa iruditzen zaizu, ala itxurakeria hutsa?

*Nahierara erantzun.*

Gurasoen jarrera ezaguna egiten zaizu? Eta Ninesen egoera?

*Nahierara erantzun.*

## Sortze jarduerak

Hauta ezazu emakumezko pertsonaie-tako bat eta azaldu zein arazo duen, zure ustez nola sentitzen den, zergatik, bere arazoaren gainean zein erantzun eman duen, zer egin lezakeen hura gaingitzeko...

*Nahierara erantzun.*



## Testuaren gaineko iruzkina

Nerabeak taldearen bila dihardu, onartua izan nahi du, ezaguna, ikusgai, kidekoen artean integratzeko premia du eta haien artean babestea; horrek berekin dakar anitzetan taldeak berak ezartzea arauak, estiloa eta jarduteko modua, eta sexualitatea ez da salbuespen.

Ereduetan oinarrituriko gizarte honetan badirudi sexualitate arloan ere arau bati segitu behar diogula; hortaz, araua norberak diseinatu behar du, neska bakoitzak eta mutil bakoitzak, eta beraiek bakarrik markatu behar dituzte beren sexualitatea adierazi eta garatzeko eritmoa eta uena.

Hori lortuko bada, nahitaezkoa da sexualitate txeratsu, ireki eta atseginaren, eta aldi berean zentzudunaren ikusmoldean prestatzea eta sakontzea. Zeregin hori ezin dugu adiskideen edo publizitatearen, telebistaren eta interneten esku utzi.

Nerabe bakoitzak eginkizun garrantzitsua du gai honetan, hau da, norberaren onarpena eta balioespena: nor bere burua maitatzea eta gogoko izatea, baita maitatua eta besteen gustuko izateko ere.

Gutariko bakoitzak geure izaera bakana dugunez gero, guk geure izaera, geure hobespenak, geure premiak, aurkitu eta eraiki behar ditugu. Pertsona garen aldetik, geure burua balioetsi eta ezagutu behar dugu, ulertu eta errespetatu dezagun.

Izan zaitez zaren bezalakoa, neska zein mutil, errespetatu ezazu zeure eritmoa eta nola, noiz, etab. erabakitze askatasuna... Zuk zeuk bakarrik erabakitzen duzu eta, zure ibilaldia besteekin partekatzen baduzu, zure kezkez eta desioez lagunarekin mintzatu, hizketatu, partekatu eta adostu beharko duzu.

Sexualitatea gure bizitzaren eta gure garapenaren parte bat da, zaindu ezazu!

**Cristina Satrustegui**

Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzarako Aholkularitza



## Jarduerak

**Testua arretaz irakurri ondoren, labur itzazu horren idea nagusiak.**

*Nerabeak bere taldekoek onartua eta babestua izateko premia du.*

*Taldea aurrez onarturiko arau batzuen inguruan taxutzen da, sexualitatearen ikusmoldeari dagozkion arauak barne. Egungo gizarteak ereduak inposatzen ditu, baita sexualitatearen ingurukoak ere.*

*Pertsona bakoitza den bezalakoa da eta bere bideari ekin behar dio, hala sexualitatean nola beste arlo guztietan ere. Erabakiak hartu ahal izateko prestatu eta hausnartu behar da. Sexualitatea ahalmenez beteriko altxorra da eta hori garatzeko ezin daiteke informazio osatugabeen (adiskideak) edo interesatuen (publizitatea, Internet...) mende egon.*

*Balioets ezazu zeure burua besteek balioets zaitzaten; izan zaitez zeure gustuko gero besteei gustatu ahal izateko. Aurkitu zeure burua, ezagutu, onartu... (Egin bedi aholkuen zerrenda bat.)*

*Erabil ezazu erabakiak hartzeko duzun askatasuna eta partekatu erabaki horiek.*

*Sexualitatea inportantea da, zure izaeraren osagaia da eta zaindu behar duzu.*

**Testuaren ideia nagusiak sintetizatu ondoren, deba-teak egin daitezke, gogoetak, adibideen bidezko azalpenak, antzezpenak... ikasleen ezaugarriak eta adina kontuan hartuz.**

*Adibidez, taldean onartua izateko premia horrek batzuetan norberaren iritziak isilarazten ditu. Deskriba itzazu ezagutu edo irudikatu ahal izan dituzun egoerak. Bilatu, halaber, publizitatean ageri diren sexualitate eredu gainean ezagutzen dituzun adibideak. Sexua, iragarkien indargarri gisa autoen, lurringaien, eta abarren iragarkietan. Eta gazteentzako telesailetan. Egin ezazu telebistako iragarki baten neurritz gaineko parodia, zeinean salgaia sexualitatearekin lotzen den, eta aztertu nola funtzionatzen duen lotura horrek.*

**Nori uste duzu zuzentzen zaiola testua? Zergatik?**

*Nerabeei, beren nortasunaren eraikuntzan sexualitatea integratzen ari direnean. Argiroago ikusten da testuaren bigarren erdian, aholkuak ugari baitira.*

**Egin ezazu ikus-eskema bat, eta eskema horretan nerabeen sexualitateari buruz gurasoen eta adiskideen artean, publizitatean, zineman, moralisten eta sexologiako adituen artean gertatzen diren ikuspegi guztiak, zeurea barne, bilduko dituzu. Azpimarratu zure iritziz zein izan daitezkeen egiazkoak eta zein ez.**

*Erantzun librea, baina baliagarria sintesi bat eta debate plural bat egiteko.*



## Pertsonaia bati zuzenduriko gutuna

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Xabi maitea:

Segurtasunik ezarekin eta beldurrarekin bizitzen ikasi beharra dugu. Segurtasunik eza gure baitan, huts egiteko beldurra, besteek zutaz espero dutena ez izatea. Zure kasuan, gogoko duzun neskaren mailan ez egotea. “Nitaz ohartuko ote da” “Nola hitz egin neska horrekin?” Galdera horiek eta askoz gehiago sortzen zaizkizu, baina jakin behar duzu ez duzula zertan inor engainatu zure izaera aldatuz eta beste modu batera jokatzuz. Ez. Neskak ikusi behar zaitu egiaz zaren bezala, sobera amultsua edo zakarra, malenkoniatsua edo alaia. Zutaz egia jakin behar du. Ager zaitez zaren bezalakoxea, zeure adiskideekin ibiliko bazina bezala. Ez da inor engainatu behar eta kasu honetan, zaren ez bezalako agertuko bazina, gerta liteke neska zuk sortu duzun irudipenezko pertsona horretaz maitemintzea.

Nolanahi ere, zuk zerorrek ere pentsa dezakezu neska nola sentituko den. Seguru aski zu bezain segurtasun faltan

sentituko da, biontzat egoera berria baita. Hori arrunt polita da, zuen bizitzan eszena bat, egiazkoa izan behar duena eta ez antzerki lan bat bailitzan dramatizatua, aktoreak dena buruz ikasia eta akatsik gabea. Alderantziz, bizitza hau akatsez bete dago eta horiek gabe dena izanen litzateke egiantzik gabekoa. Etengabeko inprobisazioa da, zeinean gutako bakoitzak geure marka uzten dugun; pertsona batzuei gus-tatzen eta atsegin zaiena baina beste batzuei, zoritxarrez, ez. Horrela da eta horrela hartu beharko.

Beraz, izan zaitez zaren bezalakoa eta ikusiko duzu nola “zure neskak” zaren bezala onartzen zaituen, zeren guztiok baititugu geure dohainak eta geure akatsak eta sumatzen dugu zer espero dezakegun besteengandik, bai puntu sendoei dagokienez eta baita ahulei ere.

Zorte ona opa dizut eta dantzaldian ongi pasa dezazula!

**U.T.S.**

Batxilergoko Lehen Maila



# *Primera tarjeta de crédito*





## Izenburua

Sobera nabarmena da. Horren konkretua, materiala eta nabaria den zerbait aipatzen duen izenburuarekin igarri geneza-keen eszenaren edukia hasieratik beretik. Ez da izenburu metaforikoa ez eta oroitarazlea ere, eta, beraz, ez dakar inolako ezustekorik. Hala ere, klimax dramatiko handienak, eszenaren bukaera aldera, ez du zerikusi handirik kreditu txartela-

rekin, kutxazain automatiko batekin baizik, hortik ondorioztatzen da izenburuan eszenaren zati bat besterik ez dela kontuan hartzen, ez eszena osoa. Bukaeran, ezustekoa gertaeren garapenean sortzen da, eta izenburua, kasu honetan, anekdota hutsa besterik ez da, gertaeren sekuentziari hasiera ematen diona, baina gertaera guztiak barnean bildu gabe.

## Jarduerak

**Eszenari zergatik deitu zaio horrela? Izenburu metaforikoa al da?**

*Izenburua ez da metaforikoa, ez eta oroitarazlea ere. Bertan aipatzen da gazte baten lehenbiziko kreditu txartela, diruari zer balio ematen zaion eta mutilak zertan erabiliko duen.*

**Eszenarako izenburu egokia iruditzen zaizu? Zuk zer izenburu jarriko zenioke?**

*Arrunt zaila da testuan, argi eta garbi edo ez horren argi, ageri diren gai guztiak barnean hartzen dituen izenburu bat asmatzea.*

**Egoki-egokia da, izan ere, kreditu txartelarekin loturik ageri dira hainbat gai, hala nola dirua, horren baliagarritasuna, eskuratzeko modua, familiar- teko harremanak, eta, gainera, eszenaren bukaerako gun- e fisikoa, kutxazain automatikoa, alegia.**

*Beste gai batzuk, esate baterako neskekiko harremanak, drogak, pentsaera politikoa eta xenofobia txartelarekin zuzenean loturik ez badaude ere, ongi elkartuak daude, beraz, ez da horren sinesgaitza guztien arteko lotura.*

**Era horretako txartelak aipatzean kredituzko sintagma zehaztailea erabiltzen duzu? Beste eratako txartelak ezagutzen duzu?**

*Erabiltzen ditugu osasun txartelak, nortasun agiriak, igerilekuko txartela, deskontukoa, Carrefour, Game, Civivox etab. Oso gutxitan izaten da beharrezkoa sintagma zehaztailea, testuinguruak argi uzten baitu zein motatako txartelaz mintzo garen.*

## Laburpena eta argudioa

Hiru nerabe ostiral arratsaldea pasatzen ari dira pasealeku publiko bateko jarleku batean. Ezagun dute hiriko tribu bateko kideak direla, hiphop erako estetika batekoak: galtza zabal eta eroriak, izerditzeko jertseak eta beisboleko kapelak. Ez zaie deus falta, motorra ere badute.

Mutiletako batek jakinarazten die beste bie- i amonak, oso enroilatua baita, kreditu txartel bat oparitu diola. Mutila saiatzten da lagunei azaltzen zer aldea dagoen zorraren eta kredituaren artean, baina haiei ez zaie batere axola eta kontua erabat mespretxatzen dute. Mutilak erabaki du rap bat kantatzea, txartela edukitzearen abantailak adieraziz, eta bidenabar, iseka egitearren, pertsona helduek diruaz egiten dituzten komentario batzuen parafraseak egiten ditu. Lagunek, 2. eta 3. mutilek, galdetu diote nork oparitu dion txartela, diruaren erabilerari buruzko iruzkinak egin bitartean: neskak eskuratzeko eta drogak erostea. Aldi berean, eta aurrekoarekin eten gabe, iruzkin xenofoboak ere egiten dituzte. Mutil beltz bat kallean barnea doa eta estu eta larri hartu dute, erretzeko mehatxu eginez. Azkenean ihesari eman dio lasterka eta beste horiek kutxazain baterantz doaz dirua ateratzera, gaua alkoholaz eta drogez leporaino eginik pasatzeko eta horrela txartelari etekina ateratzeko. Kutxazain batera iristean, eskale bat aurkitu dute kartoi batzuen azpian. Etorrinen gaineko iruzkinen eta bestelako batzuen ondoren, filosofikoak eta apokaliptikoak barne, honen anitza den gizarte batek nora garamatzen eta abar, eta gauzak lehengoratzeko ordua iritsi dela-eta, joan dira motorra utzi duten lekura, botila bat gasolina atera eta su eman diote eskaleari. Egintza horrekin inolako ikustekorik ez duten iruzkinak eginez bukatzen da eszena, kreditu txartelaz, zorraz, kredituaz eta amona gaixoaz.

## Jarduerak

**Egin ezazu testuaren laburpena, gehienez ere 7 lerrokoa. Nahi baduzu honela has zaitezke: hiru mutiko parke bateko jarleku batean eserita daude...**

*Nahierara erantzun.*

# Gaiak

Dударik gabe eszena honetako gai nagusia **intolerantzia** da, eta, agian, horren ondorioek eszenatokian berebiziko zirrara sortuko dute, beren teatralitate eta gogortasunagatik. Baina muturreko portaera ez da horko gai bakarra. Izan ere, badirudi gai desberdinak, horietako batzuk intuizioz soilik sumatuak, gai nagusi baten adarrak direla, egiazko gaia hasieran beste zerbait bazirudien ere: **Ongia eta Gaizkia ez ezagutzea**. Gaia letra larritz jarri da, bi kontzeptu horiek ezin baitira inolako ideologia, pentsaera edo sinesterekin lotu. Oinarritzko balioak dira, funtsezkoak eta lehenak, eta horiek gabe gizarte bat ezin bizi liteke. Faltan sumatzen dugun funtsezko balioa edo Ongia **errespetua** da: errespetu falta beren buruari, familiari, beste sexuari, atzeritarrari, behartsuari, adinekoari, esfortzuari eta lanari. Aldiz, ageri den Gaizkia izanen litzateke egitate delituzkoak, onartu ezinak, esplikagaitzak eta etikaren aldetik intoleranteak egiteaz kontziente izatea eta horretaz plazerra hartzea, eta ondorioz hilketa bat odol hotzean burutzea.

**Errespetu falta eta koldarkeria** gai nagusi hauetan zehazten dira:

**Beren artean:** etengabe irainka elkarri: *kabroiak, alprojak, gorotz puskak, ukitudak hankartekoa*. Iruzkina batzuek beren buruarekiko konfiantzarik eza nabaria izaten dute, halatan non besteei egozten dieten gertatzen zaienaren errua, *lana eta neskak kentzen zizkigutek, eta neskak, ero eta bero, horiekin larrutan egiteko*.

Eszenaren bukaeran, protagonista horietako batek zera dio: *samaldako gogorrena izan beharra zagok*. Hori bai dela hitz gutxitan asmoen aldarrikapen osoa, bizitza honetan zerbait edo norbait izateko zer egin behar den adierazten duena. Gizartea, aberetua, multzo bat besterik ez da, zeinean indartsuenak aitzinera egiten duen bitartean ahulena desagertarazten baitute. Gizartearen ikusmolde horretan elkartasun, lankidetzeta edo eskuzabaltasun balioek ez dute tokirik eta badirudi indarra izatea eta erakustea balio positiboak direla, aurrekoak ez bezala, horiek ahuleziaren adierazpen bezala ikusten baitira.

**Beren familiari:** Pertsonaia guztiak erdeinuz mintzo dira gurasoek: *atsoa eta agurea, eroetxe honetan gidari bakarra diagu*. Erakusle zehaztaileak pertsonaiaren nahitazko urruntze bat adierazten du bere familiarekiko. Ez du deus jakin nahi haietaz edo uste du ez dutela deus elkarrekin. Arrazoiak direnak direla, ulertzen da gurasoen eta seme-alaben artean komunikazio falta larria dagoela. Komunikaziorik ez izatea da, azken finean, funtsezko balioak ez ezagutzearen arrazoia eta burutzen diren egintzei dagokienez nolabaiteko inpunitatea ematen du, denboraren aldetik gertu-gertukoa.

Familiarekin loturiko beste gai bat da familiak seme-alaben eta biloben bizitzaz, pentsaeraz eta jarduteko mo-

duaz engainatuak daudela edo ez dutela horien berririk ere. Era horretan esplikatzeko da eszenaren azken hitzarztearen zinismoa, *amonari galdetuko zioat*.

**Beste sexukoei:** nesken aipamen guztiek sexu arlokoak dira: *ireki neskakxei pottorroa, ero eta bero larrutan egiteko*. Neskak ez daude pertsonalizatuak, gauza bihurtu baitituzte. Elkarrizketan agertuko dira protagonistei plazerra emateko gai diren heinean. Sexua praktikatzeko da protagonisten bizitzako helburuetako bat, eta ez sexua ezta maitasuna ere, ligatzeko balio dik, nahiz eta, dirudienez, protagonistek hitzetan bekatu gehiago egiten dituzten egintzetan baino, *egin ahal dudalako, (hoa txorta jotzera purrustadaren erantzuna)*. Uler daitezkeen zentzu bikoitzen artean sexu arlokoak ez dira gutxi: *ederra sartu diok, exkax, mihi hori, gero Jenniferren zintzurrera joanen duk*.

**Atzeritarrari:** etorkin talde desberdinak mespretxuz aipatzean agerrarazten da xenofobia, *morakoak eta poni-payoak*; neurritz gaineko jendetasunezko eta errespetuzko trataera erabiltzean, egiaz pertsonaiek erakusten duten jarrera erasokor eta jazarpenezkoarekin kontrastatuz, *nahi duzu sua ematea*; dudan jartzen dutelako hurbileko erlijioek egiazkotzat jotzen dituzten baieztapenak, *eta denok anai-arrebak garela ziotek*, eta, atzeritarraren gaia agertzen den bakoitzean, ez dutelako iruzkin mespretxuzkoak egiteko eta inolako funtsik gabe jarrera erasokorra agertzeko aukera galtzen.

Ultra talde batzuen pentsamoldearen ezaugarri bat da atzeritarrari eta behartsuari trataera berdina ematea, horiek arbuiatzeko erabiltzen diren argudioak desberdinak diren arren: atzeritarrak mailaz beherago daude arrazaz, *eta guztiok anai-arrebak garela ziotek, aitaren aldetik izanen duk, edo amonaren partetik*, eta behartsuak, berriz, zaborra besterik ez dira lanik egiten ez dutelako, aberastasun komunerako beren parte jartzen ez dutelako, *hemen inork ez dik deus oparitzen*. Guztientzako ordena eta ongizatea egokitu behar zutenek deusik egiten ez dutela irudituz *eta politikoez ez ditek deus egiten*, pertsona arduratsuak behartuak daude zerbait egitera, *hurbiltzen ari duk aro honen amaiera*, hondatuz joan den egoera, *mundua ez duk lehen bezalakoa*, eta jasangaitza bilakatu dena berregiteko.

**Pertsona helduei:** pertsona helduak, gurasoak eta amona, "gastuak ordaintzen dituztenak dira". Hortik heldu da geroaldiko *agureak irekiko zian*, galdera erretorikoa, aieru baten adierazpena, zeinen azpian ziurtasun bat baitago.

Pertsonaiek adinekoekin daukaten harremana ez da modu bakarrean ulertzen. Beste gaietan ez bezala, zeinetan hirurak ados daudela dirudien, kreditu txartelaren jabeak, itxuraz, bere amonarekin harreman berezia du, gurasoekin, ordea, ez,



lagunek haien lepotik barre egitea ontzat jotzen baitu, baina ez zaio gustatzen amonaz barre egin dezaten, *hura duk gidari bakarra eroetxe honetan; hi, kakazu, hago isilik.*

Adinekoenganako errespetu falta, dirudienez, interes hagitx desberdinak dituzten bi talde izatean datza, *seguru aski Boscosen jokatuko zian hire amonaxok, ze enroilatua,* gazteen taldekoek nagusien arazoak oso urrun ikusten baitituzte, *pentsio osoa, extra ere bame,* eta nagusiek kargu hartzen dietela edo pertsona helduen bizitzarako prestatzen ahalegintzen direla, *hoa heure amari larria jotzera, hoa ipurzuloa garbitzera,* helduen diskurtsoa ezagun egiten zaienean, *eta hi xutatzen haiz,* mutikoak nagusiek esaten dutena errepikatzen baitu, *bada, txartela ongi zetorek.*

**Esfortuari eta lanari:** puntu honetako errespetu falta honako honetan datza, alegia, kapaz direla bat ere kostatu ez zaien dirua erraz xahutzeko, eta bitartean, amona, es-

kuzabaltasunez, biloba maite duelako, gai da bere pentsio apurraren parte bat haren esku jartzeko, *pentsio osoa eta extra.* Une horretan kontrajartzen dira eskuzabaltasuna alde batetik eta mutikoen oharkabetasuna eta jokamolde heldu gabea bestetik.

Eszenan ageri diren beste gai batzuk, aurrekoekin lotuak, hauek dira:

- **Drogak** eta horietaz zein funts gutxirekin mintzatzen diren mutil batzuk, harrotzen baitira ezagutzen eta hartzen dituztela esanez.

- **Komunikabideek**, batez ere telebistak, zineak eta edozein eratako publizitateak gazteen kulturen duten eragina: *puntuak ematen dizkik, Caprabok bezala, bizitza zein polita den, txiki-biki.* Hedabide horiek erreferentziako liburuak balira bezala funtzionatzen dute, horien aipuak zi-priztintzen dute gazteen hizkera, eta adibide iturri dira.

## Jarduerak

**Aipa itzazu testuan ageri diren gaietako batzuk. Zein izan da zirrara handiena eragin dizun gaia? Zergatik?**

*Eszenaren iruzkinean.*


*Nahierara erantzun.*

**Egoerak neurritik kanpo atera direla iruditzen zaizu edo ezagunak egiten diren egoerak al dira? Bizi al duzue egoera horietakoren bat? Errealistak dira?**

*Nahierara erantzun.*

*Egoerak errealistak dira, bai.*

*Errealitatearekiko diferentziaren gako egoeren trinkotasunean egon daiteke, egoera batetik bestera azkar pasatzean eta ikuslea horietatik urruti sentitzean, kanpotik ikusten baititu.*





## Pertsonaiak

Pertsonaiak ez daude bakoiztuak, izenik ere ez baitute. 1, 2 eta 3 zenbakiz izendatzen dira. Talde baten kide diren aldetik jarduten dute, taldearen babespean. Estetika berbera dute, interes berberak, metodo berberak eta ekintzara daramaten pentsaera berbera. Pentsaera eta metodo horiek ultra taldeenak ematen dute, neonazien ideologiatik gertu, nahiz eta jakiterik ez dagoen pentsaera hori barneratua daukaten edo entzundako kontsignak eta iruzkinak errepikatu besterik egiten ez duten, horietan sakondu gabe. Horien etika falta hainbestearinokoa da ezen hasieratik beretik ikusleak horienganako arbuioa sentitzen duela, azken sekuentzian lastura bihurtzen den arbuioa.

Hiru pertsonaietatik 1 zenbakiko mutikoak desberdina dirudi bere hitzartzearen hasieran; alabaina, ez da desmarkatzeko gauza, ez du behar besteko nortasunik, ez irizpiderik eta hondarrean taldeak herrestan hondamendira eramaten du.

Eszenaren bukaeran esaten dutenagatik, *eta politikoez ez ditelak* *deus egiten*, pentsa zitezkeen bizi duten gizartearen garbitze eta hobetze lanetan lagundu nahi dutela. Baina pertsonaiek azken hiru hitzartzeetan erakusten digute beren egintzak ez direla inolako "justifikaziorik", horrelakorik bazela uste bagenuen ere. Eskalearen hilketak ez du inolako funtsik, ez dio mesederik inori egiten eta horrelakoak indarrean diren balio etikoetatik at bizi den jendearen egintzak izan ohi dira.

## Jarduerak

**Nola balioetsiko zenuke protagonisten jokabidea? Denak berdinak al dira? Balioets ezazu Otik 5era pertsonaiek neskei, atzerritarrei, drogei, gurasoei eta diruari buruz duten jokabide etikoa.**

*Nahierara erantzun.*

**Hauta ezazu kasu horietako bat eta esan zure ustez nori egiten dion kalte eta nori mesede edo zer ondorio ekar dezakeen.**

*Nahierara erantzun.*

**Pertsonaiek zergatik ez dute izen propiorik?**

*Gizabanakoak ez direlako, talde baten ordezkariak baizik, zeinekin bat egiten duten erabat. Kasu honetan, gainera, inportantea ez da pertsona, gizabanakoa, horren egintzak baizik, eta egintzen ondorioak.*

## Sortze pertsonaleko jarduerak

**Idatz ezazu kazetaritza arloko testu, albiste, editorial, zutabe eta horrelako bat, mutikoen egintza iruzkitzen edo kontatzen duena.**

*Nahierara erantzun.*

**Bila ezazu Interneten Oriol Plana eta Ricard Pinillaren historia. Iruzkindu klasean, aurkitu ahal izan duzuen materiala erabiliz.**

## Testuaren gaineko iruzkina

### Gazteak ongiaren eta gaizkiaren aitzinean

Ikasle anitzen mintzamolde lazgarri eta zenbaitetan lohiaren atzean segurtasun falta ikaragarria nabari da. Nerabeen helburua taldean, kidekoen artean, onartuak izatea izan ohi da. Horren kariatz, ahalegin guztia eginen dute, edozein modutan mintzatuko dira.

Sexuaz solasten dira, ikasketez, gurasoez, munduaz, ororen gainetik baleude bezala, guztiaz trufatuz. Ongia eta gaizkia... berdin zaie.

Pertsona heldu batzuek, nerabe horiei entzutean, esanen dute: "ez dituzte balioak kontuan hartzen" eta batez ere "ez dute balio moralik". Baina izan badituzte. Ongi dakite irakasle andreak barre egitea eta sufriaraztea gaizki dagoela. Badakite gurasoak, nerabeengan konfiantza guztia jartzen dutenak, engainatzea gaizki dagoela. Badakite ikaskide despistatu batez edo ikaskide inozo samar batez iseka egitea gaizki dagoela.

Nerabe horiek, Kohlbergen garapen moralaren eskalan (sei maila ditu) bigarrenaren, hots, talioiaren legea edo begia begi truk (nola hartzen nauzun horrela hartuko zaitut; beraz, kalterik egiten ez badidazu, nik ez dut zuri kalte egiteko eskubide-

rik) eta hirugarrenaren artean daude (besteen itzaropenei erantzutea), erantzukizun pertsonaleko aurreneko zantzuekin.

Balio moralak ez eta estetikoak ere, ez dira besteen bortsaz erdiesten. Balioak aurkitu egiten dira, altxor bat bezala. Pertsona nagusiek ez dizkiete balio horiek buruan txertatu behar gazteei; helduek berek egiaz bizi behar dituzte eta horrela lagunduko diete gazteei balio horiek aurkitzen.

Balio handiak mendez mendez aurkituz joan da Gizadia: justizia, adiskidetasuna, elkartasuna eta urrikimendua, erantzukizuna, zintzotasuna. Eta gutariko bakoitzak bere bizi laburra besterik ez du altxor horiek berraurkitzeko.

Honelako antzerki lanak, gogorrak badirudite ere, lagungarri izan daitezke helduen eta gazteen artean zinezko eta adiskidegiroko elkarrizketa sor dadin eta guztion artean balio moral handi horiek berriro aurki ditzagun. Kontura gaitzean guztiok ongia eta gaizkia izan badirela.

**Manuel Segura Morales**

Haurren eta gazteen arteko bizikidetzan aditua

## Jarduerak

**Testua gazteen balioei buruz ari da. Zein dira aipatzen dituen balioak?**

*Balioak orokorrean jorratzen ditu, Gizadiak ediren dituenak. Bereziki balio moral batzuk seinalatzen ditu hala nola justizia, adiskidetasuna, elkartasuna eta urrikimendua, erantzukizuna eta zintzotasuna.*

**Nola erdiesten dira balio horiek?**

*Balioak ez dira eskuratzen, aurkitu egiten dira bizitzan zehar. Alabaina, gurasoen eredia funtsezkoa da jokabide mota batzuk erdiesteko. Helduek ez dituzte inposizioz txertatu behar balio horiek, aitzitik, bizi behar dituzte eta horrela eredugarri izan gazteentzat.*

**Nork aurkitu ditu balio horiek?**

*Gizadiak, historian zehar.*

**Zerk du lehentasuna gazteentzat?**

*Gazteentzat lehentasuna du taldearen aldetik, beren kidekoen aldetik, onartuak izateak.*

**Ados zaude testuaren egilearekin? Inoiz pentsatu al duzu gai honetaz? Egin ezazue klasean testuaren edukia- ren gaineko debatea.**

*Nahierara erantzun.*



## Testuaren gaineko iruzkina

Estatu demokratiko eta zuzenbidezko batean bizitzean, guztiok gaude legearen mende, adingabeak barne, Adingabeen Erantzukizunari buruzko Legeak erantzule egiten baititu –bai eta haien gurasoak ere– Kode Penalean zehatzen diren egintzak eginez gero (ebasketak, lesioak, kalteak, etab.).

Aipatu araua aplikatzearen ondorioz, prozesu penal horren barnean sartutako adingabeak eskubidedun ere badira, eskubideen artean, besteak beste, prozedura osoan zehar abokatu baten laguntza izatea: hau da, defentsa izateko eskubidea errespetatzen da. Gure laguntza behar duten adingabeak maiz izan ohi dira atxilotuak grafitiak egiteagatik, atzerako ispiluak hausteagatik edo motorrak lizentziarik gabe gidatzeagatik, eta aurreneko aldiz atxilotzen dituztenean beldurrak hartuta eta segurtasunik gabe egoten dira, lege zigorraz gainera gurasoen gaitzespena izanen baitute. Kasu larriagoak ere badira, eta egileak, maiz, adingabe gatazkatsuak edo familia desegituratuetako umeak izaten dira; horiei buruz legeak zenbait helburu bete nahi ditu, adibidez eginda-

koaren erantzukizuna izan dezatela, irainduaren edo erasotuen lekuan jar daitezela, egindakoa zuzena ez dela aitortu dezatela, eta hori guztia oraingo honetan gertatu dena adin nagusitasunera iritsitakoan berriro gerta ez dadin, orduan zigor penalak anitzez larriagoak izanen baitira, espetxeratzea, adibidez.

Azken buruan, legearen xedea da adingabeei irakastea beren egintzen erantzule direla, beren libertatea mugatua ikus dezaketela eta gurasoen ondare ekonomikoa kaltetua, baldin eta lege oinarrikoena errespetatzen ez badute, hots, lege penala, besteen askatasun eta eskubideen errespetua defendatzen duena. Ezin daiteke bizi gizarteak ezarritako jokaera arauetatik at, gizarteak berak errespetaraziko baititu, onean ez bada, indarrean.

**M<sup>a</sup> del Carmen Díaz de Cerio Díez**  
Iruñeko Abokatuen Elkargo T.P.aren  
Adingabeen Lanaldiko koordinatzailea

## Jarduerak

**Ba al dakizu zer esan nahi duen “eskubidedun” hitzak? Testutik ondoriozta zenezake?**

*Testuaren arabera eskubideak eta betebeharrak dituen pertsona da eta, hortaz, bere egintzen ardura izan behar du eta erantzun behar die legearen aizinean. Era berean, sistemak eskaintzen dion lege-babesa izateko eskubidea du.*

**Zein da gazteen kezka nagusia aurre-**

**neko aldiz atxilotzen dituztenean?**

*Beldurra diote familiaren gaitzespenari. Haiak ezartzen ahal dizkieten errepresalia edo zigorrei, eta legezko ondorioei, hots, epaileak ezartzen ahal dizkien zigorrei.*

**Zein dira gazteek maizenik egiten dituzten delituak?**

*Deliturik usuenak dira grafitiak egitea, atzerako ispiluak haustea edo moto-*

*rrak lizentziarik gabe gidatzea.*

**Zein da, azken buruan, legearen helburua?**

*Gazteei irakastea beren egintzen erantzule direla eta delitu larriak eginez gero, libertatea kentzen ahal zaiela edo isuna jarri.*

**Zer defendatzen du lege penalak?**

*Gainerakoan libertatea eta eskubideak defendatzen ditu.*



# *Primeros Sanfermines*





## Izenburua

Neska batek, Martak, hamabost bat urte (DBHko 3. kurtsoa bukatu du), bere "lehenbiziko Sanferminak" nola pasatu dituen aipatzen du modu zuzen eta argian. Adin horretan izenburua adierazgarria da oso, eta kontatuko digu beretzat zer

izan diren "lehenbiziko" eta benetako Sanferminak. Izenburuak *lehenbiziko* zenbakizko determinatzailea gainerako eszenekin partekatzen du eta gaiaren aldetik ia antzerki lan osoaren edukia biltzen duen hitza da.

## Jarduerak

**Idatz ezazu eta konparatu nolakoak diren haur baten lehenbiziko Sanferminak, gazte batzuenak, hogeita hamar urte inguru dituztenenak, zure gurasoenak eta aiton-amona batzuenak.**

*Aldera daiteke institutura iritsi berri diren ikasleek nola bizi eta ikusten dituzten festak, eta DBHko 1. mailakoek, protagonistaren adinkideek, 3. eta 4. mailakoek eta, azkenik, ikasketak bukatzeaz dituztenek, Batxilergoko 2. mailako ikasleek.*

*Nahierara erantzun.*

**Aukera ezazu lehenbizikoak edo Sanferminak hitzak azaltzen ez dituen beste izenburu bat.**

*Nahierara erantzun.*

**Lot itzazu geziekin, adinaren, interesen eta gustuen arabera, bi zutabeak:**

*Talka autoak*

*Erraldoiak*

*eta buruhandiak*

GAZTEAK

*Prozesioa*

*Gau festak*

HAURRAK

*Antoniutti*

*Su artifizialak*

AITON-AMONAK

*Zezenak*

*Azoka txikiak*

HELDUAK

*Jarauta*

*Peñak*



## Laburpena

a) Marta, hamabost bat urteko neskatxa, Sanferminetako zuri-gorritz jantzia, orbanetz bete eta narras samar, bere gelan sartu da. Alai dago, zoriontsu eta irribarretsu. Ohean etzan da Sanferminetako abestiak ahopeka kantatuz. Festetako musuzapi gorria bere peluxe-zko panpinari jarri dio. Sakelako telefonoa hartu eta, bere buruaz seguru, zenbaki bat sakatu du.

b) Oihane, Saloun dagoen bere adiskide minarekin hitz egin du. Han dago, eta ez Iruñeko festetan, DBHko 3. mailako irakasgai batzuk gainditu ez dituelako. Harekin mintzo da neskatiko txiki batekin bezala eta halako nagusitasun plantak eginez. Adierazten dio nola lortu duen, gurasoekin negoziatuz, bi egunetan Sanferminetan gelditzea.

c) Hasi zaio kontaktzen zer egin duen uztailaren seian, goiz partean, nola gelditu diren neska guztiak Catachú ostatuan, osaba Paco, kalakariarekin, nola topo egin duen Sarasateko pasealekuan, urduri jarri dela ezpainak gorritz pintatuak zeramatzalako, baina ederki etorri zaiola berrogeita hamar euroko paga eman baitio. Gero, Maider lagunarekin Txapitela kaletik jaistean, lagunak botila puska batekin ebakia egin duela-eta sorospen etxera joan behar izan dute sendaketa egitera. Han bi alemaniar ezagutu dituzte eta haiekin arratsaldeko zazpietan egin dute hitzordua, Ahateen tokian.

d) Etxera doa bazkaltzera. Familian bazkaltzen dute. Osaba apeza ere hantxe da. Prozesioaz mintzo dira, San Ferminen kapatxoaz, santuaren kaperaz... baina neskak alemaniar haietako bat dauka gogoan, Markus, harekin amets egiten du, eta asmatzen ari da amaren baimena nola lortu gauean beranduago iristeko.

e) Bazkaldu ondoren eta etxetik ateratzean Maiderrekin elkartzeko, lagunaren mezua jaso du zigortua dagoela esanaz eta ezin izanen dutela bildu. Bakarrik gelditzean kikildu da, gainerako taldekideei izkintxo egin baitzieten. Hala eta guztiz ere, Ahateen

tokira bakar-bakarrik joateko erabakia hartu du, Markus alemanarekin elkartzera; baina norekin elkartuko eta bat ere ongi konpontzen ez den institutuko neska talde batekin. Markus ez da azaldu. Kezkatua eta lur jota gelditzen da. El Cachiruloren txosnara joan eta bi basokada ardo goxo edan ditu olatarekin, frustrazioa gainditu beharrez.

f) Une horretan topo egin du gogoko duen klaseko mutil batekin, Xabirekin. Txispatu samar dago. Jarautan zehar dabilta, Basotxoan, harat-honat, kalez kale giro onean. Hamaikak aldera, Su artifizialak baino lehentxeago, jendartean despistatu eta galdu dira. Marta, berriz ere, bakarrik gelditu da.

g) Suak hasi dira eta, bakarrik eta noraezean, Gazteluko ingurubidera doa. Han ediren du Markus, tseratsu oso, neska bat musukatzen. Su artifizialen eztanda baten distiran ikusi du neska hura bere adiskidea dela, Maider –zigortua zegoena–, eta ezagutu duela konturatzean esplikazioak ematen saiatuko da. Haserretzen da. Irainak jaurtikitzen dizkio eta, negarrez, etxe aldera bueltatzen da.

h) Orduan berriro egin du topo Xabirekin. Dantza egin dute. Arrunt pozik daude. Burua eta gorputza jirabiraka, batez ere Xabik, azkenean goiti egin du eta horrela hautsi da hurbil zegoen tono erromantikoa. Marta ziprztindu du.

i) Azkenean, etxerantz doa gaueko hamabiak aldera. Maiderren mezu bat jaso du biharamunean elkartzeko, goizeko hamarretan, entzierroaren ondoren. Oihanekin hitz egiten jarraitzen du telefonoz eta badirudi engainatu izana barkatuko diola Maiderri, baina alde aurretik barkamena eskatzen badio eta ez hurrengo ikasturteko lehenengo ebaluazioa baino lehen –adiskide bat, adiskide bat da–. Hitz egiten jarraitzen du sakelakotik, animoak eman dizkio estudiantu eta suspentsorik atera ez dezan, gero heldu diren Sanferminak elkarrekin ongi pasa ahal ditzaten, baina benetako Sanferminak.

## Jarduerak

**Ondorengo laburpena osorik dago, baina nahasirik. Ordena ezazu edukia-  
ren logikari jarraikiz:**

a) Suak hasi dira eta, bakarrik eta noraezean, Gazteluko ingurubidera doa. Han ediren du Markus, tseratsu oso, neska bat musukatzen. Su artifizialen eztanda baten distiran ikusi du neska hura bere adiskidea dela, Maider –zigortua zegoena–, eta ezagutu duela konturatzean esplikazioak ematen saiatuko da. Haserretzen da. Irainak jaurtikitzen dizkio eta, negarrez, etxe aldera bueltatzen da.

b) Etxera doa bazkaltzera. Familian bazkaltzen dute. Osaba apeza ere hantxe da. Prozesioaz mintzo dira, San Ferminen kapatxoaz, santuaren kaperaz... baina neskak alemaniar haietako bat dauka gogoan, Markus, harekin amets egiten du, eta asmatzen ari da amaren baimena nola lortu gauean beranduago iristeko.

c) Marta, hamabost urte inguruko neskatxa, Sanferminetako zuri-gorritz jantzia, orbanetz bete eta narras samar, bere gelan sartu da. Alai dago,

zoriontsu eta irribarretsu. Ohean etzan da Sanferminetako abestiak ahopeka kantatuz. Festetako musuzapi gorria bere peluxe-zko panpinari jarri dio. Sakelako telefonoa hartu eta, bere buruaz seguru, zenbaki bat sakatu du.

d) Hasi zaio kontaktzen zer egin duen uztailaren seian, goiz partean, nola gelditu diren neska guztiak Catachú ostatuan, osaba Paco, kalakariarekin, nola topo egin duen Sarasateko pasealekuan, urduri jarri dela ezpainak gorritz pintatuak zeramatzalako, baina



ederki etori zaiola berrogeita hamar euroko paga eman baitio. Gero, Maider lagunarekin Txapitela kaletik jaistean, lagunak botila puska batekin ebakia egin duela-eta sorospen etxera joan behar izan dute sendaketa egitera. Han bi alemaniar ezagutu dituzte eta haiekin arratsaldeko zazpietan egin dute hitzordua, Ahateen tokian.

e) Oihane, Saloun dagoen bere adiskide minarekin hitz egin du. Han dago, eta ez Iruñeko festetan, DBHko 3. mailako irakasgai batzuk gañditu ez dituelako. Harekin mintzo da neskatiko txiki batekin bezala eta halako nagusitasun plantak eginez. Adierazten dio nola lortu duen, gurasoekin negoziatuz, bi egunetan Sanferminetan gelditzea.

f) Azkenean, etxerantz doa gaueko hamabiak aldera. Maideren mezu bat jaso du biharamunean elkartzeko, goizeko hamarretan, entzierroaren ondoren. Oihanekin hitz egiten jarraitzen du telefonoz eta badirudi engainatu izana barkatuko diola Maideri, baina aldeztu aurretik barkamena eskatzen badio eta ez hurrengo ikasturteko lehenengo ebaluazioa baino lehen -adiskide bat, adiskide bat da-. Hitz egiten jarraitzen du sakelakotik, animoak eman dizkio estudiari eta suspentsorik atera ez dezan, gero heldu diren Sanferminak elkarrekin ongi pasa ahal ditzaten, baina benetako Sanferminak.

g) Orduan berriro egin du topo Xabirekin. Dantza egin dute. Arunt pozik dardate. Burua eta gorputza jirabiraka, batez ere Xabik, azkenean goiti egin du eta horrela hautsi da hurbil zegoen tonu erromantikoa. Marta ziprztindu du.

h) Bazkaldu ondoren eta etxetik ateratzean Maiderekin elkartzeko, lagunaren mezua jaso du zigortua dagoela esanaz eta ezin izanen dutela bildu. Bakarrik gelditzean kikildu da, gainerrako taldekideei izkintxo egin baitzieten. Hala eta guztiz ere, Ahateen tokian bakar-bakarrik joateko erabakia hartu du, Markus alemanarekin elkartzera; baina norekin elkartuko eta bat



ere ongi konpontzen ez den institutuko neska talde batekin. Markus ez da azaldu. Kezkatua eta lur jota gelditzen da. El Cachiruloren txosnara joan eta bi basokada ardo goxo edan ditu olatarekin, frustrazioa gañditu beharez.

i) Une horretan topo egin du gogoko duen klaseko mutil batekin, Xabirekin. Txispatu samar dago. Jarautan zehar dabilta, Basotxoan, harat-honat, kalez kale giro onean. Hamaikak aldera, Su artifizialak baino lehentxeago, jendartean despistatu eta galdu dira. Marta, berriz ere, bakarrik gelditu da. Ordena zuzena hauxe da: c, e, d, b, h, i, a, g, f.

#### Osatu testua hitz egokiak paratuz:

Hasi zaio kontatzen zer egin duen zutailaren seian, goiz partean, nola gelditu diren neska guztiak ..., ..., kalakariarekin, nola topo egin duen Sarasateko pasealekuan, urduri jarri dela ezpainak ... pintatuak zeramatzala harrapatu duelako, baina ederki etorri zaiola ... euroko paga eman baitio. Gero, ... lagunarekin Txapitela kaletik

jaistean, lagunak botila puska batekin ebakia egin duela-eta ... joan behar izan dute sendaketa egitera. Han bi ... ezagutu dituzte, alemaniarak, eta haiekin arratsaldeko ... egin dute hitzordua, Ahateen tokian.

Erantzuna: Cachu, osaba Paco, goriz, berrogeita hamar, Maider, Sorospen Etxera, atzeritarak edo giriak, zazpietan.

#### Idatz ezazu eszena bat oharpenak erabiliz eta hauetako aukera bat hautatuz:

a) Martak denboran eta espazioan Sanferminetan jarraitzen du. Nolako izanen da biharamuna?

b) Handik hilabete batzuetara, ikasturtea hastean, neska talde bat azken Sanferminez mintzo da.

c) Urtebete geroago, Marta txupinazo egunean Oihane adiskidearekin dago.

d) Marta eta Maider adiskidetu dira beren lagunaren aitzinean.

Jarduera honetarako lauzpabost ikasleak osatutako taldeak egin daitezke. Gero, talde bakoitzak antzezpen xume bat egin dezakete gelan.

# Gaia

Gaiari izenburu hau ezar dakiok: “Nerabe baten bizipenak Sanferminetan”.

Aldi berean, protagonistaren egintzekin loturiko azpigaiak sumatzen dira. Hauek adibidez:

Adiskidantzaren balioa (Maidera, Oihane eta bera)

Familia (gurasoekin negoziatzen du festetan ibiltzeko, beranduago iristea lortu nahi du...)

Alkohola (moskatela edan du frustratua sentitu denean, Xabik azkenean oka egin du)

Lagun taldea (neskak beren kasa doaz, bera alboratua-edo gelditzen da)

Ikasketak (suspentsoen baldintzapean dago Oihaneren uda).

“Ligeak” (Markusekin, Xabirekin).

## Jarduerak

**Garatu BAKARRIZKETEN lehiaketa bat, bereziki gaien adierazpen bakoitzeko hitz nabarmenei erreparatu:**

- Benetako Sanferminak.
- Nire lehenbiziko Sanferminak.
- Festak festak dira eta adiskide bat adiskide bat da.

**Aurki itzazu eta idatzi zein unetan islatzen diren honako azpigai hauek:**

- Adiskidantza:
- Alkohola:
- Familia:
- Lagun taldea:
- Ikasketak:
- “Ligeak”:

**Debatea: Hamabost urterekin, ba al da festak beste modu batera pasatzeko aukerarik?**

*Altruismoa eta besteen alde aritzea balioesteko gogoeta: boluntariotza, eriei laguntzea, Gurutze Gorria, ahalmen urriko pertsonen kanpaleketan laguntzea, haurrak, adinekoak zaintzea...*

**Protagonistarekin edo beste pertsonaiaren batekin bat egiten al duzu? Idatz ezazu testu labur bat.**

*Nahierara erantzun.*

**Ondorengo gaiaren adierazpenarekin loturiko esaldiak idatziko dituzu: “NERABE BATEN BIZIPENAK SANFERMINETAN”. Saia zaituz BIZIPENAK hitzarekin aditzak infinitiboan ager daitezkeen; SANFERMINETAN hitzarekin, sustantiboak, eta NERABEkin, adjektiboak: (testuan ageri diren egoerak behar dute izan).**

**BIZIPENAK: (infinitiboak)**

*Lagunekin gelditu, giri batzuekin ligatu, etxera berandu iritsi, moskatela edan, Basotxon galdu, suak ikusi, adiskide batekin haserretu, irrigarri gelditu, osabarekin topo egin, ezpainak gorri biziz pintatu, sakelako telefonoz adiskide hoberenarekin hitz egin, Jarautan zehar ibili, Xabirekin dantza egin, Sorospen Etxera joan, kalean txorabiatu, adiskideak gaitzetsi, jeloskor jarri...*

**SANFERMINAK: (substantiboak)**

*Barrakak, entzierroa, talka autoak, atzeritarrak, lagun taldea, alkohola, jeloskortasuna, adiskideak (neskak eta mutilak), tabernak, Ahateak, pozak, tristurak, iristeko ordua, paga, gurasoak, maitasuna...*

**NERABEA: (adjektiboak)**

*Ameslaria, tristea, jeloskorra, koketa, amorratua, maitekorra, adiskidetsua, maitabera, polita, laguna, jostakina, hiztuna, segurua, independentea, zintzoa...*

**Ahateen tokian bere burua bakarrik ikusteak sortarazten dion frustrazioa gaintu nahirik eta, gainera, institutuko jende mordo batek egotera horretan ikustean (hamabost urterekin gogorra baita), Martak bi gauza egin ditu: lehenik eta behin, alkoholera jo du, pare bat baso moskatel edan ditu barkilo batekin El Cachirulon, eta ondoren institutuko adiskide batekin topo egin du, Xabirekin, eta harekin igaro du arratsal-**

**dea. Horiek horrela, bi egintza horietan zer abantaila edo desabantaila sumatzen dituzu? (Debate bat antolatzeko aukera).**

*Nahierara (Adiskidetasuna, harreman pertsonalak, gatazkak eta frustrazioak gaintzeko elkarrizketa... balioesteko bideratua).*

**Adiskidantzaren jokoak. Seinala itzazu eszenan ageri diren edo bizitza errealean gerta daitezkeen ADISKIDANTZA mota desberdinak, horien protagonistak zein diren esanez.**

*Azaltzen ahal da mapa kontzeptual gisa edo modu grafikoago batean “ADISKIDANTZA” hitza irudizko lore baten korolan (erdian) kokatuz, eta petaloetan adiskidantza horren ezaugarriak; korola eta petaloak bat egiten duten tokian jar daitezke protagonistak. Horrela, adibidez (interpretazio bat izan daiteke):*

*ADISKIDANTZA egiazkoa: Marta eta Oihane.*

*ADISKIDANTZA interesekoa: Maidera eta Marta.*

*ADISKIDANTZA ikasgelakoa: Maidera eta Marta / DBHko 3.mailakoak.*

*ADISKIDANTZA lagunartekoa: Maidera, Marta, Marina, Itziar, Jenny...*

*ADISKIDANTZA interesatua: Markus eta haren adiskide alemaniarra.*

*ADISKIDANTZA konpainia egitekoa: Marta-Maidera, alemaniarak...*

*ADISKIDANTZA senitartekoa: lehengusuak, osaba-izebak...*

*ADISKIDANTZA?: Maidera eta Xabi.*

## Pertsonaiak

Eszenako pertsonaia nagusia Marta da. Historiaren protagonista. Haren solaskide nagusia Oihane, dirudienez, adiskide mina da eta harekin sakelako telefonoz mintzo da, ez baitago Iruñean, Saloun baizik. Hein batean aurkari du beste adiskidea, Maider: hark du traizionatzen, Markus alemaniarrekin engainatzen. Beraz, eszenak hiru pertsonaia nagusi ditu, Marta eta Maider, Iruñean daudenak, eta Oihane Saloun.

Bigarren plano batean, baina historian funtsezko pertsonaia hura ere, Xabi ageri da, 3.A mailako mutila. Hark animatzen ditu, berak uste ez arren, Martaren goibelaldiak. Ustekabean topo egin izanak neskari konfiantza eta segurtasuna sorrarazten dizkio. Gainera gustuko du. Hirugarren mailan beste pertsonaia batzuk azaltzen dira, aurrekoen garrantzirik ez dutenak, baina Martaren historia eta bizipenak finkatzen dituzte. Horrela, familiarekin zerikusia dutenak: gurasoak, osaba apezka, paga eman dion osaba Paco; institutuko ikaskideak: Elena, 3.C mailakoa, Marina, Edurne, Kristi shosholocoia, Yeni, Rosa (galtzak markatzen zaizkio), ttikia; eta guriak: bi alemaniarrek, Markus eta haren laguna, harresietan lo gelditu dena, zeharo mozkortuta. Bada hirugarren pertsonaia bat ere beste guztiak biltzen dituena, ia topografikoa, hots, hiriko "oihandia", edo hobe, ikaragarritzko jendetza, pertsonaiak harat-hunat eraman eta azkenean behin baino gehiagotan Marta eta Xabi elkarrengandik galarazi dituena.

### Pertsonaien analisisia

**MARTA**, pertsonaia nagusia. Testuan barna hirukoiztu egiten da: Marta Bat, Bi eta Hiru, agian, nortasun anitzekoa izanik, pairatzen dituen aldarte gorabeherak ulertu ahal izateko.

Horrela, bada, Marta Bat, dirudienez, otzanagoa eta xumeagoa da; berak hasi du elkarrizketa Oihanerekin, aitarekin negoziatzen du ("mesedez"). Bera da gurasoekin eta osaba apezarekin izandako bazkariaren familiarreko eszena kontatzen duena. Ez du segurantzarik bere buruaz, ez daki nola eskatu amari beranduago etxeratzen uzteko. Bera da Xabirekin topo egin duena, Jarautara doana, mutila gustuko duela kontatzen diguna. Azkenean haren gainean egiten du oka Xabik. Marta Bat da, halaber, gaueko hamabietan itzuli dena –horrela gurasoek ez diote deus esanen–. Azkenean berak ixten du ia eszena eta nahiko luke –horrela esaten dio– Oihane Iruñean egonen balitz berarekin hurrengo Sanferminetan.

Marta Bi ironikoa da ("*Salouko izozkitxoaren*" aipamena, Port Aventura eta Dragón Khan, literatik ez erortzearena...) eta ausarta, kontatzen dio txupinazoaren pasadizoa, bera Marta Sánchez ez dela, alemaniarrekin ligatzen duena dela. Bakarrik gelditu da, Xabigandik alden du, suak ikustera doa eta han Markus ikusi du beste neska batekin. Oihaneri kontatu dizkio Maiderrek jarritako aitzakiak. Ez da mendekuzalea eta

zera dio: "*Festak festak dira eta adiskide bat adiskide bat da*".

Marta Hiru punkeragoa eta hausleagoa da. Aho-zikina: "*Izorra hadi... Maider zerria... zeri puta... hoa popatik hartzera... kaka hire hildakoei*". Bera da osaba Pacorekin topo egin duena ezpainak gorritz pintatuta. Bi baso moskatel edan dituena. Bera ohartzen da Markusekin musuka ari den neska Maider dela: "*aleman zerria*", baina, Marta Bi bezalaxe, Xabirekin elkartzen da, dantza egin dute belarretan, badirudi Xabiz maitemintzen dela –berriz ere nahasten dira beren artean pertsonaiak, planoak, sentipenak, Marta Bi eta Marta Hiruren egintzak, hau da, adin horretako aldarte gorabeherak eta nahasturak–. Azken elkarrizketan, hiru Marta horiek gozatzen dute Sanferminetan, pertsonaia bakarrean biltzen dira: "*Viva San Fermín! Gora!*" Eta hondarreko oharpenean Martak, ameslari, bere pelutxea altxa eta Sanferminetako musika bere artean ahopeka kantatzen du.

**MAIDER** Martaren adiskidea da, eta harekin gelditu da txupinazora batera joateko. Badirudi biek iskintxo egin diotela lagun taldeari. Printzipioz adiskide gaizto eta traidorearen irudia ematen du. Sakelakotik mezu bat igorri dio esanaz ZGORTUA BIAR ART (botila puska batekin ebakia egin eta Sorospen Etxera joateagatik). Gezurra da, Markus alemanarekin engainatu delako. Martak ustekabean harrapatzen ditu biak ezti-ezti musuka elkarri, su artifizialekin. Aitzakiak jarri nahi ditu baina makurragoa da, Martaren haserrea areagotu besterik ez du egin.

**OIHANEK**, alderantziz, adiskide leiala dirudi, adiskide mina, eta Sanferminetako lehenbiziko egun horretako bizi-pen guztiak kontatzen dizkio Martak. Antza denez, ikastun kaskarra da, ez du kurtsoa gainditu, baina halaberean intuizio handikoa da, ohartu baita Markusekin zegoen neska Maider dela. Martak Oihanerekin egon nahi du eta gozatu heldu diren Sanferminak.

**XABI** DBHko 3. maila bukatu dutenen arteko mutil bat da. Atsegina dirudi: "*jatorragoa da...*". Bere lagun taldearekin doa. Galdu da eta Marta aurkitu du ustekabean. Maitekorra da. Zurrut egin du, animatu da eta dantzan hasten da. Alkoholak ez dio onik egiten, azkenean goitika hasi eta Marta zizprizintzen du. Xabirekin aurkitu du euskarri afektiboa Martak, bai bakarrik zegoenean Ahateen tokian, bai eta bere lagunak engainatu duela ohartzen denean ere. Dirudienez, Marta eta Xabi elkarren gustukoak dira.

**MARKUS**, mutil ederra da, giria, alemaniarra zehazki. Beste mutila, bere laguna, harresietan utzi du sekulako mozkorarekin eta besterik gabe Maiderrekin liatzen da. Mutil polita da eta atsegina, "*begitxo urdin*", "*Backstreet boys taldekoa baino moñoñoagoa*", baina gero, traizionatua sentitzean, Martaren ikuspegitik aldatu da eta jada itsusi bilakatu da, "*egundoko sudurtzara, enborrak txipitzeko modukoa*" eta izena bera ere, "*MAR-KUS, furgoneta batena bezalakoa*".

## Jarduerak

**Egin ezazue DEBATE bat, Mainer, Marta eta Oihaneren egintzak aztertzeko.**

*Zer deritzozu Markusek bere laguna mozkortuta harriesietan bertan behera uzteari? Idatz ezazu testu labur bat. Erantzun librea, egintza horrek izan ditzakeen ondorio txarren gainean gogoeta egiteko baliagarria.*

**Bada protagonista gisa ager daitekeen pertsonaiaren bat? Eta antagonista gisa? Zergatik?**

*Erantzuna aitzineko azalpenean.*

**Eszenako pertsonaiaren batekin bat egiten al duzu?**

*Nahierara erantzun.*

**Adierazi eszenako pertsonaia positiboak eta negatiboak. Egin horien azalpena.**

*Positiboak: Oihane eta Marta.*

*Negatiboak: Mainer eta Markus.*

**Zertan dira antzekoak eta zertan desberdinak Marta eta Mainer?**

*Biei gustatzen zaie festa, adinagatik interes berberak dituzte; Mainerrek Marta engainatu du, baina hau guztiz gardena da Xabirekin eta Oihanerekin.*

**Lot ezazu pertsonaia bakoitza adierazten diren ezaugarriekin:**

- |           |                         |
|-----------|-------------------------|
| 1. Marta  | a. Norberekoia          |
| 2. Mainer | b. Interesatua          |
| 3. Xabi   | c. Alaia                |
| 4. Oihane | d. Erremindua           |
| 5. Markus | e. Ameslaria            |
|           | f. Limurtzailea         |
|           | g. Atsegina             |
|           | h. Umea                 |
|           | i. Elkarriketara irekia |

*E: 1 c, d, e, i / 2 a, b, c / 3 c, f, g / 4 i / 5 a, b, f*

**Bila itzazu eszenako pertsonaien izenak:**

P T K R A O Z L P A S M  
E V J M F L L S O S P A  
T X M A R K U S N C H I  
R Ñ T R Q L T I H T N D  
E X V T A J O I H A N E  
O I B A X P Y U D G K R

P T K R A O Z L P A S M  
E V J **M** F L L S O S P A  
T X **M A R K U S** N C H I  
R Ñ T **R** Q L T I H T N D  
E X V T A J **O I H A N E**  
O I B A X P Y U D G K R

## Gogoeta jarduerak

**Hitz egin ezazue taldeka eta ondoren egin debate bat Marta eta Mainerren arteko harremanen inguruan, egintza hauetan arreta berezia ipiniz:**

**Mainerrek Markus dela eta ez dela, Marta adiskidea engainatu du.**

**Martaren esaldia da: "Festak festak dira eta adiskide bat adiskide bat da"**

*Adiskidetzeari, barkazioari eta adiskidetasunaren balioari buruzko gogoeta.*



## Testuaren gaineko iruzkina

### Hartu behar ditugun erabakiak

Gazte izatea da ezin konta ahala erabaki hartzeko irekia egotea. Erabakitzea zer egin nahi duzun, zer ez, norekin egon, zertara bideratu zure denbora, zer komeni zaizun... Gazte izatea da burua erabiltzea bizitza topera gozatzeko, segundu bakoitza eta esperientzia bakoitza aprobetxatzeko, aitzinean bizitzeko denbora guztia izanik ere.

Mundu korapilatsua bizi dugu: kontsumoko gizartea deitzen duguna. Guztiok, nagusienetatik hasita, bizi gara berehala ase beharreko kontsumoarekin, gogobetetze eta plazerrarekin, eta esfortzurik txikiena egitearekin zerikusia duten balioez inguratuak. Testuinguru horretan gertatzen dira honelako fenomenoak: gehiegizko kontsumoa, hedonismoa, frustrazioarekiko tolerantzia txikia, edo substantzia batzuk hartzea, ihesbide bizkorreko jokabide gisa. Horietako anitzek aski zoritxarreko egiten gaituzte azkenean, edo, gutxienez, ongi egoten ez digute laguntzen.

Gazte zarelarik, une egokia da zer egin nahi duzun, zer izan nahi duzun zeure buruari galdetzeko. Eta une egokia burua behar den bezala erabiltzeko erabakiak hartu behar direnean eta erabaki horiek –txikiak nahiz handiak– gauzatzeko orduan. Ja-

kin behar duzu zer irabazten eta zer galtzen duzun hartzen duzun hautabide bakoitzeko, horretarako balioetsi behar dituzu, ahalik eta zorrotzen, gerta daitezkeen irabaziak eta galerak. Izan ere, gure erabaki guztietan, txikiak izanik ere, geure gain hartzen ditugu izan daitezkeen galerak eta irabaziak. Irudizko balantza batean haztatu behar duzu, gauza bat edo bestea erabakitzen duzunean, horietan zein nagusituko den. Horren ondoren, nor bere buruarekin zintzo izatea besterik ez da gelditzen eta burua erabiltzea, aukera egokia hautatuz, kasu bakoitzean irabazien platerak galerenak baino pisu handiagoa izan dezan.

Eta, drogez mintzo garelarik, arestian adierazitakoaren zehaztapen bat dela iruditzen zait. Kontua da nor bere buruarekin zintzo jokatzea, aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak balioestea, eta horren ondorioz erabakitzea. Suhartasunik eta ideologiarik gabe, ene bizitza eta ene inguruabarrak soilik neure balantzan.

**Alfonso Arteaga Olleta**  
SUSPERTU programa

## Jarduerak

Irakurri arretaz Alfonso Arteagaren “Hartu behar ditugun erabakiak” izeneko testua eta egin ondorengo jarduerak:

Egin ezazu testuaren laburpentxo bat, eta aipatu deigarri gertatu zaizkizun gaia eta ideiak.

Testuaren arabera, zer lotura ikusten da “kontsumoko gizartearen” eta “esfortzurik txikiaren” artean? Zein ondorio etor daitezke lotura horretatik? Ados zaude?

Testuaren une batzuetan “zintzo izatea nor bere buruarekin” aipatzen da. Zein da zure interpretazioa? Zeri buruz ari da?

Zure adinean, zein erabaki hartu behar izan dituzu? Zer irabazi zenuen eta zer galdu haiek hartzean? Egin ezazue debate bat klasean.

Zein da egilearen iritzia drogei buruz? Bere jarrera argi erakutsi du? Talde txikietan haren ikuspuntuaz hitz egin ezazue eta zuen iritzia azaldu.





# *Primer recreo sin bocata*







## Izenburua

Eszena honen izenburua irakurtzen denean, gero aurkituko dugunarekin inolako ikustekorik ez duen zerbaitetaz arituko dela uste dugu. Delako eszena horretan zigorra jartzeko proposamena egiten dela dirudi: esate baterako, irakasle batek ikasle bati edo gehiagori jolas ordurik gabeko eta, beraz, bokatarik gabeko zigorra ezarri die, gaizki portatu direlako. Bokata hitz kolokiala izateak eszena lasai batean pentsarazten du edo eszenaren tratamendu lasai batean bederen. Baina ez da egia, ezta hurrik eman ere. Irakurlea eta/edo ikuslea, eszenan barna, aurretiaz bururatu ere ez zitzaizkion gai eta sentimen batzuetan murgilduz joanen da. Izenburua, hortaz, nahita da anbigua, egoera anitz bildu ditzakeelako, guztiak aurrez ikusteko modukoak, eskaintzen zaiguna baino askozaz ere nabarmenago.

Beste alde batetik, ikusleak ez du eszenaren bukaera arte izenburu honen esanahia asmatuko: une horretan, ikasle talde batek ekintza terrorista batean norbait hiltzen duten bakoitzean gordetzen diren isiltasuneko bost minutuak gogoratzen ditu. Tentsiogune horiek dira izenburuan aipatzen direnak, ikasleak eta irakasleak ezinean, elkarri beha.

Egiaz, ogitartekoa janen dugu, bai, jolas orduak minutu anitz baititu oraindik, hortaz esan liteke izenburua hiperbolikoa edo metaforikoa gertatzen dela. Agian, egun horretan bokatak beste gustu bat izan lezake edo bere burua desberdin senti lezake ohi baino bost minutu geroago jatea erabaki duenak.

## Jarduerak

**Eszenaren izenburua irakurtzean, horren edukia zertaz izanen zela uste zenuen?**

*Nahierara*

**Zer dela-eta eszena horren izenburua?**

*Aipatzen duelako zein den batzuetan ikasleak eta irakasleak jolas ordua hasi bezain laster gosaltzen ez hastearen*

*arrazoia: ekintza terrorista batean burututako hilketa.*

**Egokia iruditzen zaizu izenburua? Arrazoitu zeure erantzuna.**

*Nahierara.*

**Asma itzazu beste izenburu batzuk eszena honetarako eta arrazoitu hautatutako guztiak.**

*Nahierara.*

**Zein motatako hitza da bokata eta zein erregistrotakoa da? Egokia iruditzen zaizu testuinguru honetan?**

*Gaszte eta ikasleen hizkerako kolokialismo bat da. Erabat egokia da gauden testuinguru honetan, eskola giroan eta bigarren hezkuntzako ikastetxe batean.*

## Laburpena

Batxilergoko bigarren mailako ikasle talde bat ikasgela batean dago eta guztien artean Mamen gogoratzen dute, aurreko ikasturtean berekin izan zuten ikaskidea eta halako batean ezustean desagertu zena, iritsi zenean bezalaxe... Mamen polita zen, barnekoia, langilea, buru argikoa, serioa, sakona... Denbora laburrean guztien mirespena sorrarazi zuen, nahiz eta bakoitzak modu desberdinean adierazi. Mamenek badirudi ez duela konfiantzarik inorengan, eta mutilak ari dira haren sekretuak imaginatzen. Alde egin ondoren eta kurtsoaren hasieran, ikaskide izandakoek prentsan irakurri dute Mamenen aita hil dutela, terroristen atentatu batean. Une horretan ulertzen dute indarkeriaren kontra azaltzearen egiazko esanahia, izan ere, Mamenek berak esana, bizitza honetan, inportanteena bizia da.

## Jarduerak

**Laburbildu testua hamabi lerrotan gehienez ere.**

*Ikus laburpena.*

## Gaiak

**TERRORISMOA.** Gai nagusia da. Pittinka-pittinka azalduz doa: Mamenen seriotasuna, izaera barnekoia, non bizi den ezkutatatu nahia, kristal tindatuekiko auto beltzean sartzen ikusi zutenekoa. Amaieran islatzen da modurik adierazgarrienean: jakin dugu Mamenen aita kalean hil dela era bortitzean (egunkariko argazkian ikusten den mulko hori, maindre zuri batez estalia). Azken eszena horrek –ikasleak ogitartekoa eskutan dutela, Aitorrek institutuko atean beste batzuetan begietsi duen eszena hori gogorarazten duen bitartean– eramaten gaitu gai errealer, Mamenen aitaren heriotza eragin duenera: bizia eten dion terroristen ekintza bat.

**AUTOMARGINAZIOA.** Gai hau kasu honetan aurrekoarekin loturik dago. Mamenek ez du beste kideekin harreman irekirik, ez du konfiantzarik haiengan, ezin die esan non bizi den ere. Mamenen eta haren familiaren beldurra susmatzen da, beren burua babestu beharra. Mamenen etorrera eta irteera bat-batekoak izan dira, beharbada mehatxuen eraginez.

**ADISKIDANTZA.** Adiera desberdinak ditu. Taldeko ikasleak beren artean ongi konpontzen direla dirudi. Horietako bakoitzak badu

taldeak onartzen duen eginkizunen bat eta badaki zer espero duten berataz (txantxa, ateraldia, barregarrikeria, nesken mirespina). Guztiak dira adiskideak, hitzaren adiera zabalenean.

Mamenek adiskidantza beste alderdi batzuetan oinarritzen du, den bezala onartua eta errespetatua izatean, berataz arduratzen direnen eguneroko bizitzako txikikerietan, norbaiten estimuaz ohartarazten dioten xehetasun txiki horietan. Horregatik Amaia adiskidetzat dauka. Hitz gutxi behar ditu Mamenek –barnekoia izanik eta sekretuak eduki arren– Amaiaren maitasuna sumatzeko, eta opari horren ordaina ematen dio adiskide deitzean.

**KONTZIENTZIA HARTZEA ETA HELDUTASUNA.** Protagonista izan behar dugu eta ez ikusle soil bizitza honetan, Mamenek Aitorri esaten dion bezala. Gertaera baten aitzinean jakin behar dugu noiz eta nola erantzun, inoren esanaren esperoan gelditu gabe; izan ere, Mamenek dioen bezala, bizitza honetan, garrantzia duen bakarra bizia da eta erailketa baten baskeriaren aitzinean ezin onartuzkoa da ikusle soil izatea edo albora behatzea, edo ogitartekoa lasai jatea.



## Jarduerak

**Zure ustez, zein da eszena honetakogai nagusia? Zertan jarri duzu arreta hori hautemateko?**

*Terrorismoa da eta horren ondorioak pertsonengan (barnekoitasuna, konfiantzarik eza, beldurra, segurtasunik eza, bakardadea). Gai azken aldera islatzen da erarik argiengan, isiltasun minutuen antzezpenean, ogitartekoa eskutan, Amaiak egunkariko argazkia deskribatu ondoren, zeinean Mamenen aita ageri baita hilik, maindire batean bildua. Amaiera honek une batzuk berriz irakurtzera behartzen du, agian lehen ulertu gabe gelditu eta orain argitzen direnak.*

**Zure ustez, Mamen zergatik iritsi da institutura ikasturtea hasi ondoren eta zergatik alde egin du bukatu aitzin?**

*Arrazoia izan daiteke aita hiri batetik edo destino batetik beste batera aldatu izana, edo, agian, alaba ikastetxetzaldatzea; baina, beti ere, etengabe mehatxatuta dagoen segurtasuna biltzarekin lotuta.*

**Zein izan da Mamenen erreakzioa Amaiak non bizi den galdetu dionean? Erreakzioa espero izatekoa dela iruditzen zaizu?**

*Itxura batean logikarik gabeko erreakzioa dirudi. Mamen erne jarri da eta beste galdera batekin erantzun dio. Antzezpenaren edo irakurketaren une horretan ez da oso ulergarria, baina zerbait susmarazten digu, ikaskide berek egiten duten bezala. Baina azkenean iritsi gara Mamen ulertzera, haren defendatu nahia eta beldurrak.*

**Nola sentituko dela uste duzu neska bat, adiskidetzat daukan bati non bizi den ere ezin badio esan? Jarri zaitzez haren lekuan eta esan nola sentituko zinatekeen?**

*Nahierara erantzun.*

**Azter ezazu Mamenek Filosofiako irakaslearen galderari emandako erantzuna: bizitza honetan garrantzizkoena bizia bera da eta alderatu haren ikaskideen erantzunekin.**

*Adin horretako neska baten erantzuna harrigarria da eta, Mamenek egiten eta esaten duen guztia bezala, azkenean nabarmen eta argi eta garbi gelditu da. Bere bizia eta, batez ere, aitarena beti arriskutan ikusten du. Zer garrantzia du gainerako guztiak? Bizitzarik gabe ez dago deus eta horregatik neska horrentzat ikaskideek esan dezaketena hain da bigarren mailakoa eta azalekoa lotsa eta guzti ematen diola. Mamenek etxera eraman ditzakeen eta beren gauzak elkarrekin parteka ditzaketen adiskideak ez ditu izaten ahal; aita mehatxatuta dago eta azkenik hil egin dute, familiako parte bat da, eta zer axola du osasunak bat bizirik ez badago edo biharamunean bizirik ez egoteko beldurrez badago? Eta hau guztia, erantzun serioenak edo munta handikoenak bakarrik aztertuz.*

**Zure iritziz, zergatik harritzen da Amaia Mamenek adiskidetzat hartu izanagatik?**

*Ikasleak horren inguruko iritzia eman dezake, adin horretan adiskidantzaz izan ohi den ikuspuntutik. Eszenan esaten da Mamenek ez zuela inorekin hitz egiten, ez zuela apunterik eskatzen, adiskidantzarekin lotzen ohi dugun harremanik ere ez zuela.*

**Zer da adiskidantza Mamenentzat? Besteentzat bezalakoa izan daitekeela uste duzu?**

*Arreta, txera eta errespetuzko edozein zantzu txiki sentitzea da. Adiskidantza kontzeptua ez du, noski, besteek bezala ikusten; gauza franko ezin du besteekin partekatu, besteek inolako arazorik gabe egiten duten bitartean (isilman-*

*datuak, etxeko lanak egiteko etxe bat, historia), alabaina, bere bizitzaren ikuspegitik eta bere bakardadean, xehetasun eta sentiberatasunak balioesten ditu, gainerako ikaskideei oharkabean pasatzen zaizkien edo haiek garrantzirik ematen ez dieten bitartean..*

**Zer istorio asmatzen dituzte ikaskideek Mamenen barnekoitasuna begietsiz? Zergatik uste duzu asmatzen ditzutela istorio horiek?**

*Hasieran pentsatzen dute gurasoak dibortziatuak daudela edo aitak amari edo Mamen berari tratu txarrak ematen dizkiela. Auto blindatu batera igozten ikusi dutenean, aita droga trafikatzaila dela pentsatu dute. Azkenik, gauetik goizera desagertzen denean, susmoa da haurdun egon daitekeela. Bigarren erantzuna librea da. Ikusten dena da egiazko errealitatea izan ezik beste guztia susmatzen dela. Zergatik? Honek debate oso konplexurako bidea eman dezake.*

a) Barneko arrazoiengatik. Eszenaren ustekabekoa bukatuko zen, horren azken zirara.

b) Arrazoi psiko-sozialengatik. Nola ikusten dute gure ingurunekeo nerabeek ETaren terrorismoa?

**Zer aldatu da Mamenen ikaskide ohien baitan aita hil dutela jakitean?**

*Bizitzaren ikuspuntua, bizitzaren balioen hautematea aldatu da. Orduan ulertzen dute Mamenek Filosofia irakaslearen galderari eman zion erantzuna eta ulertzen dituzte Mamenen isiluneak, eta bat-batean kontzientzia hartu dute hurbileko errealitate batez, lehen horretaz behin ere pentsatu ez badute edo pentsatu nahi izan ez badute ere. Une horretan ulergarri egiten zaie batzuetan institutuaren atarian ikusi izan duten eszena, ordura arte beren bizitzetatik hain urrun jo bazuten ere.*

## Laguntza testua

Lehendabizi juduak eraman zituzten,  
eta nik ez nuen txintik ere esan, ez bainintzen judua.  
Ondoren komunistak eraman zituzten,  
eta nik ez nuen txintik ere esan, ez bainintzen komunistak.  
Gero langileak eraman zituzten,  
eta ez nuen txintik ere esan, ez bainintzen langilea.  
Gero intelektualak eraman zituzten,  
eta ez nuen txintik ere esan, ez bainintzen intelektuala.  
Jarraian apezak eraman zituzten,  
eta ez nuen txintik ere esan, ez bainintzen apeza.  
Orain nire bila datoz  
baina dagoeneko beranduegi da.

**Bertolt Brecht**

**Eszenarekin lotuz egin ezazu iruzkina testu honen formaz eta edukiaz.**

*Testua errepikakorra da eta horrela islatu da paralelismoen bidez, zeinetan antzeko egoerak aurkezten baitira denboran zehar aitzina egiten dutenak: ez dakigu nork ezta nola ere, erraz antzematen bazaie ere: eramaten ari dira pertsonak, gizatalde sozial edo politikoak (juduak, komunistak, langileak, intelektualak, apezak). Denboraren aurreratzea esaldi bakoitzaren hasieran adierazten da. **Eraman** aditza, beti pluralean, hasieran indarkeriarik inplikatzeko ez badu ere, aldiz, borondatezkoa ez den egitate bat adierazten du, aurpegirik ez eta izenik ere (sentimen propiorik gabe) erakusten ez duen talde batek beste pertsona batzuegan eragiten duena.*

*Nik izenordainak ordezkatzeko duen gizabanakoak bere artan deus egin gabe begietsi du eszena eta horrela egiten badu berari axola ez diolako da (behin eta berriz **ez nuen txintik ere esan** esaldiak ideia hori azpimarratzen du). Baina, bat-batean orainaldira itzuli gara, **orain**, eta horrek bai duela eragina, bera izanzen baita hurrengo biktima. Giza banakoak besteengatik deus egin ez duen bezala, baina junta gailuak adieraziko digu oraingoan ere ez duela deus egiten; baina ez nahi ez duelako edo inporta ez zaiolako, egoerak gaina hartu diolako erabat eta orain deus egiterik ez duelako.*

*Testua argi eta garbi aplikatu dakioke kontzientziazte gaiari. Ezin naiteke esperoan egon, deus egiteke, erasoak, indarkeria, nire aurkakoak izan arte. Ezin dezaket albora behatu, niri ez dagokidalakoan. Eta galdera egitera behartzen nau, zer egin dezaket egitate horiei buruz?*

*Bistan da testu hau maila hagitz desberdinetan lantzen ahal dela. Baina eszenan gertatzen denaren eta kontzientzia hartzearen lotura edozein ziklotan ikus daiteke.*

## Ikastetxeko eguneroko bizitzan aplikatzea

**Zer egin beharko zenuke ikaskide bati beste ikaskide indartsuago edo erasokorrago bat etengabe oldartzen zaiola ikustean? Nola jokatu beharko zenuke taldearen elkarbizitzarako kaltegarria iruditzen zaizun egitate baten aitzinean? Ikusten baduzu une batean, ikastetxean edo ikasgelan, ongi ez dagoen zerbait (baten batek beste batzuei gauzak ebasten edo hausten dizkiela), zein izan beharko litzateke zure jokabidea? Badago alderik egin behar duzunaren eta egiten zenukeenaren artean? Adieraz ezazu baiezkoaren edo ezezkoaren zergatia.**

*Erantzun libreak eta ikasleari gogoeta eginarazteko debate bat eratzera bideratuak.*



## Pertsonaiak

**MAMEN.** Pertsonaiarik bakoiztuena da, agian nabarmen bakoizturiko bakarra. Baina, paradoxikoki ez da eszenan ageri. Besteek gogoratzen dute, are gehiago, hark esandakoak hitzez hitz errepikatuko dituzte. Eszenarik ez legoke Mamen gabe, baina bera ez dago.

Mamen serioa da, isila, zentzuduna, ikasizalea. Ematen du ez duela inolako harremanik nahi inorekin, ez du inoren onespenerik behar. Hasieran pertsona harroa, buruiritzia irudi lezake, besteen gaineratik sentitzen dena eta inorekin deus jakin nahi ez duena. Gero jakin dugu sekretu bat gordetzen zuela: ezin du inorekin konfiantzarik eduki, seguru aski beldurak inguratua hazi da eta arreta handiz ibili behar du bere bizia eta familiarena jokoan dagoelako. Horregatik da Mamen den bezalakoa. Azaleko gauzak ez zaizkio axola, ez balira bezalaxe. Azken buruan, Mamen pertsona sakona da, oso heldua bere adinerako. Oso urrun dago gainerako ikaskideengandik eta haiengan eragin positiboa du, ikusarazi baitie lehen inoiz ere ikusi ez zuten errealitatea.

Beste ikasleak talde gisa ageri dira. Batzuk nolabait bakoiztuak badaude ere, oro har, franko ezagunak egiten diren pertsonak dira, taldean beren rola dutenak.

**AMAIA.** Neskak serioa dirudi, lotsati samarra, ikasizalea. Bixia da gaizki esanak nola zuzentzen dizkion Juleni (esaten da eseri zedila). Mamen miresten du lehenbiziko unetik eta harengana hurbiltzen saiatzen da. Agian haren tristura eta barkadatea sumatu du. Ikaskide zintzoa dirudi. Une batzuetan leuntasun handiz zuzentzen zaio (bere hiztegia eskaintzen dio Mameri ikusten duenean ez duela; Mamenek non bizi den esaten ez diolako eta etxerantz laguntzea ere nahi ez duelako harritzen bada ere, horregatik harekin ongi portatzen segitzen du). Narratzaile nagusiaren eginkizuna betetzen du.

**AITOR.** Aitorrek ere narratzailearena egiten du. Dakigunez, klaseko arrarotxoa dela uste du berak, betaurrekoak ditu. Ez du nesken arreta erakartzen, Richik ez bezala; alderantziz baizik, taldean ez dute batere ongi hartzen. Horixe da, hain zuzen, Mamen nolabait Aitorrekin bat egiteko arrazoia, hurbildu eta txunditua utzi duen esaldia jaurtikitzen dio (zuk dagoeneko hautatu duzu zeure bizitzako protagonista izatea, beste horiek berearen ikusle besterik ez dira). Hondarrean terrorismoaren kontra manifestatzeak duen zentzuaz gogoeta egiten duen pertsonaia da, gogoeta horretan bere heldutasuna eta kontzientzia zioa erakutsiz.

**BESTE PERTSONAIA BATZUK.** Gainerako pertsonaiak ez daude horren bakoiztuak eta ezaugarriren bat izanen dute, berehala ezagutzeko modukoa: **Julen**ek sexuaz obsesionatua dagoela ematen du edo burutik kendu ezinik dabilela (ze ipurdia duen, tamalez nigandik urrunxko eseri zen). Ez du oso buru argikoa ematen, hitz egiteko moduari erreparatu gero. **Richi** klaseko ligatzailea da. Neska guztiak erotuta ditu, horregatik harrিতa daude Mamenek kasurik egiten ez diolako. **Julia** irudimentsuena da, ameslariena. Istorio beldurgarriak asmatzen ditu Mamenen sekretuei erantzuna eman nahian (aitak amari tratu txarrak ematen, aita narkotrafikatzailea, bera haurdun), beharbada telebista gehiegi ikusten du. **Luis** bere ateraldi zorrotzengatik nabarmentzen da, Juliarren aieruak desmuntatzen baititu. **Ana** gutxitan azaltzen da.

Kontuan hartzekoa da Mamenen historia gogoratzean, Aitorren eta Anaren rola betetzen dituzten antzezleak une batzuetan filosofiako irakasle eta tutore bihurtzen direla. Horrela antzerki-jokoa azpimarratu nahi da, bai eta Mamenen lagunik gertukoena inplikatu zireneko historia baten gogorapen korralaren eta intimistaren izaera ere.



## Jarduerak

**Zein da zure ustez eszena honetako pertsonaia nagusia? Arrazoitu zeure erantzuna.**

*Hasieran erantzun librea litzateke. Eszena korala da, antzerki lan honetako beste batzuk bezala, eta bertan bakoitzak bere rola betetzen du. Alabaina, gako-pertsonaia Mamen da; eszenan ez da ageri, baina dena bere inguruan dabil. Hura gabe ez legoke historiarik. Kontakizunaren arloa begietsiz gero, funtsezkoena Amaiak eta Aitorrek kontatzen dute. Horiek izan baitziren Mamenengandik gertuen, adiskidantza mailan: lehenbizikoak miresten du eta leunki eta maitekiro hurbiltzen zaio. Mamen bigarrenarekin identifikaturik sentitzen da, bera bezala isolatu sa-*

*mar baitago klaseko gainerakoetatik, diferentea delako. Aitorrek, gainera, garrantzi dramatiko berezia hartuko du eszenaren bukaeran. Agian, bere desberdintasuna dela-eta egokitu zaio azken gogoeta egitea.*

**Zein iruditzen zaizu antzerki laneko pertsonaiarik helduena? Eta funsgabeena? Arrazoitu erantzuna.**

*Mamen salbuetsiz, lehenengo galderarako Amaiaren eta Aitorren artean hautatu beharko genuke, adierazitako arrazoiengatik: Amaiaren aldetik, seriotasuna, nahitasuna izateko ahalmena, adin horretan itxaro daitekeen erantzunik izan ez badu ere, eta intuizioa. Aitorren aldetik, gogoeta egiteko, aztertze, egitateak berrikusteko ahalmena. Funsgabe-*

*ena hautatzeko orduan, zalantzak izan genituzke kuxkuxeroaren, ligatzailearen eta zirtolariaren artean.*

**Lot itzazu eszenan ageri diren pertsonaiak jarraian seinalatzen diren tasun eta jarrerekin:**

<b>zirtolaria</b>	<b>Ritxi</b>
<b>ameslaria</b>	<b>Julia</b>
<b>ligatzailea</b>	<b>Amaia</b>
<b>gogoetazalea</b>	<b>Julen</b>
<b>sexuaz obsesionatua</b>	<b>Iker</b>
<b>txeratsua</b>	<b>Aitor</b>

*Ritxi-ligatzailea  
Julia-ameslaria.  
Amaia-berxatsua.  
Julen-sexuaz obsesionatua.  
Iker-zirtolaria.  
Aitor-gogoetazalea.*

## Sortze jarduerak

**Ageri diren alderdi guztiak konbinatuz eta koherenteak izan daitezkeen beste batzuk asmatuz, egin ezazu Mamenen deskripzio pertsonal bat. Imagina dezakezu hura ezagutu zuten ikasleen taldeko kide bat zarela.**

**Kasu berean jarriz, erantsi beste oroitzapen bat, honela hasten dena: Egun batez, jolas orduan ateratzean.**

**Adieraz ezazu zer sentitzen duzun institutuko atarian manifestazio bat**

**ikusten duzunean. Saia zaitez nola ikusten duzun azaltzen, parte hartzen baduzu eta ez baduzu.**

**Imagina ezazu antzerki eszenaren bat edo kontakizun labur bat, zeinean Mamen institututik etxera iritsi eta eguneko gorabeherak kontatzen dizkien gurasoei. Aukera dezakezu eszenan islatutako egun horietako bat (Amaiak etxera lagundu nahi izan zion eguna, Mamen defentsiban jarri zene-**

**koa. Filosofiako klasearen ondorengo hura, bizitzan den garrantzitsuenaz hitz egin zutenekoa. Institutura –hara behin ere ez itzultzeko– joan zeneko azken eguna).**

**Imagina ezazu Mamenek eguneko bat duela eta lehen pertsonan idazten duela, pertsonaiaren tokian jarriz, idatz ezazu Mamenek zer idatz lezakeen aitaren erailketari buruz.**



## Testuaren gaineko iruzkina

Familia da errespetuaren aurreneko hezitzailea, baina ez da bat ere erraza, familia patriarkalarekin sobera loturiko jarrera delako, zeina begirunezko errespetuan oinarritzen baitzen. Gero, erreakzio gisa kontrako ideia bat hedatuz joan zen, gurasoak eta seme-alabak lagun bilakatzearena, baina hori ez zetorren bat errespetuarekin. Inportanteena da errespetua ez beldurrarekin baizik maitasunarekin lotzea. Balioen kulturaz mintzo gara.

Balioen kultura hau da hezkuntzaren muina. Zer da eskolan egin nahi duguna, gure ikasleek edertasun oro, on oro, egia oro, ekimen prestu guztiak eta gizakiek burutu nahi izan dituzten jarduera paregabeak balioets ditzaten ahalegintzea ez bada?

Gizarte osoak sustatu behar du errespetagarria den oro-

renganako errespetua. Bizitza sozialerako eta politikorako oinarrizko erakundeek errespetu publikoa berreskuratzeko kanpainari ekin beharko diote, larriki hondatua baitago. Mesfidantzaz edo erdeinuz ikusten dira politikoak, epaileak, komunikabideak, finantzariak, elizak... Ezin gaitzek mespretxu sistematiko batean bizi, horrek lizunkeria ororen tiraniara eramaten duelako, zeinak bere mozkina ateratzen baitu berdinaletasun jibarizaturiko giro honetan.

**Antonio Marina**

Batxilergoko filosofiako katedraduna

**Rafael Bernabeu**

Psikologian lizentziaduna

## Jarduerak

### Zein da testuaren giltzarria?

*Errespetuan oinarritutako hezkuntza*

### Nor dira errespetuan oinarrituz hezi behar dutenak, nola egingen edo nola suspertuko dute?

*Aumena, familia; ondoren eskola; eta, orokorren, gizarte osoa, erakundeen bidez.*

### Zeri dagokio eta zer esan nahi du testuko "berdintasun jibarizatzailea" esamoldeak?

*Metafora bat da. Jibaroek etsaiak hil ondoren haien buruak txikiagotzen di-*

*tuzten bezala, gure etsairik handiena, adimena (burua, irudizko adieran) txikiagotzen diguna zera da: ontasuna, edertasuna zentzugabez mespretxatzea. Ulertzen saiatu ordez errazagoa da mespretxatzea.*

### Ados zaude testuaren ideiarekin? Zerekin zaude ados? Zerekin ez? Arrazoi-tu egin duzun aukera.

*Nahierara erantzun.*

### Zer da zuretzat errespetua?

*Nahierara erantzun.*

**Aldera ezazu testu hau *Bokatarik gabeko nire lehenbiziko jolas ordua* izenburuko eszenarekin. Gogoeta labur bat egin dezakezu, testuko gako-hitz edo adierazpenak aintzat hartuz, hala nola errespetua, balioen hezkuntza eta kontrakoak diren beste batzuk, demagun mespretxu sistematikoa, erdeinua, lizunkeriaren tirania (ez duzu horrela zehazki zertan erabili, baina kontuan eduki itzazu).**

## Testuaren gaineko iruzkina

### Mamen ezagutzen dut

Bai, Mamen bezalako jende gaztea ezagutzen dut. Katuak bezain isilak, aitaren edo amaren pertsekuzioa ager ez dadin. Ezagutzen dut Mamen bezalako jende gaztea. Mamenek txikitako kaleak, haurzaroko lagunak utzi behar izan ditu, gurasoak –baita bera ere– arriskutan zeudelako, biktimak direla uste duten fanatikoen erasoengatik. Ezagutzen dut horrelako jende gaztea, Mamen bera, umezurtz gelditu dena eta kaletik zihoala barre egin diotena. Hiltzaileen kolaboratzaile direnek barre egiten dute Mamen bezalako jendearen lepotik, egiazko jendeari, hezurrezko eta haragizko jendeari, eraso egiten diote, eta hala ere, zapalduta daudela

esaka ari dira, eta sorrarazten duten oinazea axola gutxi haiei. Jazarpen formulek elkarrekin gauza anitz dute batean: mobbing, bullying, jazarpen matxista, fanatizazio ideologiko edo erlijiosoaren ondorengo pertsekuzioa, eta horiek guztiek biktimaren ikusiezintasuna behar izaten dute, biktimaren inguruko sentiberatasunik eza, biktimak errudun dela uste izatea. Beldurraren estalkia hautsiz bakarrik lagunduko diegu biktimei, baina baita borraroei ere. Haiei ere bai.

**Maitte Pagazaurtundua**

## Pertsonaia bati zuzenduriko gutuna

Iruñean, 2009ko otsailak 19

Goseti maiteak:

Gaurko eguna beste edozein bezalakoa da institutuan. Sirenak jotzen duen bakoitzean denok esertzen gara. Bitxia da nola beti berdin erreazionatzen dugun hots, keinu edo sinbolo batzuekin.

Sirena hotsa entzun orduko denok atera dugu bokata, batzuek txorizoduna; besteok sagarra bakarrik. Egintza masiboak eta komunak, zeinetan ez baita beharrezko giza adimena erabiltzea. Besterik gabe, bakoitza egintza erreflexuz, egintza errazez baliatzen da, norberak hurbilen duen elementu bizidunaren imitazio zehatzean oinarrituz. Badu antzik artaldearekin, artegira itzultzen denean. Kopiatzea beti da erraza eta ez du lanik ematen.

Eguna eguzkitsua da eta dagoeneko ezin duzu gehiago. Hizkuntzakoak XX. mendeko poema guztiak ikuskatu ditu, berrogeita hamar motatako azidoez hitz egin duen irakasleari entzun ondoren. Baina, dirudienez, zerbait gertatu da, normala den zerbait. Dirudienez...

Kotxe-bomba bat lehertu dute Nafarroako Unibertsitatean... "Gaitzerdi, aurrez abisatu baitute". Baina eguna astunegi dohakizu bost minutu itxaroteko ogitartekoa jan gabe... "Gainera, ez da hildakorik egon, beste kotxe bat besterik ez da izan".

Politiko bat, Alderdi Sozialistako kidea, erail dute Arrasaten, bost tiro bere kotxean zegoela. "Hara, zer pena". Bai, egia da, seguru aski haren 16 urteko alabak, Mamenek, ez duela urdaiazpiko bokata gozatzen zuk bezala. Baina, azken finean, ez zenuen ezagutzen eta gainera ez duzu atsegin politika kontuetan sartzea.

Orain gertatzen da erailketa bat ez dela pertsona bat hiltzea edo familia bat deseginik uztea, orain "politika kontuak" besterik ez dira. Ez legoke gaizki gure garunaren parte hori, kopiatzera soilik bideratzen ez den hori, bere borondatez jarduten duena, artaldetik ateratzeko iritzi propioa bilatzen duena, erabiltzen hastea. Bai, egia da pena ematen duela, pena handia ematen duela, gutxiago izanik ere hiltzaileak irabazle ateratzeak. Baina, besterik ez bada ere, bil gaitezen gainerakook bost minutuz familia hori gogoratuz, zeinak, aurrekoa nahikoa ez balitz, gainera honelako iritziak entzun behar baitituzte "bueno, baina fatxa bat zen".

Hurrengo jolas orduan ikusiko dugu elkar, zu behe-iba-irean eta ni neure iritzia aldarrikatuz isilean.

**D.M.**

Batxilergoko Lehen Maila



# *Primer descontrol*







## Laburpena

Neska-mutil talde bat Z belaunaldiaren (azkena) argazki adierazgarri baterako bezala jarri dira eta ondoren gazteak lehenbiziko porroaz mintzo dira eta nolako etorkizuna izanen duten 20 urte bete ondotik; datu deigarriak azaltzen dituzte nerabeen eta helduen droga kontsumoaren inguruan, txantxa-isekazko iruzkinak eginez.

## Gaiak

Gai nagusia droga kontsumoa da.

Kontrolik eza.

Arau soziala haustea.

Gizartearen zati handi bat ukitzen duen egitate baten aitzinean erabakiak hartzea.

Debekuaren eta kontsumoari buruzko datuen arteko kontraesanak.

Gazte bakoitzaren osasun arriskuak eta bere osasunarekiko duen erantzukizuna.

## Pertsonaiak

Adieraz ezazu pertsonaiek zer jarrera duten droga kontsumoari buruz.

Pertsonaiek drogari buruz dituzten jarrerak ez bezalakoak identifika daitezke?

## Jarduerak

Egin ezazu testuaren laburpen bat, gehienez ere 9 lerrokoa.

## Jarduerak

Esan zein den testuko funtsezko gaia.

*Droga kontsumoa*

Zuk edo, beharbada, zure inguruko pertsonak bizi izandako egoeraren baten, kontsumoarekin ikustekorik duten erabakiak hartzeko garaian, eragozpenik izan duzu edo nabaritu duzu?

## Sortze jarduerak

Hauta ezazu ahotsetako bat eta idatz iezaiozu gutun bat.

*Jarduera hau heda daiteke antzerki lan honetako edozein eszenatara.*

*Eranskinen beste eszenetako pertsonaiei zuzenduriko gutunen adibideak irakur daitezke.*

## Gogoeta jarduerak

Zure ustez, zein da estatistiken ekarpena fenomeno hau ezagutarazteko? Azter ezazu drogen kasuaren ikuspuntutik.

Pertsonaiek aurkezten dituzten da-

tuak erka itzazu, Interneten arakaturaz, egiazkoak dira?

Pertsonaiek adierazitakoez gainera beste datu batzuk, interesgarri iruditzen zaizkizunak, erants ditzakezu?

Kontrola galtzeak zer ondorio ekar ditzake zure ustez?

Azken azalpena, klasean bildutako ondorioak ordenan jarritz: positiboak, negatiboak edo ez bata eta ez bestea.

## Testuaren gaineko iruzkina

### Hartu behar ditugun erabakiak

Gazte izatea da ezin konta ahala erabaki hartzeko irekia egotea. Erabakitzea zer egin nahi duzun, zer ez, norekin egon, zertara bideratu zure denbora, zer komeri zaizun... Gazte izatea da burua erabiltzea bizitza topera gozatzeko, segundu bakoitza eta esperientzia bakoitza aprobetxatzeko, aitzinean bizitzeko denbora guztia izanik ere.

Mundu korapilatsua bizi dugu: kontsumoko gizartea deitzen duguna. Guztiok, nagusienetatik hasita, bizi gara berehala ase beharreko kontsumoarekin, gogobetetze eta plazerrarekin, eta esfortzurik txikiena egitearekin zerikusia duten balioez inguratuak. Testuinguru horretan gertatzen dira honelako fenomenoak: gehiegizko kontsumoa, hedonismoa, frustrazioarekiko tolerantzia txikia, edo substantzia batzuk hartzea, ihesbide bizkorreko jokabide gisa. Horietako anitzek aski zoritxarreko egiten gaituzte azkenean, edo, gutxienez, ongi egoten ez digute laguntzen.

Gazte zarelarik, une egokia da zer egin nahi duzun, zer izan nahi duzun zeure buruari galdetzeko. Eta une egokia burua behar den bezala erabiltzeko erabakiak hartu behar direnean eta erabaki horiek –txikiak nahiz handiak– gauzatzeko orduan. Ja-

kin behar duzu zer irabazten eta zer galtzen duzun hartzen duzun hautabide bakoitzeko, horretarako balioetsi behar dituzu, ahalik eta zorrotzen, gerta daitezkeen irabaziak eta galerak. Izan ere, gure erabaki guztietan, txikiak izanik ere, geure gain hartzen ditugu izan daitezkeen galerak eta irabaziak. Irudizko balantza batean haztatu behar duzu, gauza bat edo bestea erabakitzen duzunean, horietan zein nagusituko den. Horren ondoren, nor bere buruarekin zintzo izatea besterik ez da gelditzen eta burua erabiltzea, aukera egokia hautatuz, kasu bakoitzean irabazien platerak galerenak baino pisu handiagoa izan dezan.

Eta, drogez mintzo garelarik, arestian adierazitakoaren zehaztapan bat dela iruditzen zait. Kontua da nor bere buruarekin zintzo jokatzea, aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak balioestea, eta horren ondorioz erabakitzea. Suhartasunik eta ideologiarik gabe, ene bizitza eta ene inguruabarrak soilik neure balantzan.

**Alfonso Arteaga Olleta**  
SUSPERTU programa

## Jarduerak

Testu honen iruzkina egiteko aurreko orrialdeetan jarduerak eta gaiak erantsi dira, hain justu ere *Lehenbiziko Sanferminak* izenburuko eszenaren ondoren ezarri direnak.





